

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-11-15
EGUBAKOITZA
574. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Debagoiena
irtengo da
krisitik
indarberrituta"



Mari Carmen Gallastegi |
Anlisi Ekonomikoan katedraduna | 6

Abenduaren
2an, TAO
probaldian

Arrasaten abiaraziko
dute TAO, hilabeteko
probaldian | 10

GEHIGARRIA, BARRUAN
Etxebizitza eta dekorazioa | 17



'Bergara bizi' eguna, merkataria
eta ostalarien eskutik | 12




Aretxabaletaren eta Antzuolaren
arteko futbol derbia, Ibarra | 28



Argazkietan,
azken urteotako
Literaturako
Nobel saridunak.

JOKIN ZAITEGI BEKA SALBATU GURAN

Nobel saridunaren liburuaren itzulpen-bekarako diru laguntza kendu egin diote Arrasateko AED elkarteari eta Nobel-truk ekimena abiarazi dute | 33



Hitzarmenaren aldeko saiakera egingo du orain Fagorrek

Eguaztenean
aurkeztu zuten
hartzekodunen
konkurtsoa | 2



Fagorreko bazkideak protestan, martitzenean. | IURE EIZAGIRRE

Silhouette

Gustatuko litzaizuke modako aditu
batek zure betaurrekoak
aukeratzen laguntzea?
Azaroak 20, Multiópticas Bergaran

* Hitzordua hartzeko deitu ondarengo telefonora.

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan

SINADURAK

JOSEBA
GABILONDO | 7

AMAIA
TXINTXURRETA | 7

MIREN ARGÍ
ZEZIAGA | 27

AGURNE
BARRUSO | 40

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 7 | HERRIAK 9 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 36 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Fagor Etxetresnak konkurtsora, eta hitzarmenaren alde



Fagor Etxetresnetako eta Edesako langileek martitzenean Mondragon Korporazioaren ego...

Hitzarmena ez bada lortzen, likidatu egingo da Fagor Etxetresnak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Fagor Etxetresnek eguaztenean, 14:18ean zehazki aurkeztu zuten hartzekodunen konkurtsora bere enpresa nagusirako eta Irlandako Fagor Ireland filialarendako, Donostiako 1. Merkataritza-Auzitegian. Horrenbestez, Polonia-ko Mastercook eta Frantziako Brandt filialen bide berea jarraitu du Euskal Herriko adarrak, joan den astean aurreratu zen moduan.

Konkurtsora hitzarmen bidez soluziona daitezke -legegileak hori hobesten du- eta, horren bidez, zordunak eta hartzekodunek, epailearen oniritziarekin, ados jartzen dira zorrak ze neurritan eta ze epetan ordainduko diren. Normalean, hitzarmena baldin badago, zor zieten baino diru gutxiago jasotzea onartzen dute

hartzekodunek, eta urte batzuk itxoin behar izaten dute. Hitzarmena lortzen ez bada, likidazio bidez bukatzen da konkurtsora.

Fagor Etxetresnek eguaztenean bidalitako prentsa oharrean esaten zenez, "une honetatik aurrera, epaileak izendatuko duen konkurtsora-administratzaileak zehaztuko du enpresak hartzekodunekin hitzarmen bat lortzeko bideragarritasunik duen edo, aitzitik, likidazioaren bitartez konpromisoei aurre egiteko formula eta epeak zeintzuk diren".

Fagor Etxetresnetako zuzendari nagusi Sergio Treviñok ohar berean esaten zuen "bihotzez sentitzen" zutela langile, bazkide eta hartzekodunen "interesak babesteko lituzkeen jarduera produktiboarekin" jarraitzeko

adinako finantzaziorik "eskuratu ezin izana".

Foru Aldundia izan da inplikatuetakoa bat Fagor Etxetresnendako finantzazioa bilatzeko. Astelehenean, Martin Garitano ahaldu nagusia eta beste ordezkari batzuk Kutxabankeko Mario Fernandez presidentearekin eta Xabier Iturbe presidenteordearekin batzartu zen Fagor Etxetresnen gainean. Gero esan zituen hitzetan igarri daiteke asteotan askotan esan izan dena, hau da, Fagor Etxetresnendako etorkizuna egon daitekeela; baina dagoeneko ez orain arte ezagutu izan dugun moduan. Garitanoren esanetan, "etorkizunean izan litezkeen" bideragarritasun planak aztertzeke eta diruz laguntzeko gertu azaldu zen Kutxabank; betiere, etorkizuna duten jardueretarako: "Enpresa osorako edo

ESANAK

"Lanpostuak salbatzeko gure kolaborazioa izango dute"

MONDRAGON KORPORAZIOA

zati batzuetarako egin daitezke bideragarritasun planak".

Aukera bat da, konkurtsoprozeduran zehar, bideragarri izan daitezkeen negozioei eustea eta gainerakoa likidatzea. Fagor Etxetresnetako zuzendari nagusiak esan zuen egosketa negozioa bideragarria zela, eta baita sukaldako tresna txikiena ere.

Lanpostuak salbatzea


Mondragon Korporazioak langabeei irtenbidea emateko planekin aurrera jarraitzen du. Lau hanka dituzte asmo horiek: birkokatzeak, aurre-erretiroak, formazioa eta "ezohiko bideak" deitutakoak. Bide horien artean, Mondragon Korporazioa aztertzen dabil orain arte Korporazioko kooperatibek azpikontratu bidez jasotzen dituzten zerbitzu batzuk euren gain hartzea, hau da, zerbitzu horiek euren langileekin betetzea. Modu horretara, lanik gabe geratu diren bazkideendako lanpostuak egon litezke.

Konkurtsoprozeduran "enpleguak salbatzeko aukerarik bada, hori egin" beharko dela esan dute Mondragon Korporazioko ordezkariak, eta ahalegin horretan Korporazioaren "kolaborazioa" izango dute Fagor Etxetresnek.

SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757
www.servimasa.com

blum
FRANKE



Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.

Zatoz eta informa zaitez!





Oitzatik behera egin zuten giza katea. | IURE EIZAGIRRE

ESANAK

"Ezin da onartu bazkideek tratu injustua jasatea"

FAGOR ETXETRESNETAKO
KONTSEILU SOZIALA

Kapitala, galdutzat

Konkurto prozeduraren helburu nagusia enpresaren hartzekodunei ordain bat ematea da; zor osoa kentzerik ez badago, zorren zati handiena. Hartzekodun guztiak, baina, ez dira maila berekoak legegilearendako.

Fagor Etxetresnen kasuan, bada berezitasun bat: kooperatibako bazkideak hartzekodun ere badira, bertan daukaten kapital sozialarengatik eta, kasu askotan, borondatezko ekarpenengatik. Martitzenean, Fagor Etxetresnetako Kontseilu Sozialak galdutzat jo zituen bazkide aktibo eta ez aktiboen kapital sozialak eta borondatezko ekarpenak, eta hala esan zien Mondragoneko eta gainerako kooperatibetako organo sozialei.

Horiei bidalitako ohar baten, Fagor Etxetresnen egungo egoera "ekidinezina" dela esaten dute eta dagokien "erantzukizuna saihestu" barik, ezin dute "onartu bestelako erantzukizunak lausotu" eta "bazkideek tratu injustua jasan dezatela". Esaten dutenez, Etxetresnek garatutako plan estrategikoa eta inbertsio egitasmoa "Korporaziotik gainbegiratu eta, hein handi batean, zuzendu" zen.

Erretiroei dagokienez, kooperatibak ekarri beharreko osagarri guztiak galdutzat ere ematen dituzte eta hala, aurre-erre-

tirutzen diren bazkideek orain arte kobratzen zutenaren % 60 kobratuko lukete 12 hilekotan. Orain arte, indizearen % 80an zeukaten soldata.

Birkokatzen inguruan, esaten dute hiru urtean behin betiko birkokatu ez den bazkideak bazkide izaera galduko lukeela. Horren harira, Lagun Arori araua aldatzeko eta beste aukera batzuk ahalbidetzeko eskatzen diote: Lagun Arotik kanpoko aldi baterako lanei heldu ahal izatea langabezia-eskubidea galdu gabe.

Kooperatibak duen zorraren aurrean, Euskadiko Kooperatiben Legeak dioena gogora ekartzen dute, hain zuzen ere bazkideok erantzukizun mugagabea dutela kooperatibak galerak dituenen, eta nahiz eta beste interpretazio batzuk onartzen dituen, ez dagoela "bermerik" legea hitzez hitz interpretatuko ez dela. Horren aurrean, bazkideen erantzukizuna mugatua izan dadin berma diezaieten eskatu dute.

Kontseilu Sozialak esan zuten Mondragon Korporazioako enplegu bulegoa ez dagoela operatibo, baina hori gezurtatu egin du Korporazioak.

20 milioi eskatzen dituzte

Bazkideen borondatezko ekarpenak eta kapital sozialari egindako maileguak bueltan eskatzeko sortu dute hainbat bazkidek Ordaindu taldea, eta atzo, eguena, euren abokatuekin batzar irekia egin zuten Arrasaten, Kulturaten. 200 bazkide inguru batzen ditu elkarte horrek. Eurek eman dituzten datuen arabera, aurten 42 milioi euroko kapital soziala zuten Fagor Etxetresnek –eta diru hori berreskuratzen saiatzeari uko egin diotela esan dute, ezinezkoa delakoan–, eta borondatezko ekar-

ESANAK

"Ekoizpenaren % 50 Fagor Etxetresnendako egiten genuen"

JOSE LUIS SAIZ
UBAOLAN ENPRESAKOAK

penetan, beste 45,33 milioi. Ordaindu taldean batzen diren bazkideek 20 milioiko zorra erreklamatzeko diote kooperatibari.

Edesako langileek ere kalte ekonomikoa izan dute, borondatezko kapital ekarpenak, ekarpen bereziak eta partizipazio bereziak zituztelako askok. Hori dela eta, eguen arratsaldean batzarra egitekoak ziren Basaurin.

Inplikazioa eskatzen dute

Edesa ez da kooperatiba, eta orain EREa dauka. Igor Hernando langilearen esanetan, enpresa iraungitzeko (extingitzeko) EREa noiz etorriko zen zain zeuden joan den astelehenean.

Hori dela eta, Edesako eta Fagor Etxetresnetako langileek

giza kateak egin zituzten ehunka bazkidek Mondragon Korporazioaren egoitza aurreko bidean behera, astelehenean eta martitzenean. *Etorkizunaren alde!* leloarekin kontzentratu ziren bertan. Hainbat lelo oihukatu zituzten: *Fagor, Edesa ez itxi* edo *Non dago Gisasola?*, besteak beste. Mondragon Korporazioaren "inplikazio handiagoa" faltan igartzen zuten.

ELA sindikatua "oso kezkatuta" agertu da sortu den egoerarekin. Prentsa ohar baten esan duenez, Fagor Etxetresnek "egoera erabateko ezkutukeriaz kudeatzen du" bazkide eta langileen-ganako.

SA eta SL asko, kaltetuta

Fagor Etxetresnak ixteak merkataritza-sozietate asko lanik gabe uzten hasi da. Azpeitiako Grumal SL da orain arte ezagunen egin dena. Fagor Etxetresnena da enpresa hori, baina SL bat da eta bertako langileek mobilizazioak egin dituzte; gaur, egubakoitz, 11:30ean dira Fagor Korporazioaren egoitzaren aurrean batzekoak.

Beste enpresa batzuen izenak ere azalera irteten hasi dira. Ibarra garraio enpresa suspentsio-EREarekin dago, bere lanaren % 90 Fagor Etxetresnendako egiten baitzuen.

Oñatiko Ubaolan enpresako arduradun Jose Luis Saizek onartu digu "oso gaizki" geratu dela enpresa. Fagor Etxetresnendako piezak egiten zituzten, zuzenean Edesara eroaten zirenak. 10 lanpostutik lau kolokan dituzte. "Ekoizpenaren % 50 Fagor Etxetresnendako zen. Jakina, EREa egin behar izan dugu. Uste dugu bizi iraungo dugula". Mungiako Incasak (21 langile) konkurtsioa aurkeztu du.

Beste kooperatiba batzuk ere hornitzaileak ziren: Orkli, Tajo, Enbega...



Comarth auto bat. | F. EDERLAN

Ederlanek, 70 lanpostu berri

Fagor Ederlanek lantegi berria izango du laster, aukeran Debagoienean edo, hala ez bada, bertatik oso gertu; eta 2014tik eta 2016ra arte 70 lanpostu sortuko ditu. Lanerako automobil elektrikoan Espainiako enpresa liderraren, Comarth-en % 38 erosi du eta sektore horretan lan egiteko izango da lantegi berria, nabe industrial bat. Fagor Ederlanek esan duenez, behar dituzten langileak kooperatiben lan-poltsatik aterako dituzte; bertan daude orain ere Fagor Etxetresnetako bazkideak.

Lantegi hori urtean 2.500 automobil egiteko gai izango da. Fagor Ederlanek eta Comarth-en gainerako bi bazkideek 4 milioi inbertituko dituzte epe laburrean.

Fagor Ederlanek azpimarratu du Ederlanen kudeaketaren emaitza dela honakoa, eta euren industria-dibertsifikazio estrategiaren barruan jarduera berrien aldeko apustuan ulertu behar dela orain lortutakoa. Fagor Ederlanek hiru urte daroa dibertsifikazio-estrategia hori sakontzen, batez ere bi sektoretan: elektromugikortasuna, batetik, eta ura –Fagor Edergarderen–, bestetik.

Enpresa liderra

Comarth enpresa liderra da Espainian, lanerako automobil elektrikoetan. Besteak beste, Espainiako, Norvegiako eta Frantziako posta zerbitzuei saldu dizkie automobil elektrikoak.



Foru Aldundiko eta Kutxabankeko goi-agintariak, batzartu eta gero. | GFA

KIRURGIA OROKORREKO ZERBITZUA

Tratamenduak:

- Barizeak eta arma baskullarrak: eskleroterapia eta kirurgia
- Uzki-patologia: hemorroideak (HAL/RAR), uzki-fisura
- Abdomen-paretako herniak
- Behazun-maskuria ateratzea (kolezistektomia) laparoskopia bidez
- Azal-tumoreak: neboa, lipomak, kisteak
- Koloneko eta hesteetako patologia
- Urgentzia kirurgia

QUIRÓN
OSPITALEA
Donostia

ESKA EZAZU ORDUA:

QUIRÓN DONOSTIA OSPITALEA | UDALAITZ ZENTRO MEDIKOAN
Tel.: 943 43 71 00 | Tel.: 943 79 44 22

RPS: 122/09

www.quiron.es





Miguel Zugaza. | JAKIUNDE



Victor Gomez. | JAKIUNDE

Jakitunek batzarra daukate gaur Bergaran

UBANE MADERA | BERGARA

Jakiundek, Zientzia, Arte eta Letren Akademiak, ohiko batzarra deitu du gaurko, egubakoitza, Bergarako Olaso dorrean, 10:00etan. Akademian sartuko diren kide berrien kargu hartzea gauzatuko da: Jose Luis Larrea (Deustuko Unibertsitatean Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna), Miguel Zugaza (Madrilgo Complutenseko Geografia eta Historia lizentziaduna) eta Victor Gomez (Sorbonan Filosofia ikasitakoa eta bertan Estatuko Doktore gradua lortu zuen). Bestalde, Jose Felix Marti Masso doktore, Donostia Unibertsitate Ospitaleko neurologia zerbitzuko buru eta EHUko irakasleak egingo du hasiera hitzaldia. Eta harekin batera, 40 jaki-



Jose Luis Larrea. | JAKIUNDE

tunetik gora izango dira gaurko batzarrean.

Izendapen berriez gainera, Jakiunderen ildo estrategikoak aztergai izango dituzte; besteak beste, Euskal Herriak dituen errokei zela erantzun hainbat sektore edo ikuspegitik.

Guardia Zibilaren "jazarpena" salatu du Josu Lizarralde

JON BEREZIBAR | OÑATI

Duela astebete Guardia Zibila egin zion "legez kanpoko itaunketa" salatu zuen Oñatiko Josu Lizarralde zinegotziak martitzenean. Sortu alderdiaren Kontseilu Nazionalako kide ere badenak mehatxu zein irainak eta "jazarpena" salatu zituen. Zehazki, Oñatiko bidean, hormigoi-makinan autoa gerarazi eta baso-bide batera eraman zutela kontatu zuen. Eta adierazi zuen ez dela mota horretako "mehatxuak" jasaten dituen lehen aldia; adibidez, mehatxuak jaso izan dituela postontzian. Eta Bergarako epaitegian salatu arren, salaketa guztiak "ikerketarik gabe" artxibatu dituztela. Fernando Barrena Sortuko bozeramailearekin, Mikel Biain alkatearekin eta Maialen Urzelai zinegotziarekin batera egin zituen salaketok Donostian, prentsaurrekoan.

"Helburua, gu kikiltzea"

Salaketon harira, Oñatiko Sortuk Lizarralderi babesa adierazi dio eta zera gaineratu gura du: "Argi eta garbi esan nahi dugu euren helburua gu kikiltzea bada, alferrik dabilzala".

Hizkuntza gutxituen komunitateekin lankidetzaz sustatzeko hitzarmena

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Uemak, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, eta Garabide elkarteak, lankidetzaz linguistiko eta identitarioz lan egiten duen elkarteak, hitzarmena sinatu zuten martitzenean, Bergaran. Hain zuzen ere, hizkuntza gutxituak dituzten komunitateekin lankidetzaz sustatzeko hitzarmena da bi erakundeek sinatutakoa.

Erakunde biotako ordezkariak azaldu zuten Euskal Herriak baduela zer ikasi hizkuntza gutxituetako herriengandik, eta, alderantziz, haiek ere badutela Euskal Herriatik zer ikasi. Beraz, zubia eraikitzea da hitzarmenaren asmoa, elkarri laguntzeko eta bidelagun izateko

zubia, alegia. Garabide elkartearen presidentea Andoni Barreñak eta Uemako lehendakari Maren Belastegik sinatu zuten hitzarmena, eta haren garrantzia azpimarratu.

Lankidetzaz sustatzeko


Garabideko presidentek gaineratu zuen herri gutxitueta-koek laguntza eskatzen dietela hemengo esperientzia ezagutu nahi dutelako eta dei egin die udalei, eta batez ere Uema osatzen duten udalei, jarrai dezaten lankidetzaz sustatzeko praktikatzeko hizkuntzak biziberritzen. Uemak, berriz, bere baitan dituen "71 udalera hitzarmena zabaltzeko konpromisoa" hartu zuen.



Andoni Barreña eta Maren Belastegi, hitzarmena sinatzen. | A. TXINTXURRETA



EKONOMIKOA (siplea eta bero-emaila) • **BEHEKO SUA** (siplea eta bero-emaila) • **ESTUFAK** • **GALDAREN ORDEZKATZEAK**
Dei egiguzu eta dauden aukerez informatuko zaitugu!



Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu **EGUN BATEAN!** Informa zaitez!



Marka guztiekin lan egiten dugu.



Mitarte 5, behea
Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92
ARETXABALETA



UBANE MADERA | BERGARA

Salaketa eta berba gogorrek entzun ditugu asteon Bergaran egindako herri galdeketa bueltan. Emaizak baloratzenetik harago, herri galdeketa bera egiteko moduak eta hori salatzen erabilitako bideak eragin dute aldekoen eta kontrakoaren arteko akusazioen elkar-truke handiena.

"%18 atez atekoaren alde"

Edozelan ere, herri galdeketa antolatuta duen Bergara Garbia plataformak, lehenengo eta behin, kontsultan erdietsitako erantzuna baloratu du asteon. Bergarar guztiei, "eta bereziki kontsultan parte hartu eta boluntario lanean aritu zirenei" eskerrak eman ostean, datuak eskuetan, adierazi dute 4.843 pertsonak hartu dutela parte eta horien artean %98,51k eman dutela bosgarren edukiontzia aldeko botoa eta "%18 inguru" leudekeela "atez atekoaren alde".

Hori baieztatzen, honako irakurketa egin dute: "4.843 pertsonak hartu dute parte, hau da, %41,7k, eta parte-hartzaileen artean %98,51k bosgarren edukiontzia alde egin dute. Azken urteetako hauteskundeetako parte hartzea %60koa izan da, portzentaje horri %41,7 kentzen badiogu, abstentzioa %18,3 litzateke. Azken emaitza horri, halaber, ehuneko zati bat ere ken diezaiokegu presioak direla eta botoa ematera joan ez zen jendearengatik. Beraz, %18 inguru egongo lirarteke atez atekoaren alde".

"Mafia dirudi"

Herri galdeketa harira, berriz, diote "tamalgarría" dela "piketeen jarrera, kontsultan parte hartu nahi zuten beldurtzea helburu, gerturatzeko zirenak kontrolatu eta zenbaiti argazkiak atera zizkieten, oraindik ez dakigu zertarako erabiliko dituzten (...) Horrelako metodo diktatorialak ahaztuak zirela pentsatzen genuen (...) Asmo txarrez boto iruzurrak emateko saiakerak ere egin ziren, baina horiek antzeman eta atzera bota genituen. Zabaltzen ari den bideoak argi uzten du erakunde politikoko honek duen moraltasun gabezia bistakoa dela, erakunde bako gehiago, mafia dirudi".

Bideoen harira

Hain zuzen ere, azken erreferentzia horrek egunotan sare sozialetan argitaratu den bideo bati (Bergarako Zero Zaborrek grabatutakoa) egiten dio erreferen-

Herri galdeketa ondoarena bizi-bizi Bergaran

Batzuk haren balioa aldarrikatu eta besteek zilegitasuna zalantzan jarri dute



Bergara Garbia plataformako ordezkariak prentsaurrekoan. | JON BEREZIBAR

tzia (www.youtube.com/watch?v=3Oc4d6Chjhw).

Bergarako Sortuk ere bideo horri eta beste bati egin zien erreferentzia eguzteneko prentsaurrekoan. "Iraitz izeneko kazetariak Bergara Garbiakoak firmak faltsifikatzen grabatu zituen eta lau bozka eman ahal izan zituen, horietako hiru delegatuak. Sortuk, berriz, bideo batean Victoriano Gallastegi Bergarako alkate ohia- ren hitzak eta ekintzak jaso ditu: eskolaz eskola bozka delegatuak ematen aritu da; eskolaz eskola zentsoan ez zeuden pertsonen bozka eman diotela onartu du". Hori oinarri, "EAJko buruen" eta "Bergara Garbiako ardura- duren jarrera erabat arduragabea, manipulazalea eta zikina" erabili izana salatzen dute, esanez, "herri galdeketa iruzur orokorra" egin dutela "bergararrak gure arteko liskarretara bultzatuz". Eta horregatik, "EAJko arduradun Victoriano Gallastegiren eta Aintzane Oiarbideren berehalako dimisioa" eskatzen dute.

Horri erantzunez, atzo (egue- na) goizean Bergarako EAJ-PNVk emandako prentsaurrekoan, biek adierazi zuten dimisio eskaerok lekuz kanpo daudela. Victoriano Gallastegik adierazi zuen EAJ-PNVko batzar municipalak lehendakaria dela eta bere talde-

koek esango dutela dimititu behar duen edo ez. Aintzane Oiarbidek, berriz, adierazi zuen ez dakiela zertaz dimititu behar duen eta ezta zergatik ere.

"Aurrekari bako arrakasta"

Prentsaurreko berean, EAJ-PNVk adierazi zuen "aurrekaririk ez duen arrakasta" lortu duela herri galdeketa. %41,8ko partaidetza nabarmendu, eta ulertu ondoren "atez ateko sistemari" %98k ez- tza eman diotela, eta "baiezkoa bosgarren edukiontzia", galde- tzen dute ea "zenbat bozka behar" dituen gobernuak "herriaren eskaera entzuteko" (...) "Badakizue ondo, bildutarrak, gehiengo aurka duzuela, eta zergatik jarrai- tzen duzue herriari bizkarra ematen? (...) Udal Gobernuaren eta ezker abertzalearen jarrera ikusi eta gero, herri partaidetzaz hitz egiteko legitimitate osoa galdu duzue. Zuen demokrazia zuen alde dagoenekin bakarrik dago", dio EAJ-PNVk.

Horrez gain, ezker abertzalearen jarrera salatu dute: "Mahaietan zegoen jendea, nahiz bozkatzea etorri diren asko eta askorengan eragin nahi izan duzue presioa, koakzioa eta deskalifi- kazioa erabiliz" (...) "Gazteei izen- abizenak eskatuz, mehatxatuz, lanean nahiz bozkatzeko ari zen jendeari argazkiak ateraz, graba- ketak eginez... (...) Noren bel- durra duzue, herriarena?", gal- detzen du EAJ-PNVk. "Gauza guztien gainetik herriaren hitza errespetatzen dugula esan nahi dugu ozenki. Herriari errespetua zor diola esaten diogu Bergarako Udal Gobernuari eta ez ditzala begiak itxi, borondatea izanez gero, beti dagoela konponbidera iritsi eta atzera egiteko denbora (...) Bilduk Arrasaten atzera egin badu, zergatik ez Bergaran?".

"Iruzurren gainetik"

Bergarako Sorturen ustez, berriz, "sasigaldeketa" da egindakoa. Urtearen errepaso egin ostean, diote "urtebeteko iruzur kanpai- nari ginda" jarri diola galdeketa.

"Arau adrebesak" erabili izana salatu dute, "inon, inoiz ikusi eta onartu gabekoak: boto delegatua, komertzianteen bozka; begira- lerik ez onartzea. Begiraleak hauteskunde eta galdeketa guzti- guztietan onartzen dira eta boto delegatua inon ez" salatu, eta asteburu berean Igeldon eginda- ko galdeketa jarri dute adibide moduan. "Arau hauste larriak" egin izana azpimarratzen dute, "dokumenturik gabe bozkatzea, erroldatu gabeko herritarren boz- kak, Bergaran bizi edo lan egiten ez dutenek bozkatzea, komertzian- te batzuek bi aldiz bozkatzea...", eta zentzu horretan egiten diren erreferentzia Bergara Zero Zabo- rren zein Sorturen grabazioei.

Edozelan ere, horrekin batera, aitortzen dute "bozkatzera joan ziren bergararrak fede onez joan zirela, beraien iritzia eman bes- terik ez" zutela egin, eta "erres- petua" adierazi diete: "Eskubidea da egin duten bezala, modu zibi- lizatuan beraien oposizioa adie- raztea: bozkatzuz, mobilizatuz eta poltsak jarriaz". Bukatzeko, "poli- tikariak eta herri mugimendu- tako ordezkariak" eredu garranti- a aldarrikatzeaz eta "galdeke- tan iruzur orokorra" aurpegiatzeaz bat eskatu diete EAJko ordezkari- rei dimisioa eta Bergara Garbia- koei "hausnarketa sakona".

Ez "instrumentalizatu"

Sozialisten izenean, berriz, Denis Itxasok, Gipuzkoako Ingurumen idazkariak egin du galdeketa irakurketa, esanez herriaren partaidetza "baketsua eta eredu- garria" izan zela eta emaitza "ezez- ko borobila", "ia 5.000 boto-emai- leen %98rekin, bosgarren edu- kiontzia babes esplizitua emanez". Herriaren zorianon dituzte "modu zibikoan ekin" diotelako "sistema zikin, osasungaitz, garesti, antie- tetiko eta deseroso baten aurka". Jaione Isaszelaia alkatearentzako berbak ere izan ditu, esanez, herri- partaidetza ezin daitekeela "ins- trumentalizatu" gobernari- en hel- buru politikoen "bulkada-palanka" bihurtzeko eta "galdekete- k Igel- dorako balio badute, Bergaran ere hala" beharko dutela.

Udal Gobernu eta Zero Zabor

Bukatzeko, Bergarako Udal Gober- nuak (EHBildu-Aralar) erabaki du oraingo asteko balorazio eta akusazioei erantzunik ez ematea, "esateko zutena esanda" dagoela azpimarratuta. Eta ildo beretik jo du Bergara Zero Zabor plata- formak.

Korrikako inputatuen absolutzioa berretsi dute asteon

U.M. | DEBAGOIENA

Auzitegi Gorenak berretsi egin du 17. Korrikako presoen argazkiak eramateagatik epaitu zituzten lau debagoiendarren absolutzioa. Hain justu ere, urte hasieran Auzitegi Nazionalak absolbitu egin zituen lau inputatuak, baina fiskalak errekurritu egin zuen epaia. Amaia Osa, Sebastian Etxeberria eta Iñaki Manuel bergarra eta Joseba Garitaonandia

arrasatearra ibili dira auzi horretan inputatuta. "Poz-pozik gaude. Baina luzea izan da. Familieta- eta kezka handia eragin du auzi honek", adierazi dio Goienari Iñaki Manuelek.

Errekurritzea "oso arraroa"

Auzitegi Gorenaren epaia ez da behin betikoa. Hau da, erreku- rritu egin daiteke, Konstituzio- nalean, kasu horretan. Baina

inputatuen abokatuak Manueli adierazitakoaren arabera, "oso arraroa" da epaitegi goren horre- tara jotzea; beraz, uste eta espe- ro dute ez dutela errekurtsorik aurkeztuko.

"Orain, sententzia begiratu egin beharko dugu; batez ere, aurrekari izan daitekeelako aurre- ra begira presoen argazkiak era- kusteko orduan", esan du Iñaki Manuel bergararrak.

Gripearen aurkako azkeneko txertoak jarriko dituzte, azaroaren 22ra bitartean

U.M. | DEBAGOIENA

Joan den irailaren 23an txer- taketa kanpaina hasi zenetik, lagun ugari pasa dira Debagoie- neko Ospitaletik txertoa har- tzerara, bertatik esandakoaren arabera. Halaber, iragarri dute azaroaren 22ra arte luzatu dute- la txertoa hartzeko epea.

Hori horrela, adierazi gura dute 65 urtetik gorako edo arris-

ku talderen batean dauden eta oraindik txertoa jarri ez duten pertsonak (haurdunak, gaixo- tasun kronikoak dituztenak, hegazti-granjetoak langileak, osasun profesionalak eta profesio- nal soziosanitarioak) osasun zentrotik pasa daitezkeela hitzordua hartzerara. Horiei guz- tiei txertoa hartzearen garrantzi- a azpimarratu gura diete.

Mari Carmen Gallastegi | Análisi Ekonomikoan Katedraduna

"Kooperatibismoa ez dago arriskuan, baina birplanteatzea behar duela ebidentea da"

- ▶ Krisi honetatik asko ikasiko dugula dio Gallastegik
- ▶ Debagoienak baditu irteteko baliabideak, haren ustez

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Bilbon bizi arren herri-min handiko pertsona da Mari Carmen Gallastegi (Bergara, 1945): "Beti sentituko dut Bergararen falta. Haurtzarora, nerabezaroa eta gaztaroko zati bat han bizi izan nuen; erabakigarria eta ahaztezina izan zen garai hura niretako". Ibilbide eta eskarmentu handiko ekonomialaria da Gallastegi, gure ibarreko errealitatea ere ondo ezagutzen duena. Gustu handiz eta halako gai korapilatsuetan eskertzen den argitasunaz erantzun ditu gure galderak.

Hasteko, zorianak, Eusko Ikaskuntza 2013 saria jaso izanagatik. Espero al zenuen?

Inondik inora. Oso pozik jaso nuen saria, goi mailako epaimahaia da. Saria emateko orduan eman zituzten arrazoiak asko gustatu zitzaizkidan: irakaskuntza eta ikerkuntza egindako lana eta gure herriko erakundeen alde egindako lan eskuzabala. Asko poztu ninduen nitaz hori pentsatzen dutela jakiteak.

Nola harrapatu zintuen Fagor Etxetresnen porrotaren albisteak?

Euskadiko gehiengoari moduan, harrirtuta utzi ninduen. Bagenekien Fagorrek galera garrantzitsuak zituela eta ez zuela atzerrian egindako inbertsioak errentagarri egitea lortu, baina apenas egiten zen berba horren gainean. Ez zen albiste izan komunikabideetan prozesua gauzatu zen arte. Argi dut Etxetresnetako dibisio batzuk ondo funtzionatzen ari zirela, krisiak uzten zien heinean.

Zein da egiten duzun analisia?

Hiru ardatz nagusi nabarmenduko nituzke: lehenik eta behin, balio kooperatibista ez direla betiko. Hau da, belaunaldi batek bestera balio horiek transmititzeak lan handia eskatzen du eta uste dut egungo kooperatibistek ez dietela Ulgor sortu zutenen pizgarri berebererantzuten. Ez dut uste balio-sistema berbera dutenik. Bigarrenik, Fagor fabrikak leku ezberdinetan dituen

enpresa handi bat da eta hori kudeatzea ez da lan erraza. Akaso, Fagorrek egitura arinagoa eta malguagoa behar zuen erabakiak hartzen laguntzeko.

Eta azkenik, dirurik ez dagoenean bideragarritasun plan baten tematzea porrotera daraman estrategia da. Erabakiak lehenago hartu behar ziren, balio erantsi handia duen produktu bat mantentzen saiatzeko.

Ekidin zitekeela uste duzu?

Zaila zen aurreikustea krisia horren luzea izango zenik. Hala ere, uste dut Fagor Etxetresnen aurreikuspenak errealistagoak izan behar zirela eta ez zirela oinarritu behar zorrak modu kooperatiboan ordaindu behar ziren ustean. Garai zailak izaten ari dira guztiendako. Beraz, galarak urte batetik bestera errepikatzen direnean eta horren handiak direnean, ezin daiteke besteen laguntzeko esfortzuan oinarritu egoera gainditzeko.

Nola uste duzu eragingo diola porrotak Mondragon Taldeari?

Fagor Etxetresnen krisia oso gogorra ari da izaten talde guztiarendako, baina Mondragonek badu indarra, kapital fisikoa, kapital finantziarioa eta humanoa egoera zailari aurre egin eta onik ateratzeko. Ikusi besterik ez dago Laboral Kutxa hirugarren sailkatua dela, Santanderren eta BBVAren atzetik, egoera onean dauden entitate finantzarioen

"Fagor Etxetresnen aurreikuspenak errealistagoak izan behar ziren"

"Dirurik ez badago bideragarritasun plan baten tematzea ez da egokia"

artean. Horrek erakusten du lana ondo egiten ari direla, eta hori Mondragon barruan dauden beste entitate eta enpresa batzuen adibide da.

Zein ondorio azpimarratuko zenituzke?

Asko egin da berba ondorio zuzenen eta zeharkako ondorioen gainean. Bazkide kooperatibistek sufritzen dutenaz gain, hornitzaileak asko talde barrukoak eta Fagor Etxetresnekin harreman komertziala zutenak eta bertako merkaritza jarduna dago, besteak beste. Baina gogora ekarri behar dira *konfiantza* moduko termino abstraktuagoak. Kooperatibak garaiezina ziren egoeratik egungo egoerara igarotzean konfiantza pitzatu egin daiteke; hori ez gertatzeko egin behar dugu lan.

Kooperatibismoa arriskuan dago?

Ez dut uste kooperatibismoa arriskuan dagoenik, baina ebidentea da berritze edota birplanteatze bat behar duela, hiru zentzutan. Hasteko, kooperatibismoan oinarrituta dagoen egitura eta erabakiak hartzeko mekanismoak berri egin behar dira. Jarraian, jarduera ekonomiko sortzeko modelo honen balioak berri egin eta berretsi behar dira, eta, azkenik, beharrezkoa izango da balio horien heziketa sustatzea. Izan ere, kooperatiba batek ez du arrakastarik izango merkatu libre baten, kooperatibistek ez badute benetan balioetan sinesten. Ezin daitezke ahaztu hazkunde azkar batek ekartzen dituen arriskuak, ez badira enpresa kudeatzeko moduak aldatzen.

Nazioartera irtetea eta deslokalizazioa ezinbestekoak dira?

Hala uste dut. Deslokalizazioak zalantza gehiago sortzen dizkit, atzeman daitekeelako AEB moduko herrialdeek ez dutela bide horretatik bakarrik jarraituko. Adierazgarria da Tim Cook-ek, Apple enpresaren egungo buruak, azken aurkezpenean gehien nabarmendu zuen gaia izan zela produktuaren osagai guztiak AEBe-



Mari Carmen Gallastegi | JAKIUNDE

tan bertan ekoiztiak izan zirela, produktu horretan ez zegoela Korea, Txina, India edo beste herrialde batzuetako ezer ez. Kontuan hartu beharreko sinbolo bat da, tendentzietan aldaketak suposa ditzakeena. Aldaketa izaten bada, gure lehiakortasunerako baldintzak zeintzuk diren ondo identifikatu beharko ditugu. Nazioarteko egiteak, berriz, ezinbestekoa izaten jarraituko du. Gurea ekonomia txikia eta irekia da, eta gure merkataritza-balantzak superabita izan behar du, hau da, gehiago esportatu behar dugu inportatu baino.

Gatozen Debagoienara. Zein da gure egoera ekonomikoa?

Debagoiena oso une zailak ari da bizitzen. Era berean, uste dut bertako jendeak badituela baliabideak; jende langilea da, zintzoa, eta aurkituko du modua krisi honetatik indarberrituta irteteko. Bigarren sektoreaz gain-erabakigarria da, zalantza barik-, lehen

"Jasangarritasunaren ikuspuntutik begiratu behar diogu etorkizunari"

"Debagoienak jende langilea eta zintzoa du; indarberrituta irtengo da krisitik"

eta hirugarren sektoreak ere indartu behar direla deritzot. Era berean, uste dut gure ingurumenarekin bihozgabe jokatu dugula eta etorkizunari beste modu batez egin behar diogula aurre. **Zer ikasiko dugu krisi honetatik?** Ikasiko dugu gehiegizko zorpetzea, publikoa zein pribatua, oso arriskutsua dela eta etorkizunari jasangarritasunaren ikuspuntutik begiratu behar diogula. Gainera, ikasiko dugu egitura produktibo dibertsifikatua izatea komeni dela eta enpresa txikiak aliantzak bilatu beharko dituztela nazioarteko bihurtzeko. Era berean, sektore publikoak tamaina egokia izan behar du eta baita gobernu eraginkor bat ere. Noski, ustelkeriak eta zerga-iruzurrak ezin dute lekurik izan.

Krisitik irtengo garelako, edo?

Joera negatibotik irtengo gara, baina aurreikuspenek diote hazkunde-tasak oso txikiak izango direla. Langabezia tasak jaisteko ezinbestekoa da gutxienez %1,5eko edo %2ko hazkunde izatea eta horretarako denbora beharko da. Oinarri sendoak jarri behar ditugu etorkizun oparo baten bidean jartzeko.

Zerbait gaineratzerik nahi?

Bitxikeria bat. Aspaldi, banku baten itxaron-ilaran nengoela, bezero bat kreditu bat eskatzen ikusi nuen bidai bat egiteko. Langileak, harritu beharrean, arazorik ez zegoela erantzun zion. Orduan konturatu nintzen zerbait ez zihoala ondo, eta hori orokortzen bazen ordainduko genuela. Bistan da emaitza.

ZABALIK



JOSEBA GABILONDO
http://goiena.net/iritzia/

'Musikoff'

Ez dakit irratu formula, moda bat edo zer dan, baiña gaur egun, taberna gehixenetan, Eskoitzan holan da, musika bardiña entzuten da. Eta ni neu, behintzet, nahiko nazkatuta nau.

Taberna danetan musika bardiña egotiak giro monotonua ekarten dauela pentsetan jat. Tabernarixengatik ez balitz, askotan taberna bardiñien gazela esango geuke. Holan, herri bateko giro diferente eta anitzei atiak ixten jake.

Monotonia horretaz gain eta benetan arduratzen nauena entzuten dan musika mota da, *patxangeua* deitzen dotzauden hori. Ez da musikalki ez jatelako gusetan (hori baita), transmitiduten dauen mezuagatik baiño.

Melodia lau eta mami bako letradun musika horren balore eza da kezagarria. Mezu antzu eta errepikakorra Bieber, Spears eta holakuen kantuetan entzuten dana. Zer esanik ez saltzen dittuen itxura eta bizitza modeluetaz, reggeatoiarene balore matxista eta heterosexistetaz ahaztu barik. Eta ia, lehen *bakailaua* moduen ezagutzen zan musika horrek alde egitten dust, ez dakit nundik ebatu be. Azken hau, gainera, nahiko zabaltzen dabil azkenaldixen Eskoitzan.

Horretaz gain, badau beste aspektu bat arduratzen nauena, kultura. Entzuten dien melodiak nahiko urrin daz gure herriko kulturatik, horrek girua erdalduntzen dau, nire ustez. Eta Eskoitzan, kalien ibiltzen zarienak bazarie, konturatuko zitzen girua asko erdaldundu dala.

Honekin ez dot esaten altabozetatik *Maurixia, Leon eta Basilio* jo eta su egon biherko litzakenen egunero. Baiña Euskal Herrixen musika panorama zabala eta anitza daukouela ez dau dudarik. Badaukou nundik aukeratu eta nahastu. Ez daukou kanpoko musika superfizialen beharrik, ezta nahi be.

Nik gurau dot *musicon* horri *musikoff* egin eta eguakotxetan poteuen ibiltten dien trikitilarixekin edo Hankamotx bertso eskolakuekin trago batzuk hartu.

"Mami bako letradun musika horren balore eza da kezagarria"

USTEAK USTE

AMAIA TXINTXURRETA | atxintxurreta@goiena.com

Gure herriak bizirik

Bergaran, herriko merkataritza eta ostalaritza indartzeko, *Bergara bizi* izeneko ekimena jarri dute martxan. Ekimen interesgarria benetan herriko denda eta ostalariek eskaintzen duten gertuko harreman hori herritarren artean are gehiago sustatzeko. Bibi Andueza herriko merkataria batek komentatzen zidan ilusioz daudela herriaren alde lanean jarraitzeko. Guztiok jarri behar dugu gure aletxo gure herrietako komertzioek aurrera egin dezaten. Gabonak konturatu orduko iritsiko zaizkigu eta hauxe da Olentzerori eskatzen diodana: opariak egiteko orduan gure herrietako komertzioekin gogoratzeko, horrela, gure herriek bizirik jarrai dezaten.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/

PRESTIGE



Unai Busturia

HANDIK ETA HEMENDIK

Gizon feministen alde

Estitxu Eizagirre
argia.com/blogak/estitxu-eizagirre/

Maskulinitatea: eraldatu, irauli edo baztertu hitzaldia eman zuen Jokin Azpirozuri, *Zaintza partekatua*ren alde artikulua lehenik txiokatu zuten @xme64 eta @GariGaraialde-ri eta eztabaida-bazkarietako kide @mikeldi eta @larbelaitz-i, esker onez: Berdintasunaren aldeko hainbat gizonen "ez naiz feminista, gizona naizelako" azaldu dit. "Giza-aberea"-ren pareko oximorona ote "gizon feminista"?

Intsumiso definitzen genuen guk ere gure burua 90eko hamarkadan. Burutik pasa ere ez zitzaigun egin soldaduzka tokatzen ez zitzaigulako manifestazioetan edo epaiketarako kontzentrazioetan egon behar ez genuenik, garai hartan mutilen arropa berak jantzita. Gizonen osatutako bertso saioetan entzule gara, mutilen futbol taldeetako forofoak (izan) gara, zerrendetan emakumerik ez zegoen alderdi politikoak bozkatu eta defendatu ditugu, kasi emakumerik agertzen ez zuten prentsa irakurri eta erosi

dugu, gizonen historia eta sormena biltzen duten liburuekin gozatu dugu, "gizon" gora eta "gizon" behera errepikatzen duten euskal kantuek kantatu eta transmititu ditugu... ederra litzateke zintotasunez eta natural, gizonen emakumeek egindako lanaz sentitzen dutenaz mintzatzea (lan horiek gizonen ere ari dira edo emakumez soilik?).

Gizon feminista kontraesanari jarraiki, erdaldunek ezin dute euskaltzale izan? Donostiarrek ezin dute igeldoarren independentziaren aldeko izan? Hegoafrikako txurietan inor ez zen beltzen alde borrokatu? "Beste" horien askatasunak eta garapenak ez al du norberarena aberasten?

Intsumisioak, euskarak eta feminismoak batzen gaitu gizon, euskaldun eta emakume ez garenok ere.

*Oraindik ere gorputzak feminista agertzen uzten ez dietenei agian lagunduko die umore kolpe batez gogoratzeak fetu garaiko lehen asteetan emeak izan zirela (bularrean garatu gabe baina orogarriztat geratutako titiburuak lekuko). Genesia badela nahiko motibo gizon-feminista kontraesana askatzeko!

Globoak

Anjel Lertxundi Esnal
berria.info/blogak/lertxundi/

Garai batean, kazetaritzak artean ospetxo zuen aroan, albisteak ez ziren gertatzen gertatutakoaren berri ematen zuten, gertatutako zerbaiten kontakizun ziren; ondorio eta ez iturri. Orain, beren mundutxoan burua pixkatxo bat ateratzeko politikariek propaganda-gabinetek dituztenetik, soberan daude gertakariak: aski da kazetari batek euli bati begira idatzitako prentsa-ohar bat, ezer gertatu ez den lekuan albiste bat lehertarazteko, eta, albistearekin, gertakari itxurako globo bat.

[...] Sozialistek ez daukate hautagairik, ez dago garbi primariak izango dituzten ere, baina hilabeteak daramatzate, hilabeteak pasatuko dituzte berek eta hedabideek aieru hutez puztutako globo erraldoi baten inguruan. Propaganda-gabineteetako lanak aspaldi hartu zuen errealtatearen tokia: berentzat propio eraikitako errealtate-edo horretan bertan goxo eginda, politikariak nola ostri hurbilduko dira hilkorren plazara...

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendaria Iban Arantzabal
Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disseina), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Belen Azkarateri
erantzuna**Inmaculada Beristain**(Antzuolako alkatea)
Antzuola

Joan zen asteko GOIENAn idatziriko artikuluan borondate txarra egotzi zenigun Antzuolako Udaleko arduradunoi, Udalak eginiko azken hautaketa prozesuan, deialdiaren harira.

Ez naiz legearen egokitasunaz eztabaidatzen hasiko, eta nik neuk egin ditut ahaleginak, inguruko herrietako adibideei jarraiki, hautaketa prozesuaren baldintzetan herrikoa izatea sartu ahal izateko. Baina azkenean, kontsulta juridiko batean oinarrituz idazkariak hala proposatuta herrikoa izatearen baldintza ezin izan da sartu.

Antzuola guztion artean eraiki behar dugula uste dugu, eta herritarrek herrian lan egin eta parte har dezaten nahi dugu. Eta hori lortzeko lanean jarraituko dugu.

Utzi Euskal Herria
bakean!**Aitor Lizarralde**(Oñatiko Sortuko Kontseiluaren
izenean)
Oñati

Orain astebete eskas Ernaiko, Sortuko eta LABeko kideek agerraldia eskaini zuten jasaten ari diren jazarpen eta espioitza politikoa salatzen. Ernaiko kideek euren egoitza baten aurrean aurkitutako espioitza tresnak erakutsi zituzten. Jazarpen horren beste adibide bat aurreko astean Iosu Lizarralde, Kontseilu Nazionalako kide oñatiarra, jasan behar izan zuen. Astearte gauean Arrasatetik Oñatirako bidean guardia zibilek geratu eta mehatxu eta irain artean ia ordubete eduki zuten. Honen aurrean, Oñatiko Sortutik zera adierazi nahi dugu:

-Orain bi urte abiatutako garai berriaren ondotik, batzuek normalizazio politikoa lortu dela dioten arren, ekintza hauek erakusten digute oraindik asko dugula lortzeko.

-Euskal gizartearen gehiengoak apustu argia egiten du eszenario demokratikoa eraikitzeko. Oñatiko Sortuk ere bat egiten du gehiengoaren nahi honekin eta bere esku dagoen guztia egingo du momentu oro prozesuaren aldeko bere konpromisoa bururaino eramateko.

-Estatuak martxan darabilen estrategia errepresiboa gu kikiltzeko bada, jai dute. Lanean jarraitzeko konpromiso irmoa baitauek gure helburuak lortze bidean.

-Euskal Herriaren desmilitarizazioaren bidean eta gure herrian gehiengoak bat egiten duen mezu argi zein ozena zabaldu nahi dugu: utzi Euskal Herria bakean, fan hemendik!

-Azkenik, gure babesik beroena eskaini nahi diogu Oñatiko Sortuko kide den Iosuri.

Jazarpen estrategia hau bide onean goazen seinale delakoan, ez ditugu hartutako bide eta konpromisoak alde batera utziko.

Eskerrik asko!

Dorleta Sologastoa(Eskoriatzako Jose Arana egoitza)
Eskoriatza

Aurten ere Jose Arana Egoitzak lortu du Garagardo Jaia aurrera eramatea. Hau posible egiteko ezinbestekoa izan da herriko zenbait elkarteren, udaletxeko langileren, egoitzako langileren eta herritarren ekarpena. Horregatik eskertu nahi dugu egin den lan boluntarioa eta agertu den jarrera irekia eta alai.

Guztion lanaren eta esfortzuaren ondorioz, 4.000 euroko diru sarrera egin ahal izan dugu. Diru hau egoitzan aurreikusita dauden eta epe motzean hasiko diren obretan inbertituko da. Zehatzagoak

izateko, lehenengo pausoa igogailua azken solairuraino jarriko dugu, aurreko urteko eta aurtengo diru sarrerak batuta.

Beraz, bene-benetan jaso ezazue gure esker ona eta betiko adeitasuna.

Egoitzako ateak zabalik dituzue nahi duzuenarako.

Euskararen
dirulaguntzei
stop? Maite Varesi
erantzuna**Maitane Arizabaleta Astiazaran**(Jardun euskara elkartearen izenean)
Bergara

Aurreko astean zuk argitaratu zenuen artikuluari Jardun euskara elkartetik erantzun irmoa emateko beharra sentitu dugu.

Pentsatzen genuen, bizi garen garaian, zuk planteatzen dituzun ideia eta iritziak gizartearen gaindituta zeudela. Baina tamalez, ikusten dugu oraindik zu bezalako iritzia dutenekin topo egin dezakegula. Eta honek haserre eta tristura sorrarazten digu euskaraz bizi nahi dugunoi eta horren alde egunero lanean dihardugunoi.

Zure inguruan ez izan arren, euskaraz bizi den jende asko dago. Eta gazteleraz hitz egiten duen jende askoren artean euskararen aldeko jarrera duten asko ere badaude. Beraz, guk uste dugu gizartearen nahia zure errealitatetik oso urruti dagoela. Zuk gazteleraz bizitzeko borondatea antzeman duzun moduan eta lekuan, beste askok euskaraz bizitzeko nahia dugu.

Gaztelera gune eta toki guztietan egin daiteke, baina euskaldunok euskaraz bizi ahal izateko oraindik ere hutsune eta oztopo askorekin aurkitzen gara. Gaztelera berezko indar eta boterea dauka, ez dauka inoren laguntza beharrik eta euskarak, aldiz, egoera minorizatuan dagoenez, era guztietako laguntzak behar ditu,

tartean diru laguntzak ere bai.

Hala ere, euskarak behar dituen laguntza guztien artean, bereziki euskaldunon laguntza ere behar du. Hau da, euskararen aldeko jarrera izatea soilik ez da nahikoa, guztion artean erabilera sendotu behar dugu ahalik eta esparru gehienetan.

Norena da
Udalatx?**Xabi Mondragon**(Udalatx Bizirik-en izenean)
Arrasate

Zementuaren eta teknologia suntsitzailearen diktadura kontsumista honetan, ekosistema errespetatu behar dela garbi dago, nahiz eta merkatuek inposatu diguten eredu kutsakor eta aldatzaile hau biosferaren iraunkortasunean oinarritzen ez den.

Enpresa publiko-pribatu batzuen irabaziak esku pribatuetara doaz guztion den ondare naturala suntsitzen (nuklearrak, trafikoa, hilobi erradioaktiboak, errauskailuak, fracking-a, petrolio) eta betiko gure etorkizuna desorekatzen.

Kanpazar harrobian, 58 urteren ondoren, Udalatx barrutik ustiatu ahal izateko, hau da, *barne-harrobi* bat egiteko, zulaketak burutzen ari dira, eta ez nolanhako zulaketak; honek ingurugiroan dituen eraginak

ingurune-inpaktu aldetik dagoeneko izugarriak dira. Udalatx mendiaren barnean akuifero edo ur poltsetan harrobi baten eraikuntza onartuz gero, Arrasatera datozen Beneras eta Epele erreka emaritsuak lehertzeko arrisku larria izango litzateke eta Elorriara doan Kanpazar erreka ere bai (jadanik Bostiturrieta lehortu da); gainera, beste baserri askotan ur mozketak eta kalitatearen arazoak daude gaur egun eta Elorrioren eta Arrasaten ere ur-hornikuntza zuzena asko eskastu da.

Hori ez da guztia, barne-harrobiak artsenikoa bana dezake; urak toxikatuz, lurzorua ezgaituz eta atmosfera kutsatuz.

Gauzak horrela, tribunalek Kanpazar harrobiari mendia barrutik ustiatzeko lizentzia ematen badiote, Calcinor eta enpresari *lobby*-en inbertsioa amortizatu beharrak eraginda, hainbat hamarkada luzatu eta biderkatuko da eraso Udalatx zona karstikoan eta bere uretan. Horrela, gure osasuna kolpatuko du egunero, inpunitate osoz.

Jakinda, gainera, negozioia irekiz gero aurrekari bihurtuko litzatekeela suntsiketako-ustiaketa bera (lehena penintsulan) beste leku batzuetan egiteko... exijitzen dugu: Udalatx barne-harrobi bihurtzeko eta mendia barrutik dinamitatu ahal izateko ikerketa proiektua bertan behera utz dezatela eta lurraldearen antolamendu orokorrean Udalatx ingurua integralki kontserbatu eta babes dezatela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailetik.

Lurra ez da gurea, gu gara lurraren parte.

Alde hemendik!

Garazi Eriz(Aramaioko herritar talde baten
izenean)
Aramaioko

Testua izenpetzen dugunok salatu nahi dugu urriaren 14an Irati Mujikak Auzitegi Nazionalera ez aurkeztea erabaki zuenetik Aramaio polizia gorputz ezberdinekin hartua dagoela.

Herritarrok eta instituzioek hainbatetan gaitzetsi dugu indar polizialen gehiegizko presentzia eta kasu honetan bereziki justifikazio ezina deritzugu. Irati libre nahi dugulako Aramaio libre batean polizia alde egiteko gonbita egiten diegu.

Deliturik egin ez duen gazte bat bilatzea baino lan emankoragoak egongo direlakoan, espero dugu gure iritzia entzuna izatea.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Oñatiaren Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00



RPS: 228/10
Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

Udazken–neguko eskaintza

Aurpegi tratamendu programak + saioak opari

Etorri eta informa zaituz!

230 €-ko lau sari zerbitzu estetikoetan

Egindako zerbitzu estetiko bakoitzagatik, 230 €-ko lau sariren zozketan parte hartuko duzu zerbitzu estetikoetan erabiltzeko.



Eskaintza baliagarria:
2013ko abenduaren 2tik urtarrilaren 3ra

HERRIAK

ESKORIATZA

Merkataritza sustatzeko 'axtrokiak' sortuko dituzte

- ▶ Billete fisikoak egingo dituzte, herriko negozioetan erabiliko direnak
- ▶ Hasiara batean, diru laguntzen bidez jaso ahal izango dira horiek

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Axtroki merkatarien elkarteak eratu ostean, aurrera atera daitezkeen ekimenak aztertzen hasi dira Eskoriatzako merkatariek eta Udalak elkarlanean duten eztabaidagunean. Lehenengo, elkarteko kide direla irudikatu dute horren parte diren negozioek, eta bigarrenik, tokiko garapena bultzatzera bideratutako diru laguntzak aterako dituzte. Baina diru laguntza horiek badute berezitasun bat: hain justu ere, Eskoriatzarako sortuko den moneta lokalarekin emango direla: *axtroki* izena izango duten billeteen bidez. Horiek bertako negozioetan trukatuko ahal izango dira.

Beñat Herce alkateak honela azaldu ditu laguntza horiek: "Orain arte Udalak ematen zituen hobari batzuk diru laguntza bilakatzen ditugu, tokiko garapena bultzatzera joango direnak, bat gizarte garapena sustatzera bideratuta egongo dena, eta bestea garapen jasangarrira". Esandako laguntzak urriko osoko bilkuran onartu

ziren, eta orain, jendaurrean daude. Behin betiko onartu ostean, proiektu berria herrian ezagutaraziko dute, honakoa zabaldua: "Hobariak diru laguntzak izatera pasatuko direla, zein izango den moneta, nola erabili ahal izango den eta gainerako informazio guztia zabalduko dugu".

Datorren urtean hiru deialdi

Jarraian, laguntzak jaso ahal izateko deialdia egingo dute. Horren harira, alkateak jakinarazi du urtean hiru deialdi egitea aurreikusi dutela: apirilean, uztailan eta azaroan. Eta apirilean bertan ikusiko ditugu *axtrokiak* herriko komertzioetan.

Diru laguntza horietan jasotako baldintzak betetzen dituztenak aurkeztu ahal izango dira deialdi horietara. Esan bezala, bi programatan banatu dira baldintza horiek. Gizarte garapenera familia ugariak, langabeak, banatuta daudenak eta guraso bakarrak aurkeztu ahal izango dira. Hau da, zirkunstantzia pertsonalak direla-eta, Eskoriatzako



Herriko negozioak bultzatzeko asmoa du ekimenak. | MIRIAN BITERI

Udalak uste duena zerga gutxiago ordaindu behar dituela. Bestetik, auto-konposta edo auzo-konposta egiten dutenek edo ingurumenarekin errespetagarriak diren ondasunak dituztenek eskatu ahal izango dituzte; hain justu ere, praktika jasangarriak dituztenek.

Bat, bost eta hamarrek

Funtzionamenduari dagokionez ere egin du berba alkateak: "Esa-terako, familia ugari batek hobaria eskatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, eta lehen zergan edo tasan deskontua egiten bazitzaie, aurrerantzean udaletxera etorri beharko dute

eta bertan jaso baliokidetasun hori *axtrokietan*". Billete fisikoak izango dira horiek, bat, bost eta hamar *axtrokikoak*; eta *axtroki* batek euro baten baliokidetasuna izango du. Billete horrekin herriko komertzioetara joan ahal izango dira, eta erosketak egiteko erabili.

Horren bidez helburu bikoitza lortzen dela nabarmendu du Herce: "Batetik, Eskoriatzako Udalak hainbat herritar laguntzen ditu; zerga sistema progresiboa daukagu, eta gutxien daukanari gutxiago ordaindu gura horretan, bigarren helburura egiten dugu salto, non herritar horiek herriko komertzioetan berrinbertitzen

duten, merkataritza sustatuz". Azken horren harira, alkateak aipatu du merkatariek "oso positiboki" baloratu dutela ekimena, honakoa esanda: "Udalarendako garrantzitsua da kontura daitezela euren batuta askoz gehiago egin daitezkeela. Ideia Udaletik irten da eta proposatu diegu bakoitzak dituen promozio horietan ere moneta lokala erabili ahal izatea, beraiek sustatuz moneta horren fluxua herri osoan; hain justu ere, eskoriatzarrek Eskoriatzaren erostea".

Eskoriatzar guztiei zabaldu

Adibide bat eman du azken hori azaltzeko: ile-apaindegiak izan dezake promozioa lau aldiz ilea mozteagatik bosgarrena debalde irtetzen dela. Ekimen berriarekin, bosgarren aldi hori *axtrokiengatik* aldatu daiteke, eta herriko edozein komertzioetan erabiltzeko aukera izatea. Alkateak honakoa azpimarratu du: "Denok denondako lan egite hori ona da. Gainera, komertzio bakoitzaren promozioetan *axtrokiak* sartuz, eskoriatzar guztiendako zabaltea lortuko dugu".

Zergetan hobariak

Bestalde, merkataritza sustatzeko ahalegin horretan, urriko osoko bilkuran hasiera batean onartutako datorren urteko ordenantza fiskaletan herriko negozio berriak zabalteko asmoa duteneko hobariak aurreikusi dituzte. Udalak gura du komertzioen eskaintza ahalik eta zabalena izatea, eta, hortaz, gaur egun existitzen ez diren negozioak laguntzea erabaki du; baita langabezia daudenak eta negozio berria sortzeko asmoa dutenei.

ESANAK

"Hobariak diru laguntza izatera pasatuko dira"

BEÑAT HERCE | ESKORIATZAKO ALKATEA

"Denok denondako lan egite hori ona da"

DATUA

25

NEGOZIO

Axtroki merkatariek elkarteko kide dira gaur egun herriko 25 komertzio inguru.

URRIAK BADU IRABAZLEA!

'Asmatu Baietz!' lehiaketan Mikel Unzurrunzaga oñatiarra izan da irabazlea.

GOIENA TELEBISTA | ASMATU BAIETZ! | GAZTETXOENTZAKO JOKO LEHIAKETA

EGUAZTENETAN, 19:40AN | AMAIA TXINTXURRETAK AURKEZTUA

PARTE HARTU

ZUZENEAN: 943 25 05 03

LAGUNTZAILEA: JAIXAK. BERGARA.



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Sevillako presoendako "bizitza duina" eskatu dute

Gose greban dauden Txus Goikoetxea eta beste 12ak bisitatzeko autobusa antolatu dute gaurko

J.B. | ARRASATE

Sevilla II espetxean dauden euskal presoek, Txus Goikoetxea arrasatearra barne, urriaren 28an hasi zuten gose greba, jasandako erasoak salatu eta "bizi-baldintza duinak" eskatzeko. Sevilla II espetxean jasaten ari diren eskubide urraketan zerrenda "luzea" dela salatu zuen Amaia Larrañaga Bilduko zinegotziak martitzenean Kulturaten egindako agerraldian: "Osasun eskubidea urratua, aktibitateak egiteko eskubiderik eza, isolamendua ziegan ordu kopuru luzeak egonaz, miaketa etengabeak, jipoiak, eskuburdinekin ohera lotzera behartuak...". Era berean, Goikoetxearen bikotekide Onin-

tza Lopez de Munainekin egonginen agerraldiaren ostean: "Txus ondo dago. Pisu asko galdu du, baina burua oso ondo dauka. Borrokan irmo jarraitzeko borondatez dago".

Espetxe politikaren aurka egiteko "instituzioen zein herri-tarren aktibazioa beharrezkoa" dela esan zuten martitzenean; manifestazio deitu dute gaurko, Seber Altubetik (19:00). Era berean, gaur irtengo da autobusa Sevillako espetxera; izena eman behar da Irati tabernan.

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Martitzenean Kulturaten egin zuten agerraldia. | JOKIN BEREZIARTUA



Laster hasiko dira unibertsitate inguruan aparkalekuak margotu eta txartelak eskuratzeko makinak jartzen. | EÑAUT ABARRATEGI

Autoen "zentsuzko erabilpena" bultzatzeko jarriko dute TAO

Abenduaren 2an hasiko da hilabeteko probaldia, herritarrak ohi daitezen

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Helburua ez da dirua biltzea, horregatik dira tarifak horren merkeak. Helburua da ibilgailu partikularren erabilera ahalik eta modu jasangarrienean egitea. Autoen zentsuzko erabilpena bultzatu gura dugu". Hitz horiekin definitu du TAO sistemaren ezarpena Omer Arregik, Hirigintza zinegotziak. Abenduaren 2an jarriko dute martxan unibertsitate inguruan -Uribarri-Loramendi gunea-, hilabeteko probaldian, jendea zerbitzu berriaren

funtzionamendura ohi dadin. Beraz, ofizialki 2014ko urtarrilaren 2an jarriko dute martxan. Udalak jarraipen zorrotza egingo dio lehen sei hilabeteetan, herritarren ekarpenak jaso eta zuzendu beharrekoak zuzentzeko.

Arregiren arabera, asmoa da alde zaharrean ere jartzea TAO sistema: "Lehen ezarpen honek emango digu emaitza batzuen berri, eta, zerbait zuzendu behar gero balitz, kontuan izango genuke gero alde zaharrera ekartzeko".

TAO jartzeko egindako neurketek hainbat datu esanguratsu utzi dituzte: ezarriko den gunean 1.008 ibilgailu daude zirkulaziozerga ordaindu dutenak, 500 aparkaleku daude lur gainean -horietatik 237 pribatuak dira- eta 945 lur azpian. Aste barruan, unibertsitateak goizetan -13:00ak arte- 300 ibilgailu erakartzen ditu, batez beste; arratsaldeetan, berriz, 200. Beraz, aste barruan 500 ibilgailu etortzen dira. Gertek enpresak kudeatuko du zerbitzua. Laster, eguraldiaren arabera, sistema berrira egokitzeko lanak egingo dituzte, baita ikuskaritza lanak ere. Hau da, isunak eurek jarriko dituzte, ez udaltzainek.

DATUA

500

IBILGAILU DATOZ EGUNERO

Batez beste 500 ibilgailu etortzen dira aste barruan unibertsitateak erakarrita. 300 goizetan eta 200 bat arratsaldeetan.

Egoiliarrentzat txartela, BAZen

Egoiliarrek BAZera jo beharko dute txartela eskuratzeko. Hiru txartel mota atera dituzte: egoiliar txartel konbentzionala eta merkatarientzako bi txartel mota. Egoiliar batzuk hasi dira txartela eskatzen eta oraindik eskatu ez dutenendako Udalak gomen datu du BAZera jo aurretik deitzeko, eraman beharreko dokumentazioaren berri jasotzeko.

Informazio gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



MUNDU OSOA ZURE AUTOAN

www.citroen.es

CITROËN nahiago du TOTAL
Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 isurtzea (g/km):
CITROËN GRAND C4 PICASSO: 4,0-6,1/104-142

- Stop&Start eHDI motorrak
- Abiaduraren erreguladore aktiboa
- Ukipenezko tableta integratua
- SmartBeam argi adimendunak
- 360°-ko ikuspen kamara
- Aparkatzeko laguntza-sistema

CITROËN GRAND C4 PICASSO BERRIA. TECHNOSPACÉ-A

Espanian fabrikatua



Citroën Grand C4 Picasso berriak C4 Picasso autoaren aukerak zabaltzen ditu: espazioa infinitu bihurtzen duten 7 eserleku eta etorkizunera hurbiltzen gaituen bidaia. Azken teknologiez osatua: haizetako panoramikoa, Stop&Start eHDI motorrak, aparkatzeko laguntza-sistema, ukipen-tableta integratua, nahi gabeko bide aldaketarako alerta sistema eta abiaduraren erreguladore aktiboa, beste ekipamendu batzuen artean. Grand C4 Picasso berria mundu oso bat bertan gordetzeko auto perfektua da. Unibertsioan bidaia zorientatua izan.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



Etor zaitze ikustera:
Debagoieneko CITROËN Kontzesionario Ofiziala:
TALLERES CHAPIME, San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

'Arrasateko iragana astintzen' hitzaldi sorta hilaren 19an hasiko da

Arrasateko Zientzia Elkarteak Udalarekin elkarlanean antolatuta, *Arrasateko iragana astintzen* izeneko hitzaldi zikloaren bigarren edizioa hasiko da datorren astean. Lehen saioa datorren martitzenean izango da, hilak 19, Kulturaten. *Historiaurreko klimaren eta paisaiaren bilakaera* izenburu duen hitzaldia egingo du Maria Jose Iriarte historialariak, 19:00etan hasita. Gainerako hiru saioetan ere historialariak izango dira protagonista. Bigarrena azaroaren 26an izango da, hirugarrena abenduaren 10ean eta laugarrena, azkenik, abenduaren 17an. Lehen edizioak arrakasta handia izan zuen.

Afari batekin hasiko dute Zahar-Berrikoek ikasturte berria gaur

Ikasturteari hasiera emateko afaria egingo dute gaur Zahar-Berriko lagunek. Monte tabernan elkartuko dira 20:00etan eta gero AEDren egoitzan afalduko dute; aurreratu dutenez, hainbat sorpresa izango dira. Era berean, mintzapraktika ekimenak osasuntsu daudela diote: "Pozgarria da ikustea nola egiten duten aurrera mintzapraktika bultzatzea helburu duten proiektuek. Aztiker enpresaren arabera, Euskal Herrian indarra hartzen ari da mintzapraktika ekimena". Parte hartzeko edo edozein zalantza argitzeko honako bi telefono zenbakiak eman dituzte: 943 77 12 28 eta 695 786 852.

Seber Altubek baserritarren azken azoka hartuko du bihar

Egutegi kontuengatik abenduan azoka beharrean Santamas feria izango da

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Bihar hileko hirugarren zapatua denez, baserritarrek Seber Altube plaza sasoiko produktuz beteko dute. Arrasateko lau baserri, bailarako beste hiru eta beste eskualde batzuetako lau baserri egongo dira, eta azken azoka horretan bost izango dira postu bereziak. Udaleko Enplegu eta Garapen Saileko teknikari Marga Garmendiak aurreratu duenez, "uda garaiko azken produktuez gain, udazkenekoak izango dira protagonista". Zerrenda luzea aipatu du Garmendiak: "Porruak, patatak, eskarolak...". Horiez gainera, udazken garaiarekin lotzen ditugun "gazta, odoloste, intxaurreta eta perretxiokoak" ere ez dira faltako.

Aurreko azoketan bezala, zenbait postu bereziak izango dira: Harreman erakundearen bidezko merkataritza postua,



Azokako postu bat. | GOIENA

ukendu eta sendabelarren postua, baserriko makineria salmentarako postua, herriko artisau batek egindako sukaldako tresneria postua eta sasoiko produktuz egindako pintxoak dastatzeko postua. Bada, Jesus Romerok

Berrerabilpenaren elkartruke azoka

Elkartruke azokaren beste edizio bat izango dugu bihar Arrasateko Azoka plazan. Ohiko truke azokaz gain, arroparen berrerabilpena hartuko dute oinarri oraingoan: "Ekarri etxean dituzun guraizeak, orratzak, hariak, botoiak eta bestelakoak... eta imajinazio pixka bat!", adierazi dute. Adin guztiendako tailer hori 11:00etatik 13:00etara egingo dute; 10 urtetik beherako haurrak lagunduta joatea gomendatu dute.

jarriko duen postu horretan, zapore bereziak ezagutzeaz gain errezetak etxera eramateko aukera ere egongo da.

Urteko azken azoka horretan ez da sorpresa berezirik egongo, baina, sasoiko produktuek erakarritza, jende asko gerturatuko da Seber Altubera. Ohi bezala, gainera, azokan erosten duten guztien artean, sasoiko produktuz osatutako otarre bat zozkatuko dute.

Sehaska ikastolaren postua

"Zuberotik ahate gutuziak ekartzen dituen pertsonak Iparraldeko Sehaska ikastolari laguntzeko bigarren postutxo bat jarriko du", aipatu du Garmendiak. Postuko saltzailea ikastolako aita bat denez, aukera aprobetxatu egingo du.

Hausnarketarako unea

Azken azoka horren ostean, urtero egiten duten moduan, hausnarketa eta balantzea egiteko unea iritsiko da. "Urtero egin ohi dugu, eta, bertatik, oso kritika eraikitzaileak irtetzen dira", dio Garmendiak. Balantze horren aurretik, baina, azken azoka horretan egongo den eskaintza zabalaz gozatzeko garaia da.

Musikak aste bukaerako bi egunak animatuko ditu

I.G. | ARRASATE

Asteburu musikak izango dugu. Bihar, Arrasate Musikaleko harizko hiru taldek doako saioak emango dituzte, kaleetan. Azaro Musikala ekimenaren barruan, 18:00etatik 20:00etara Amaia Garrok, Eli Auzmendik eta Amaia Artzamendik zuzendutako taldeek giroa jarriko diote zapatu arratsaldeari.

Domekan, aldiz, Santa Zezilia musikariaren zaindarien omenez, hirugarren urtez Arrasate Musikaleko bandak kontzertua eskainiko du Herriko Plazan, 12:30ean. Ordubete lehenago, gainera, bandak kalejira egingo du erdiguneko kaleetan. Antolatzaileek azaldu dutenez, "eguraldi txarra eginez gero, kontzertua San Frantzisko parrokiaren izango da".

Bihar hasiko da Zaldibarko 52. areto futbol txapelketa

S.C./I.G. | ARRASATE

Urte asko egin behar dira atzera Zaldibarko areto futbol txapelketako lehenengo golak noiz sartu ziren jakiteko, baina aurtengoz gozatzeko gutxi falta da, denboraldia bihar hasiko da-eta.

Aurreko urteko talde kopuru bera biltzea lortu dute antolatzaileek. Guztira, 13 talde izango dira; lau taldek huts egin duten arren, antolatzaileek berriak erakartzea lortu dute eta txapelketak aurrera egingo du.

Txapelketaren ezaugarriak

Txapelketaren formatua aurreko urteko bera izango da: lehenengo fasean, guztiek elkarren kontra jokatuko dute, eta, azkenengo sailkapenaren arabera, bi talde osatuko dira. Bigarren fasea, lehenengo fasean lortu zuten postuaren arabera, puntuazio batekin hasiko dute. Puntuaren arabera, talde bakoitzeko lehe-

I. JARDUNALDIA

PARTIDUAK

AZAROAK 16, ZAPATUA

10:30 Abokajarro - Betrayar

Sonografos

11:30 Fidel & sus discipulos - Sonografos

Abokajarro

12:30 Aldatz - Jibaros F.C.

Fidel & sus discipulos

AZAROAK 17, DOMEKA

10:30 Sport in tus Bragas - Haizea's weah

Lasagabaster

11:30 Lasagabaster - Ostantz

Haizea's weah

12:30 Dribling - Carboneros F.C.

Ostantz

Atsedena: Iluntz

nengo laurak sailkatuko dira. Ondoren, final-zortzirenak jokatuko dituzte. Partidu zuzenak izango dira hortik aurrera, finalera ailegatu arte.

Udaltzainek hiru lagun atxilotu zituzten egun eta domeka bitartean

Atxilotuta horietako bi kasutan, arrazoia izan da gidatzeko baimenduta dagoen odoleko alkohol maila maximoa laukoiztu egin zuela batek eta boskoiztu besteak. Hirugarren atxilotuaren kasuan, berriz, identifikatu zutenean, udaltzainek egiaztatu zuten aurrez bera atxilotzeko agindua zegoela, baserrietan lapurretan ibiltzea egotzita.



Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

IBAI-ARTEK AURKEZTEN DU...

AZARO MUSIKALA



Noiz: Azaroak 9, 16, 23, 30

Ordua: 18:00 - 20:00

Tokia: Arrasateko kaleetan zehar

Merkatari eta ostalariek 'Bergara bizi' eguna egingo dute bihar

Ekitaldiz betetako eguna prestatu dute, Udalaren laguntzarekin, kale-giroa sortzeko gai direla erakusteko

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Hainbat hilabetez herriko komertzioa bultzatzeko lanean ibili eta gero, bertako merkatarik eta ostalariek, Udalaren laguntzarekin, ekitaldiz betetako eguna antolatu dute biharko, azaroak 16, *Bergara bizi* izenarekin. Helburu argia du ekimenak: herritarrei erakustea herriko komertzioek eta ostalariek ematen dieten zerbitzua eta kale-giroa sortzeko duten gaitasuna. Azken baten, garbi dute egitasmoaren bultzatzaileek erosketak egiteko ez dagoela zertan kanpora joan, Asier Latorrek -Izotz dendakoa- azaldu duen moduan: "Azken urteetan erosketak egitera hirietara zein merkataritza-guneetara joateko joera egon da, baina herrian bertan gune komertzial handi bat dugu, ez dugu zertan Bergaratik irten". Eta horixe frogatuko dute biharko *Bergara bizi* egunean.

Indarrak batu dituzte

53 merkatarik eta zenbait ostalarik egin dute bat, herriko denda eta tabernen indarra eta beharra aldarrikatzeko. Hain zuzen ere, komertzioak identifikatze aldera, globo urdinak jarri dituzte ate aurretan, azken asteetan herriko zenbait gunetan ikusi ahal izan diren aulki eta globoen kanpainari jarraipena emateko. Gainera, komertzioetan, bihar egingo den zozketarako txartelak



Ekimenaren bultzatzaileetako asko Irizar etxean euren ikurra, globo urdina, eskuan dutela. | GOIENA

banatu dituzte astean barrena, eta baita bihar egingo den bingoan parte hartzeko kartoiak ere.

Egun osoko jai

Egun osoan zabalik egongo dira bihar, *Bergara bizi* eguna, dendak 10:00etatik 20:30era, eta deskontu bereziak egingo dituzte. Gainera, giroa alaitzeko zenbait ekitaldi ere antolatu dituzte. 12:30etik 14:00etara herriko kaleetan barrena ibiliko da Musika Eskolako

Gazte Banda. Arratsaldean, berriz, elektrotxarngaren txanda izango da: 17:30etik 20:30era, herrian barrena ibiliko da txaranga, baina, oinez barik, furgonetan.

Horrez guztiaz gain, ekimenean parte hartzen duten tabernariak pintxo-potea egingo dute bihar eta horrekin batera, 20:30etik 21:30era bitartean, *Bergara bizi* pintxoak banatuko dituzte San Martin plazan -Muniben eguraldi txarrarekin.

Bingoa, zozketa eta sariak

Esandako ekintza guztiez gain, zozketa eta bingoa ere egingo dira bihar San Martin plazan 21:00etan hasita. Asteon herriko komertzioetan kontsumitu duten herritarrek jasotako txarteekin zein kartoiarekin egingo dira zozketa eta bingoa eta sariak erosketa baleak izango dira. Horren harira, antolatzaileek argi laga nahi izan dute zozketaren momentuan San Martin pla-

'BERGARA BIZI' EGITARAUA

10:00-20:30 Dendak irekita egun osoan eta deskontu bereziak.

12:30-14:00 Musika Eskolako Gazte Banda herriko kaleetan.

17:30-20:30 Elektrotxaranga. Furgonetan mugituko da herrian barrena.

20:30-21:30 Tabernarien *Bergara bizi* pintxoak San Martin plazan.

21:00 Bingoa eta zozketa.

21:00-22:30 Eloy-Josu disko jartzailea.

zan bertan egon beharko dela. Eguraldi txarra eginez gero, Muni-be plazan egingo dituzte lunch-a eta bingoa ere. Biak ala biak Amaia Osak gidatuko ditu. Jai egunari amaiera emateko, Eloy eta Josu disko jartzaileen musikarekin dantza egiteko aukera ere egingo da.

Hilabetetako lanaren emaitza

Bergara bizi zapatuko jai hila-beteetan zehar egindako lanaren isla izango da. Uda aurretik lanean dihardute Udalak eta herriko merkatariek, eta aurrerantzean ekintzak antolatzen jarraituko dutela adierazi dute, "herria bizirik mantentzeko berebiziko garrantzia dutelako komertzioek zein tabernekin". Latorrek esandako moduan: "Bizitza osoa darabagu herrian eta gauza asko ditugu eskaintzeko". Orain, herritarrek erantzuteko unea da.

Gabonetako apaingarriak egiteko tailerra deitu dute

M.B. | BERGARA

Iaz bezala, aurten ere Udalak Gabonetan herriko kaleetan jarriko diren apaingarriak egiteko tailerrak antolatu ditu haurrendako. Apaingarriak egiteko material berrerabilgarriak erabiliko dira: CDak, latak, kortxoak, plas-

tikozko ur botila handi eta txikiak eta plastikozko edalontziak, hain justu ere.

Herriko ikastetxeek lagunduko dute material bilketan, baina tailerretara doazen umeek ere eraman ditzakete etxetik material berrerabilgarriak tailerrera egunean bertan.

Hilaren 15ean, lehenengoa

Tailerrak asteon hasiko dira; gaur, egubakoitza, hilak 15, izango da lehenengoa eta bigarrena hilaren 22an egingo da, 17:00etatik 19:30era. Lekuari dagokionez, antolatzaileen esanetan Seminarioko karpan egingo dira tailerrak. Udalak egokituko ditu han masai eta aulkiak parte-hartzaileendako.

Udaletik azpimarratu dutenez, adin guztietarako tailerrak dira, eta, besteak beste, CDekin eta ur botila handiekin izarrak egingo dituzte eta edalontziekin, berriz, lorontziak.

Uretako jolasak ume eta gurasoentzat Agorrosinen

M.B. | BERGARA

Udaleko Kirol Zerbitzuak uretako jolasak antolatu ditu domekarako, hilak 17, eta abenduaren 15erako. Hala, 17:00etatik 19:00etara, abonatu egon zein eguneko sarrera erosita, aukera egingo da bi begiralek dinamizatuko dituzten uretako jolasetan parte hartzeko. Gainera, puzgarri handia eta kirol-materiala aterako dituzte.

Igerileku handiaren erdietako baten txirrista puzgarria jarriko dute 8 urtetik gorakoen dako. Beste erdian, begirale batek jolasak proposatuko ditu. Igerileku txikian, berriz, 8 urtetik beherakoentzako txoko bi egingo dira: bata, gurasoekin doazen haurtxoentzako eta bestea, 8 urtetik beherako umeentzako jolasak.

Kirol Kontseiluaren bilera

Kirol Kontseiluak laugarren batzarra egingo du hilaren 20an,



Umeak uretan jolasean. | GOIENA

19:00etan, Agorrosingo ikus-entzunezkoen aretoan, eta sustatzaileek gogora ekarri dute irekia dela. Besteak beste, jarduera fisikoa sustatzeko martxan jarritako ekimenean gainera egingo dute berba, eta baita 2014rako programaren gainera ere.

OHARRAK

GAZTAINA-ERRE EGUNA

Gaur, egubakoitza, ospatuko dute San Martin Agirre herri eskolan urteroko gatzaina-erre eguna. 15:45ean batuko dira jolatokian gatzainak jan eta abesteko. Senitartekoei ere egiten diete dei 16:30erako.

KEPA ACERO OSINTXUN

Aurreko astean arazo teknikoengatik atzeratu zuten Kepa Aceroren 5 *olatu*, 5 *kontinente* hitzaldia gaur, barikua, izango da, 19:30ean, Osintxuko ludotekan.

1970EKOEN BAZKARIA

Etxagi jatetxean egingo dute, azaroaren 23an. Ariznoa tabernan batuko dira, 13:00etan. Izen-ematea Sugoi dendan, 943 76 59 54 telefono zenbakian.

1935EKOEN BAZKARIA

Abenduaren 1ean egingo dute urteroko bazkaria. 14:30ean izango da, Azpeitxin. Izena emateko 12 euro aurreratu behar dira Laboral Kutxan, hilaren 16a aurretik.

disdira

ile-apaindegia edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Orkestrak eta Musika Eskolak Santa Zezilia ospatuko dute

I.G. | BERGARA

Orkestra Sinfonikoaren emanaldia Mariaren Lagundiko elizan izango da, arratsaldeko zortzietan. Bada, orkestra nagusi izango den arren, metal taldeak, oboe hirukoteak eta klarinete bikoteak euren zati propioa izango dute. Saioan, baina, Tchaikovsky eta Bach konpositore ezagunen lanak jotzeaz gain, *San Martzialgo maitasun kanta* eta *Iparragireren zortzikoa* lanak ere eskainiko dituzte.



Orkestraren emanaldi bat. | GOIENA

Musika eskolak egunean

Bergarako Musika Eskolak, berriz, datorren egunean ospatuko du Santa Zezilia eguna. Azaroaren 21ean musika eskolako ikasleak kalera irtengo dira: 17:30ean, Gazte Banda, trikitilariak, txistulariak eta

haurrak kalejiran irtengo dira eskolatik bertatik. Horren ondoren, Irala kalean ekitaldi txiki bat egingo dute, eta 18:30ean, egun berezia borobiltzeko, San Martin Plazan txokolatea banatuko dute.

'Biolin magikoa' antzerkiaren akordeek etxeko txikiak liluratuko dituzte domeka arratsaldean

Basilio Durpin eta Igor Ivanovich Petronov lapurrak munduan eta historian zehar ibiliko dira altxor preziatuenaren atzetik: Burbon konderrriaren biolin magikoa. Biolina eskuratzeko bidean, musikaz gain, magiak eta dantzak ere tartetxo izango dute. Oholtza gainera lapurrek gonbidatuak izango dituzte, besteak beste, Mozart, Sarasate eta Errumaniatik etorritako ijitoak. 6 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek 4 euroren truke ez dute asperzeko astirik izango Zabalotegin domekan, 18:00etan.



MIZPIRUALDE ZAHARRREN EGOITZA

Teo Ortuzarrek 103 urte

Zapatuan, azaroaren 9an, bete zituen. Senideek eta Mizpirualde egoitzako langile eta egoiliarrek zoriondu zuten. Baita udal ordezkari moduan joandako Jabi Bengoak ere. Ortuzarrek egun hartan jaso zituen oparien artean, udal ordezkariak berak eroandako lore sorta eder bat ere jaso zuen.

Udalak hitzarmena sinatu du Ubera auzoan etxebizitzak egiteko

Hasita dauden lan horiek auzora gas naturala eramateko aukera emango dute

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Ubera auzoan 18 etxebizitza eraikitzea aurreikusita dauka Bergarako Udalak: sei etxebizitza familiabakarreko, sei etxebizitza tasatu eta babes ofizialeko sei etxebizitza; azken horietarako, baina, ez dago data zehatzik.

Udalak San Paulo Taldea SL enpresarekin sinatutako hitzarmenari esker, Ubera auzoan sei etxebizitza familiabakarreko eraikiko dira; orube berean, gainera, etxebizitza tasatuak eta base ofizialekoak eraikitzeke tokia lagako da.

Etxebizitzak eraikitzeke bi urbanizazio fase izango dira, lehen fasean lau etxebizitzari dagokien urbanizazioa egingo dute eta ondoren, bigarrenetan, gainontzekoei dagokiena egingo dute. Lan horiekin, gainera, lursail osoa urbanizatzea aurreikusten



Etxebizitzak auzoa eta eliza arteko lursailean eraikiko dituzte. | IMANOL GALLEGO

denez, auzoak azpiegiturak hobetzeko aukera izango du.

Azpiegitura hobek

Bada, auzoa biziberritzeaz gainera, zerbitzu berriak ere izango

ditu. Jaione Isazelaia alkateak hauxe adierazi du: "Landa eremu hau hobeto hornituko dugu". Auzoko lanek, gainera, Uberara gas naturala eramateko aukera emango dute.

Aldundiaren dirua banatzeko modua salatu du PSE-EEk

I.G. | BERGARA

Aldundiak, bere eskumenen barruan, 18 milioi gehiago kudeatuko ditu aurrekontuetan enplegua eta ekonomia sustatzeko; horietatik sei milioi udal inbertsioetara bideratuko dira, eta, Bergarako PSE-EEren ustez, "dirua ez da modu egokian banatuko".

Mari Carmen Barrenetxea zinegotzi sozialistak prentsa ohar bidez adierazi duenez, "banaketa guztiz neurrigabea da, herri txikien alde eginez eta herri handiagoekin, biztanleria eta karga handiagoekin, gutxietsiz". Oinarritzko Toki Araubidearen legeak azaltzen duenez, "herri handienak gizarte zerbitzuak eskaintzera behartuta daude, eta horrek gastu publikoa areagotzen du".

Barrenetxearen ustez, "Bilduk eta jeltzaleek berdintasun eta proportzionaltasun irizpideekin jokatzeko beste aukera bat galdu dute berriro".



Koruak otsailean ekin zien lehen entseguei. | GOIENA

Donostian eskainiko du koru parrokiarak Bergaratik kanpoko lehen kontzertua

I.G. | BERGARA

Otsailean ekin zion Bergarako koru parrokiarak ibilbideari, eta hilabete gutxitan Donostiako San Vicente parrokian abesteko gonbita jaso dute. "Felix Garitano parrokoa Bergarako da eta hark egin zigun proposamena", dio Pedro Garitano koruko kideak. Koruko 60 kideak joango dira domekan Donostia-ra, eta, urduri baino gehiago,

irrikaz daude: "Bergarako koruek ospe handia izan dute beti eta domekan maila hori mantendu nahi dugu".

Meza eta kontzertua

12:00etan, meza nagusian, Perosi, Gonzalez Bastida, Aita Madina eta Eslava konpositoreen lanak abestuko dituzte, eta gero, kontzertu txiki bat ere eskainiko dute.

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Eteo eraikina izango dena definitzen hasiko dira

Lankidetza izango da oinarria eta 'Sormenari helduz sortzera eltzia' leloa

T.M./O.E. | OÑATI

Eteo eraikinaren izaera eta edukia definitu gura du Udalak eta proiektu horretan ari da Bagarerekin elkarlanean. Herriko kultur eragileekin eta hainbat norbanakorekin egonda eta euren behar eta iritziak jakinda, espazioaren erradiografia faseari ekingo diote. Hau da, informazioa bildu, administrazioek ematen dituzten diru laguntzak ikusi, herriko taldeen artean dauden sareak aztertu eta herritarrekin berba egin.

Lankidetza egiturak

Herriko eragileek elkarren berri jakitea eta elkarri entzun eta ikustea ere garrantzitsua dela uste dute Udalak eta Bagarak, eta horregatik, Eteo eraikinaren proiektua lankidetzan oinarritzea beharrezkoa jotzen dute. "Denok ez dakigu dena, bakoitzaren eza-gutza konpartitu behar dugu eta lankidetza egiturak sortu behar ditugu", adierazi du Johana Olabarriak, Bagarako kideak eta proiektuaren koordinatzaileak. "Proiektuaren leloa eta irudia, esaterako, Oñatiko Bertso Eskolako lagunekin eta Arte Ederrak ikasitako herritar batzuen artean sortu da, lankidetzan".

Lankidetza da, hain zuzen, Eteoko espazioa antolatzeke egingo den lanaren oinarria. "Proiektu sostengarria izan behar du, bai ekonomikoki eta bai lanean ibiliko diren lagunei begira, ito-

TALDEKAKO LAN SAIOAK

AZAROAK 19
Kultur eragileak.
Eteo eraikinean.

AZAROAK 20
Gizartekintza eragileak.
Eteo eraikinean.

AZAROAK 22
Udal teknikariak eta zerbitzuetako langileak.
Udaletxean.

AZAROAK 26
Irudi, diseinu eta ikus-entzunezkoen alorrekoak.
Eteo eraikinean.

AZAROAK 27
Sortzaileak.
Eteo eraikinean.

ABENDUAK 4
Saio irekia herritar, eragile zein auzokideei zuzendua.
Eteo eraikinean.

ORDUA
Saio guztiak 19:00etan dira.

garria ez izateko, eta lankidetzan egingo da ahal den guztia", aurreratu du Olabarriak. Horri lotuta, baina, eraikinean obra edo konponketa batzuk egitea ez dute baztertzuten. "Herriko kultur eragileen artean badira musika talde asko, orain arte Errekalden



Proiektuaren leloa eta logoa. | BAGARA

entseatu dutenak. Horiek Eteora ekartzea da asmoa, hango baldintzak ez direlako onak. Horrek ekarriko du, adibidez, intsonorizazio lan batzuk egin beharra", adierazi du Nerea Zubia kultura zinegotziak. "Dena dela, egingo diren inbertsioak izango dira osotasunari begira egindakoak", zehaztu du Johana Olabarriak.

Proiektu bizia

"Orain arte egindako elkarrizketetan ikusi dugu espazio baten beharra dagoela esatean ados daudela eragileak eta horixe definituko dugu orain, denon artean", dio Bagarako kideak. Eta horretarako bilerak egingo dituzte datozen asteetan. "Dena dela, proiektu bizia izango da, ez du amaiera eperik, abian jarriko dugu orain baina berak hartuko du bere martxa eta osatzen joango da", dio Nerea Zubiak.

Horrekin batera, Eteo eraikinaren osasuna aztertzen ere jarraituko dute teknikariak: segurtasun neurriak, su sistema eta teilatuaren goera aztertzen, esate baterako.



Josu Zubia musikari oñatiarra. | JOSU ZUBIA

Gaur gauean aurkeztuko du lehen diskoa Josu Zubiak

O.E. | OÑATI

Argitzal du izena Josu Zubia musikari oñatiarraren lehen diskoak eta gaur, egubakoitza, aurkeztuko du jendaurrean. Gaztelekuan izango da, 22:30ean. Bakarrik barik, taldearekin egongo da, gainera, Zubia.

Hamar kantu

Josu Zubiaren lehen lanak hamar kantu ditu. "Oso barruko diskoa da, oso gauza pertsonalak kontatzen ditu; ez bakarrik nireak, ingurukoak ere bai. Sekula azaleratu gura izan ez ditudan hainbat sentimendu dauden bertan, ezkutuan, baina bertan", azaldu du Zubiak.

Ekainean hasi zen diskoa grabatzen, AME estudioan, eta estudioko lehen esperientzia gogorra egin zaio gazte oñatiarrari: "Abesti guztiak klaketera moldatu behar izan nituen

eta hori izan zen gehien desmotibatu ninduen. Gainera, kantu guztiak bi aldiz grabatu behar izan nituen, soinu konuengatik. Horrez gain, Axular teknikariaren eta nire egutegiaren arazoengatik luzatu egin zen estudioko lana".

Lagun askoren ondoan

Orain arte bakarrik ibili bada ere, aurkezpenean, proiektuan parte hartu duten hainbat lagun izango ditu ondoan: "Izar Biainek akordeoia grabatu du, Ander Etxanizek baxua eta gitarra batzuk eta Naroa Zumaldek ahotsa grabatu du. Eta Ganbara abesbatzak bi kantutan hartu du parte", azaldu du.

Josu Zubiaren emanaldiaz gain, Lorea Intxaurrendia oreretarrak ere egingo du kontzertua. Bi emanaldiak doan izango dira.

Antzerkia, musika eta eskulanak domeka arratsaldean gaztelekuan

DJ Ebil-ek lehen emanaldia egingo du; Pupu eta Lore ere etorriko dira

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Antzerkia, zuzeneko musika eta eskulan tailerra egingo dituzte, besteak beste, asteburu honetan gaztelekuan. Musikari dagokionez, esaterako, DJ Ebil-ek lehen emanaldia egingo du gaztelekuan domeka honetan.

Iban Idigoras gazte oñatiarra da DJ Ebil. Musikari lotutako hainbat proiektutan ibili izan da Idigoras eta orain, DJ moduan ikusi eta entzun ahal izango dugu. Domekan izango da, 18:00etatik 21:00etara, Topagunean.

Pupu eta Lore

Antzerkiari dagokionez, *Leihotik mundura* izeneko ikuskizuna ekarriko dute domeka arratsaldean, 17:00etan.

Pako Aristik idatzitako lana da eta Josu Camarak zuzendutakoa. Marifeli Etxeandiak eta Ainhoa Alberdik Pupu eta Lore



Leihotik mundura ikuskizuneko panpinak. | KEDINES

pailazo txikiei bizia emango diete, ikusleekin batera fantasiazko mundu batera bidaia egiteko. Pirritxen seme-alabatxoek Lagun txakurra bidelagun dutela mundua deskubrituko dute, eta irudimenaren mundua ezagutu.

Tailerra eta irteera

Argazkiendako kartoizko markoak ere egingo dituzte domeka arratsaldean. Hilaren 24an, berriz, paintballa egiteko irteera egingo dute, eta izena eman behar da aurretik.

Papalagi, Dirty Brothers eta No Hope taldeek joko dute Antixena gaztelekuan bihar gauean

Bailarako hiru taldek joko dute bihar, zapatua, gauean Antixena gaztelekuan: Arrasateko Dirty Brothers, Aretxabaletako No Hope eta Oñatiko Papalagik. Kontzertua 21:30ean hasiko da. Fan Hemendik! taldeak antolatuta du. Datorren zapatuan, berriz, gaztelekuan buruzko topaketa egingo dute eta hileko azken domekan Napoka Iria bikoteak joko du.

Belceblues talde bergararrak zuzenean joko du domeka iluntzean Pako tabernan

Hiru lagunek osatzen duten Belceblues taldeak Pako tabernan joko du domekan, 19:30ean. Soinu indartsuan oinarrituz, blues klasiko eta modernoa nahasten duen taldea da, euskarazko eta ingelesezko letrak tartekatuta. Espainiako blues eta jazz jaialdi garrantzitsuetan jotzeaz gain, AEBetako *Road to Memphis* munduko blues txapelketan ere parte hartu du. Hirugarren diskoa prestatzen ari da une honetan taldea.

Txantxiku Txuriurdinak taldearen zenbaki saritua 581 da eta jabeak hilabete du saria jasotzeko

Txantxiku Txuriurdinak taldeak atera zituen txartelen zozketan 581 zenbakia izan da saritua. Bigarren saria, berriz, 902 zenbakia duenarendako izango da. Zenbaki horiek dituztenek hilebeteko epea dute txartela Izarraitz tabernan entregatzeko. Txartelaren atzean izen-abizenak eta telefono zenbakia jartzea komeni da, Txantxiku Txuriurdineko kideak irabazlearekin harremanetan jartzeko. Ordezko zenbakiak hauek dira: 3428 eta 846.

Hastear da akordeen gerra Aretxabaletako tabernetan

Azaroaren 21ean emango diote hasiera Ostegun Akustikoak lehiaketari

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Ostegun Akustikoak lehiaketa eguen iluntzeak musikaz janzteko sortu zen. Atzo zen hastekoa, baina, arazo batzuegatik, hurrengo eguenera atzeratu dute, azaroaren 21era.

Lau eguenera eta lau tabernetan hartuko dute parte lehiakideek. Estilo askotariko musikariak izango dira eguenerako protagonista nagusiak, eta epaimahai zorrotzaren aurrean jo beharko dute, ikus-entzuleen aurrean, hain zuzen; izan ere, haiek izango dute emanaldi bakoitzaren amaieran botoa emateko eskubidea.

Aretxabaletako Gazteria teknikari Maider Etxanizek lehiaketaren gainean egin du berba: "Debagoienean musikari mordoa dagoela jakinda, aukera polita ikusten genuen eguenera kulturaz eta musikaz formatu txikian gozatzeko".

Rock, pop eta folk doinuak

Ostegun Akustikoak ekimenean arituko diren musikariek askotariko estiloekin gozaraziko dituzte ikus-entzuleak. Blues eta rock apur batekin irekiko dute lehiaketaren aurreneko emanaldia. Hala, Bergaratik zuzen-zuzenean bertaratuko da Azkaiter Pelox -Unai Azkarateren proiektueta-ko bat.

Oñatiko gazte baten emanaldiekin jarraituko du lehiaketak,



Azkaiter Peloxek emango du aurreneko kontzertua. | GOIENA

EMANALDIAK NON ETA NOIZ

Azkaiter Pelox:

Azaroak 21. Haizea Taberna.

Josu Zubia:

Azaroak 28. Expres Taberna.

Jim TNT:

Abenduak 12. Artano Taberna.

Saiatu Berriz:

Abenduak 19. Dagda Taberna.

ORDUA

Emanaldiak 21:30ean hasiko dira.

eta, modu horretan, azaroko azken eguenean, hilaren 28an, Josu Zubiak jardungo du. Aurreneko diskoa grabatu berri du hark, eta sortzen dituen kantuetan folka eta popa lantzen ditu, besteak beste.

Abenduaren 12an izango da hirugarren saioa eta Jim TNT arrasatearrak, besteak beste, country eta slide blues melodiak konpartituko ditu Artano tabernara bertaratzen diren ikus-entzuleekin.

Amaitzeko, MUko bi ikasle usurbildarrek osatutako Saiatu Berriz taldeak pop doinuz betetako bertsio gaua eskainiko du.

Arrasate-Arlutz taldeko xakelariek Gipuzkoako sariketa jokatzeko dihardute

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Arrasate-Arlutz taldeko Toño Estevezek eta Aitor Alcaidek Gipuzkoako Xake Txapelketako azken jardunaldia jokatu dute bihar, zapatua. "Estevez hirugarren mailako txapelketa jokatzeko ari da eta irabazten badu mailaz igoko da. Oso emaitza ona, duela hiru urtetatik jokatzeko duela kontuan hartuz gero", eman dute aditzera.

Alcaidek, osterara, preferente mailan dihardu: "Partida bat galdu, beste lau irabazi eta azken norgehiagoka sailkapeneko aurrenekoarekin berdinduta, laugarren nago, bigarrenarekin puntuetan berdinduta".

Bada, zapatua pasatuta, abenduan Arrasaten jokatu den nazioarteko txapelketa irekita begira ipiniko dira Arrasate-Arlutz taldeko kideak.

Uretako jolasak nagusi bihar arratsaldean Ibarra kiroldegian, han ipiniko dituzten puzgarriek esker

Ibarra kiroldegian uretako jolasak antolatu dituzte biharko, eta, besteak beste, puzgarriak ipiniko dituzte. Adinka banatuta joango dira: 3-6 urte bitartekoak (16:30-17:30) -haiek gurasoekin joan beharko dute-; 7 eta 10 urte bitartekoak (17:30-18:30); eta 11 eta 12 urte artekoak (18:30-20:30). Abonatuak doako sarrera izango dute eta gainerakoek 5 euro ordaindu beharko dituzte.

Zuberoako Eperra ikastolaren aldeko otarreak eros daitezke Loramendi elkartearen hilaren 30era arte

Zuberoako Eperra ikastolari laguntzeko otarreak ipini dituzte salgai. Loramendin eros daitezke azaroaren 30era arte. Hala, 39 euroren truke tokiko jakiekin osatutako otzara eskuratu ahal izango da; besteak beste, kilo bat ardi gazta, ahate gibelarekin eginiko pateak eta ezta dauzka otarreak. Produktu horiek ezagutzeko gain, Eperra ikastolaren egoera ekonomikoari laguntzeko modu bat dela ekarri dute gogora.

Sergio Iribarrenek hitzaldia egingo du Arkupen 'Gamazada 1893-1894' liburua aurkezteko

Astelehenean, azaroak 18, *Gamazada 1893-1894 etengabeko konkista* liburua aurkeztuko dute Zاراian, 19:30ean hasita. Sergio Iribarren Galbete lanaren egilea bertan izango da eta berbaldia egingo du. Liburua 1512-2012 Nafarroa Bizirik taldeak argitaratu du eta mugimendu politikoaren aitzindaria den matxinadaren zergatietan sakontzen du liburua.

Gazteekin bilera eta argazki lehiaketa Aretxabaletaren irudia lantzen jarraitzeko

Z.V.D.M. | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako gazteek herriaz duten ikuspegia jakin guran, bilera deitu du gaurko Bagarak, *Jar gaitzen* ekimenaren barruan. Gazte Ekimenak udaletxe zaharrean duen lokalean elkartuko dira eta herriko gazteak animatu gura dituzte 18:30ean hasiko den bilera parte har dezaten.

Argazki lehiaketa

Gainera, *Jar gaitzen* ekimenetik, eta Huhezirekin elkarlanean, *Aretxabaletako argazkitan* lehiaketa antolatu dute. "Herriaren errealitatea grafikoki deskribatuko duten hiru argazkitako bilduma osatzea da helburua". Hala, herriaren gaineko edozein gai, arlo edo errealitate islatuz, parte hartzaile



Aretxabaletako kaleak. | GOIENA

le bakoitzak hiru argazki aurkeztu beharko ditu lehiaketara. Guztiatik, hamar bilduma hautatuko ditu epaimahaiak eta Arkupen ipiniko dituzte ikusgai.

Abenduaren 4a izango da lanak aurkezteko azken eguna. Horretarako bidea jargaitzen@bagara.net helbidera idaztea izango da. Epaimahaiak aurkeztutako lanen artean aukeraketa egin ondoren, kultur etxean erakusketa irekiko dute. Herriarrek, gainera, bozkatzeko aukera izan

go dute. Horrenbestez, bi irabazle egongo dira.

Sariei dagokienez, Ibarra spa-gunerako eta hilabete osoko Arkupeko zine emanaldietarako sarrerak jasoko dituzte bi irabazleek. Baina, gainera, epaimahaiaren erabakiz irabazle suertatzen denak herriko jatetxe batean bi laguntzako afaria ere jasoko du sari moduan; herriarren botoen ondorioz irabazten duenak, osterara, bertako produktuz osatutako otarrea.

PIENZOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Jou Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAKO

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO



Itoitz Armendaritz bere txakurrekin jolasean. | ITOITZ ARMENDARITZ

Itoitz Armendaritzen txakurrak ikusgai

M.B. | ESKORIATZA

Txakurrak eta *mushing* edo txakurrekin mendian egiten diren lasterketak gustuko dituztenek hitzordua dute gaur, egubakoitza, 18:00etan, Ibarraundi museoan. Itoitz Armendaritz eskoriatzarrak horrelako lasterketetan parte hartzerakoan eroaten duen materiala jarriko du ikusgai; dituen hamaika txakurrekin batera, lera eta arnesekin egongo da ordu erdi inguruz gura duenak gertutik ikus ditzan. Azalpenak ere emango dituela esan digu *musher* eskoriatzarrak.

Jarraian, *Los vinculos del musher* ikus-entzunezkoa ikuste-

ko aukera izango da museoan. Hogei bat minutu irauten duen ikus-entzunezkoan, Armendaritzek lasterketak nola prestatzen dituen eta orain arte egindakoak nola bizi izan dituen azalduko dute.

Solasaldia

Amaitzean, solasaldia egingo du lasterketatik kanpo dituen zereginen gainean, eta, bereziki, bere txakur taldea zelan zaintzen duen jakinaraziko du.

Lasterketetan eskarmentua duen *musherra* da Armendaritz; besteak beste, Munduko Mushing Txapelketan eta Pirenan parte hartu izan du.

Jendaurrean daude gizarte garapenerako laguntzak

M.B. | ESKORIATZA

Gizarte garapen eta garapen iraunkorreko diru laguntzen oinarri hasierako onarpena eman zien udalbatzak azken osoko bilkuran, eta dagoeneko jendaurrean daude. Irigarria Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen hilaren 5ean, eta oinarriak jendaurrean daude abenduaren 11ra arte, gura duenak oinarriak aztertu eta, hala iritzi gero, erreklamazioak jarri eta iradokizunak egin ditzan. Honako ordutegian aurkeztu ahal izango dira: astelehentik egubakoitzera, 09:00etatik 14:30era.

Laguntzen plana

Bestalde, osoko bilkura berean, 2013-2015eko diru laguntzen plan estrategikoa hasiera batez onartu zen, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizial berean horren gaineko iragarria argitaratu zen. Hori ere abenduaren 11ra arte egongo da udaletxean ikusgai.

Bada, bi horietan erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioek behin betiko izaera jasoko dute, bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Rosa Lasagabaster | Kirol aholkularia

"Lehiaketara atera ditugu harrera, sorosle eta ekintzen zerbitzuak"

M.B. | ESKORIATZA

Datozen egunotan kirol arloan hainbat zerbitzu eskaintzeko deialdia egingo du Eskoriatzako Udalak. Rosa Lasagabaster kirol aholkulariak horren gaineko xehetasunak eman dizkigu datozen lerroetan.

Zer behar du, zehazki, Eskoriatzako Udalak?

Orain arte enpresa batek eroan ditu hainbat kirol zerbitzu: hain justu ere, kiroldegiko harrerakoa jaiegunetan eta langileen oporretan, igerilekuko sorosleen zerbitzua eta kirol ekintzen eskaintza. Enpresa horren kontratua luzapenean dago, eta orain berriro atera behar dugu lehiaketara, zerbitzu horiek aurrera ateratzeko. Udal ordezkari politikoen artean eztabaida piztu da, eta, egia esan, ez dut ulertzen zergatik. Lanpostu horiek betetzeko beharra dago, eta, hain justu, horixe aterako dugu lehiaketara.

Eta zer eskainiko duzue?

Bi urterako kontratua; asko jota, beste bi urtez luza daitekeena. Bestalde, 162.737 euroko gastu onarpena aurreikusitako harrera, sorosle eta fitness arloetarako, denera, 127.225 euro, eta ekintzetarako, 35.511 euro. Dagoeneko oinarrien ple-



Rosa Lasagabaster. | M.B.

gua bidali dugu, eta datozen egunotan argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Bada, behin argitaratuta, interesa dutenek hamabost egun izango dituzte proposamenak aurkezteko.

Noiz hasiko da lanean?

Gure asmoa zen urtarrilean hastea, baina horrelako gauzak luzatu egiten dira, eta, ziurrenik, otsailean jarriko dugu guztia martxan. Gainera, kon-tuan izan behar dugu tartean Gabonak daudela. Dena dela, eskoriatzarrei jakinarazi gura diegu zerbitzu horiek ez direla etengo; gaur egun eroaten dituen enpresak jarraituko du eskaintzen.

Bigarren eskuko azoka egingo dute bihar goizean

Salerosketak egiten diren bitartean, Rockalean taldea azoka girotzeaz arduratuko da eguerdian

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Etxeko armairuetan gordeta baina egoera onean dauden jostailuei, liburuei, kirol materialari edo arropari beste aukera bat eman ahal izango zaie bihar, zapatua, egingo den bigarren eskuko azokan. Gabonak gertu daude eta esandako azoka aukera ezin hobea izan daiteke opariak erosteko.

Aurreko edizioetan bezala, parte hartu gura dutenendako mahaiak jarriko ditu Udalak; hortaz, zerbait saltzeko interesa

dutenek mahaia erreserba dezakete gaur arte kultura etxera deituta, 943 71 46 88 telefono zenbakian; edo kultura@eskoriatza.net postara mezua bidalita. Denera, 15 mahai inguru eskatu direla uste dute Udaletik.

Udal Pilotalekuan

Azoka plazan egitea aurreikusitako dago, 11:00etatik 14:30ra bitartean; baina eguraldi txarra egiten badu -eta horrela dago iragarritako-, Udal Pilotalekuan izango da.



lazko azaroko azoka. | GOIENA

Gainera, salerosketak egiten diren bitartean, Rockalean taldeak azoka girotuko du, euskarazko, ingelesezko eta gaztelarazko bertsoiak abestuta.

Izena eman daiteke abendurako aldi baterako egonaldietan

Zabalik dago abendurako eta Gabonetarako nagusiendako aldi baterako egonaldietarako izen-ematea. Lehen hamabostaldirako edo hilabete osorako eskaerak astelehena, hilak 18, baino lehen aurkeztu behar dira Udaleko Gizarte Zerbitzuetako bulegoan, 943 71 31 36 telefono zenbakian aurretik txanda eskatuta; eta bigarren hamabostaldirako, azaroaren 27a baino lehen.

Eskaeren kopurua libre dauden plazen kopurua baino handiagoa bada, lehenetsuna emango zaie urtean zehar aldi baterako egonaldirik egin ez dutenei.

Pirritx eta Porrotx ikusteko sarrerak jarri dituzte salgai gaur

Azaroaren 23an izango ditugu gurean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, eta gaur, egubakoitza, jarri dituzte salgai haien ikuskizun berria ikusteko sarrerak. Interesa dutenek kiroldegira joan behar dute; sarrerak sei eurotan daude salgai.

Urtero moduan, Debagoienan, Eskoriatzan estreinatuko dute ikuskizun berria Euskal Herriko pailazo maitatuenek. *Bizipoza* izeneko emanaldia, Panpoxa furgonetan Txernobyldik datorkien laguna jasotzera joango dira; edo, hobeto esanda, saiatu egingo dira.



OHARRAK

IPIUIN KONTAKETA

Gaur, egubakoitza, ipuin kontaketa dute umek Tortolis ludoteketan, 17:30ean. Bestalde, egue-nean, hilak 21, akuarelekin margotuko dute.

KIROL HITZORDUAK

Oraingo asteburuan hiru hitzordu daude kiroldegian: gaur, egubakoitza, 20:15ean, seniorren saskibalo partidu dute etxekoek, Bilintx donostiarren aurka. Bihar,

zapatua, 11:30ean, gazte eskoriatzarrak lehiatuko dira Soralue Bergararekin; eta 18:00etan, areto futboleko lehen erregionalekoen norgehiagoka dago, Eskoriatza eta Dream Team artean.

GAZTELEKUAREN ESKAINTZA

Gaztelekuan gaur, egubakoitza, hockey partidu jokatu dute gaztetxoek; bihar, zapatua, sukaldetan ibiliko dira; eta domekan mendira joateko asmoa dute.

IKASTAROEI HASIERA

Astelehenean, azaroak 18, hasiko dira ibilgailuen mantentzeari buruzko ikastaroa eta Amaia Albes disenaitzaileak erabilitako arroparekin jantzi berriak eta pertsonalizatuak egiten ikasteko tailerra. Lehenengoa Aretxabaleto Lanbide Eskolan izango da azaroaren 28ra bitartean eta bigarrena herriko kultura etxean egingo dute hilaren 18an eta 15ean eta abenduaren 9an eta 16an.

ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA

**Agentziak eta
eraikitzailleak**
Egoera txarrari,
aurpegi ona

**Logeletako
dekorazioa**
Gakoa: kolore argidun
estilo modernoa

**Egongeletako
dekorazioa**
Lerro zuzeneko
altzariak nagusi

**Krisiaren eragina
arkitektura lanetan**
Eraginkortasun
agiriak, proiektuak...

**Igogailuen
zerbitzua**
Funtzionamendu onak
izan behar du helburu

 **bastidasukaldeak**


12 hilabeteko finantziazioa, interes gabe!

INFORMA ZAITEZ!

zarautz
elizaurre 3, 20800
tel.: 943 89 49 99 faxa: 943 89 49 98

azpeitia
perez arregi 9, 20730
tel./faxes: 943 15 05 10

bergara
ibargarai 36-38, 20570
tel./faxes: 943 76 70 58



Bibai: salneurri onak ardatz dituen agentzia

Arrasateko Bibai etxe agentzian ideiak garbi dituzte: "Momentu honetan, gure ustez, Arrasaten hobekien eraikita dauden etxeak eskaintzen ditugu salneurri ezin hobean".

Egungo egoera ona ez dela dakiten arren, Bibaikoek diote oporren ostean lan asko izan dutela. Urte hasieran baino etxebizitza gehiago saldu dituzte, eta horrek arnas apur bat hartzeko balio izan die. "Azken bi hilabeteetan salmenta handitu egin dugu", esan digute Bibai agentziakoek.

Horretan eragina izango zuten Bibaiek dituen salneurri "erakargarriak". Gelmako etxeen sustapen honetan bi logelako etxebizitza 165.000 eurotan (BEZ barne) eros daiteke. Sustapen hori da Bibairen oinarria. "Gure lana ia %100ean Gelmako etxeak saltzea da", diote. Gainera, "bigarren eskuko egiten ditugu, zenbakiek hemen erosteko aukera ematen diguten jakiteko, eta, horrela bada, bigarren eskuko etxebizitzaren salmentaren gestioa egiten dugu".

GELMAKO ETXEBIZITZAK

- ▶ Tabikeria hirukoitza beste etxeekiko paretetan eta bikoitza fatxadarako paretetan.
- ▶ Fatxada aireztatuak.
- ▶ Gelmako etxebizitzaren kalitate "ezin hobea": domotika, persiana elektrikoak eta hari musikala.
- ▶ Haritzeko parketa eta atak.
- ▶ Etxebizitzetako sukaldeak jantzita eta horma-armairuak.
- ▶ Bi logelako etxebizitzak: 165.000 euro, BEZa barne; eta hiru logelakoak: 200.000 euro, BEZa barne.



Gelmako etxebizitza blokea, Arrasaten.

Egoera txarrari aurpegi ona

Momentu latz honetan ahalik eta eskaintzarik interesgarriena egiteko hainbat irtenbide dituzte agentziek eta eraikitzaileek

Etxebizitza da, duda barik, krisiak gehien astindu duen sektorea. Badira hilabete batzuk etxebizitzaren salmenta geldi dagoela; edo asko moteldu dela. Agentziek buruko min bat baino gehiago izan dituzte egoera latzari aurre egin ahal izateko, eta bakoitzak ahal izan duen neurrian topatu ditu irtenbideak. Arrasateko Bibai agentziakoek buru-belarri dihardute Gelmako etxebizitzaren promozioarekin. "Salneurri erakargarriekin lan

egiten dugu. Uda ondorengo bi hilabeteetan urte hasieran baino etxebizitza gehiago saldu ditugu", diote.

Krisiak lurralde osoa astindu du, baita Debagoiena ere. Krisi ekonomikoak zeresana izan du, baina baita finantza-krisiak ere. Hori horrela, banketxeek ipintzen dituzten baldintzek asko zailtzen dute etxe baterako sarrera lortzeko bidea. Bada, hauxe esan digute Bibai agentziako ardura-dunek: "Guri bereziki lagundu egiten digute banketxeek, gure

Hemen
ascensores • igogailuak
debagoiena

943 04 40 01
691 52 22 04


debagoiena@ascensoreshemen.com
www.ascensoreshemen.com

Hutsetik hasita 2.011n,

Debagoienean **1.000** komunitatek gudan konfiantza izatea lortu dugu.

Egunero-egunero gure zerbitzua eta inplikazioa sendoa delako eta zure behar ekonomikoetara egokitzen garelako.

Eskatu aurrekontua!



C aroztegia
arrascal

**SUKALDEAK
BAINUAK
ARMAIRUAK**



ZEURE NEURRIRA ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

Sukia: modernoak eta kalitatezkoak

Arrasateko Uribarri auzoan dauka azken sustapena Sukia enpresak. Auzo ederra da, guztiz urbanizatuta eta dagoeneko jendea bizi da bertan. Kokapen pribilegiatua du eraikinak, bista ederrekin. Hori gutxi balitz, orientazioa ere paregabea da: iparraldeko fatxada eguralditik babestuta geratzen da eta hegoaldekoan, berriz, eguzkiak jotzen du. Kalitate beteko erakina da Uribarrikoa eta detaileak ere goi-mailakoak dira. Esate baterako, eraikinak teilatu hegala dauka alde guztietan, babes osoa dauka, eta fatxada adreilu, granito eta harriz dago egina, eta, ondorioz, ez du mantentze-lanik behar.

Sukia eta Gedi enpresek esfortzu berezia egin dute eskaintza ona egiteko eta sukialdea eta armairuak 6.000 euro baino gutxiagotan eskaintzen dituzte, kostu erreala baino gutxiago.

URIBARRIKO ETXEBIZITZAK

- ▶ Bi eta hiru logelako etxebizitzak salgai, tamaina eta tipologia askotarikoak. Etxe motaren arabera askotariko prezioak.
- ▶ Terraza handiak eta etxeari lotutako beste espazio bat dituzte beheko solairuek.
- ▶ Bista ikusgarriak atikoan eta solairuetako etxebizitzetan.
- ▶ Modako akabatuak: ate zuriak eta alikatatuak, hainbat tonutan, komunetako ertzak altzairu herdoilgaitzez eginikoak, sarrerako atea korazatua eta intsonorizatua.
- ▶ Sarrerako atea akorazatua da, eta ez blindatua.
- ▶ Leiho handietatik argitasuna sartzen da eta mikro-aireztapena du etxeak, egoki aireztatzen dela eta bizi-kalitate osasungarria bermatzen du, une oro.



Arrasateko Uribarri auzoko etxebizitzaren fatxada.

sustapenak baldintza bereziak dituelako. %100eko finantzazioa lor daiteke merkatuko baldintzarik onenetan: Euriborra + 1,75 etxe batzuetan. Laguntza handia izan da".

Etxebizitzaren salmentaz arduratzen diren agentzia guztiek bezeroen beharretara egokitu behar izan dituzte euren eskaintzak. Iritzi berekoa dira Bibaikoak: "Gure ustez, egun, Arrasaten hobekien eraikita dauden etxeak eskaintzen ditugu, salneurri ezin hobean".

AHALEGIN BEREZIA

Egoera hori izanik, Sukian ere garbi dute "esfortzu berezia" egin beharra dutela bezeroei eskaintzarik onena egiteko. Hala, Arrasateko Uribarri auzoan duten sustapenean sukialdea eta armairuak

Bezeroen beharretara egokitu dira eskaintzak

ruak 6.000 euro baino gutxiagotik eskaintzen dituzte, eta, horrela, kostu errealaren azpitik dagoen eskaintza egiten dute. Hain zuzen, Arrasateko etxebizitza berriekin Arrasateko auzoa eraberritu egin da eta Uribarriko etxeak guztiz bukatuta dauzka Sukiak, Gedi enpresarekin batera. Etxe modernoak eta kalitatezkoak jaso gura zituzten herriaren zabalkunde guneetako bat bihurtu den Uribarri auzoan eta eraikitzaileek zalantzarik ez daukate lortu egin dutela esateko.

Arrasatekoaz gain, Eskoriatzan ere badu sustapen bat Sukia enpresak: bi bizitzakoak Elorreta auzoan. Horrez gain, ospitale atzeko babes ofizialekoetan ere badihardute.

URIBARRI, ERABERRITUTA

Biste bizitasun bat dauka Uribarri auzoak eraikin berriekin. Urbanizazioa erabat bukatuta dago eta Sukiaren sustapeneko eraikuntzak ere goitik behera daude amaituta. Eraikin modernoak eta goi mailako detaileak jaso dituzte; barnetik zein kan-

potik, "modernoak eta kalitatezkoak", Joaquin Aznar obra-taldeko buruak, lan onaz harro, dioten moduan. Arrasateko Uribarri auzoa leku lasaia da, eta, eraikinek duten kokapenarengatik, etxe pribilegiatuak dira Sukiak nabarmentzen dituen horiek. "Altuerarengatik, bistengatik eta eguzkiarengatik", Aznarrek azpimarratzen du etxe pribilegiatuak direla. Bista ikusgarri horiek bai atikoean zein beheko solairuetan daude, eraikinak berak duen kokapenarengatik, hain zuzen.

UGARTE

OÑATI ERAIKUNTZAK

- > HORMIGOIZKO EGITURAK
- > IGELTSEROTZA
- > ZAHARBERRITZEAK
- > PROMOZIOAK

943 78 05 54

943 78 32 40

ugarte@cnes-ugarte.com



60 urte baino gehiago

Arkazuz zure etxea da.



Arkitektoen lana ere aldatu du krisiak

Energia eraginkortasun agiriak, Eraikinen Azterketa Teknikoak eta, bestetik, berritze lanen proiektuak sarriago egiten dituzte



Energia ziurtagiriarekin, kalifikazio bat ematen zaio etxebizitzari.

Arkitektoen lana aldatu egin da: batez ere, eraberritze proiektuak eta lanak egiten dituzte. Bizilagunen komunitateek enkargatuta, igogailu, aurrealde, teilatu eta atarrietako eraberritze-proiektuak egiten dituzte; eta norbanakoen dako, negozioak zabaltzeko lanak, baserriak berritzea, familia bakarraren dako etxebizitzak...

Azkenaldian ezagun egin dira Eraikinen Azterketa Teknikoa eta Energia Ziurtagiria, eta horiek ere egiten dituzte gaur egun arkitektoek. Tartean, Arrasateko Biark Studioko Aritz Etxebarria eta Asier Hormaetxe arkitektoek egiten dituzte bi lan horiek.

Oro har, "lana badago, baina baliabide ekonomikoak lehen baino gutxiago daude". Obra publikoa ere oso gutxi egiten da. Horregatik guztiagatik, arkitektoen lana aldatu egin da.

OBRETARAKO LAGUNTZAK

Aritz Etxebarria azaltzen digunez, ITEa "diruz lagunduta dago, baina bakarrik erreforma-obra batekin lotuta baldin badago. Bizilagun-komunitate batek obra bat egin behar badu, dirulaguntzak eskatzeko orduan ITEa eskatzen diete. Aurrekontua gutxieneko kopuru batera ailegatzeko bada, 1.000 euroko dirulaguntza dauka ITEa egiteak". Jende askok bestela uste duen arren, Etxeba-

rriak argitzen du ITEa lehendik ere eskatzen zela; berria da bakarrik derrigortasun-egutegia.

Aritz Etxebarriaren esanetan, "Arrasaten eraikin asko daude ITEa pasatu beharrean. Mantenu-mendu falta egoten da, eta konponketak behar izaten dira aurrealdeetan, teilatuetan, eskaileretan, instalazioetan...". Arkitektoaren lana da premia horiek ITEaren txostenean ipintzea. Baina, Etxebarriaren esanetan, "erreformak

Arrasaten eraikin asko daude ITEa pasa beharrean

egiteko ez dago dirulaguntzarik, edo daudenak oso gutxi dira, eta jende askok ez ditu egiten".

Normalean jendeak lehenengo obrak erabakitzen ditu, dirulaguntzak eskatzen ditu eta, horietarako ITEa eskatzen dietenean, orduan jotzen du euren gana. "Alderantziz egin beharko litzatekeela uste dut, lehenengo ITEa egin eta hor antzeman diren alderdiak hobetzeko obrak erabaki, gero". Bere iritziz, aurrekontuak eragin handia izan dezake bizilagunen komunitate batek erabakitzen dituen obren lehentasunean.

SAILKAPENA HOBETU

Energia eraginkortasun ziurtagiria derrigorrezkoa dute saldu

edo errentan eman nahi diren etxebizitzek eta lokalek. Aritz Etxebarria dioskunez, Biark Studioko arkitektoek etxebizitzaren eta lokalen, bien ziurtagiriak egin izan dituzte orain arte. Honela egiten dute: "Etxebizitzaren edo lokalaren ezaugarriak begiratzen ditugu eta izan beharko liratekeenekin konparatzen ditugu, programa baten bitartez. Itxiturak, leihoak eta klimatizazio eta ur bero sanitarioko instalazioak begiratzen dira. Konparaketatik, etxebizitza edo lokal hori sailkapen baten kokatuta irtetzen da, eta neurri batzuk proposatzen ditugu kalifikazio hori hobetzeko: isolamendua ipintzea, galdara aldatzea..."



IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR 

Kontratu osoena eta kalitatezko zerbitzua

Hemen Igogailuek eskaintzen duten zerbitzuagatik bereizten dira lehiakideengandik

Sei urteko esperientzia du Hemen Igogailuek enpresak eta bertan lan egiten duten langileen helburua da kalitatezko zerbitzua eskaintzea. Horretarako, lehiakideengandik bereizten dute euren zerbitzua.

HITZARMEN OSOENA

Hemen Igogailuek enpresako Gipuzkoako arduraduna Iban Sanchez da eta esan digu euren lehiakideek bezeroak ez dituzela aintzat hartzen. "Gu Deba-goinean lanean hasi ginenean, monopolio bat edo pakto bat zegoela esan daiteke, bezeroaren kaltetan. Besteak beste, prezio justifika ezinak ezartzeko". Hala, azaldu digu eurek 115 eta

130 euro bitarteko tarifak eskaintzen hasi zirela eta lehiakideek 250 eta 280 euro bitartekoak eskaintzen zituzten. "Egun, gure prezioak eskaintzen dituzte. Are gehiago, bezeroei esaten diete aurreko urtarriletik aplikatuko dietela prezio hori, adibidez. Horrela, diru kantitate bat sartzen diete euren kontuan. Horrek adierazten du orain arte ez dutela bezeroa aintzat hartu eta nahi dutena egin dutela". Sanchezek hau gaineratzen du: "Gure prezioak eskuragarri daude kontsultatu nahi dituenarentzako. Gu ezberdintzen gara zerbitzu ona eskaintzen dugulako, eta hitzarmenik osoena. Lehen, jendea gurenaga etortzen zen prezio baxuena



Iban Sanchez, laneko autoan.

genuelako, baina orain gure zerbitzua eskatzen dutenek gurea aukerarik onena delako egiten dute".

BEZEROAK ASKATASUNA DU

Beste enprekin ez bezala, Hemeneko bezeroak aske dira kontratua noiz bukatu erabakitzeko. "Bezeroren batek hitzarmena eten nahi badu, hurrengo hileko lehen egunetik askatasun osoa izango du beste enpresa batekin aritzeko. Lehiakideekin ez da horrela ger-

tatzen. Mehatxuak erabiltzen dituzte", dio Sanchezek.

24 ORDUKO ZERBITZUA

Hemen Igogailuek da arlo honetan 24 orduko zerbitzua eskaintzen duen enpresa bakarra. "Deba-goinean diharduten beste enpresek pegatina bat jartzen dute igogailuan 24 orduko zerbitzua eskaintzen dutela esanez, baina ez da egia. Kontratuaren letra txikietan irakur dezakezu zerbitzu hori norbait igogailuan harapatuta gelditzen denean bakarrik eskaintzen dutela. Beraz, zapatu gauean igogailua gelditzen bada, baina inor ez bada barruan, edo astelehen gauean lanetik etxera zoazenean giltzak zulotik erortzen bazaizkizu, gu berehala izango gara bertan. 30 minutuan izango dituzu giltzak eskuan, baina beste enprekin hurrengo eguneko goizera arte itxaron behar duzu. Inork zehaztu ezean, zerbitzu hori duzula pentsatzen duzu, baina ez da horrela", zehaztu digu Sanchezek.

IBAN SANCHEZ | HEMEN IGOGAILUAK

"Funtzionamendu egokirako dena ondo dagoela ziurtatzen dugu"

Hemen Igogailuek enpresako Gipuzkoako arduraduna da Iban Sanchez, eta sortzaileetako bat. Enpresaren gaineko argibideak eman dizkigu.

Noiz sortu zen enpresa?

Orain dela sei urte sortu zen Hemen. Hain zuzen, igogailu sektorea liberalizatu zenean eta lehiakortasunerako aukerak ireki zirenean. Izan ere, orduan izan zuten bezeroek askatasuna mantentze-lanak ze enpresarekin egin nahi zituzten aukeratzeko.

Lan asko egiten duzue Deba-goinean?

Oraintxe dira justu bi urte Deba-goinean lanean hasi ginela. Bezerorik ez izatetik 400 igogailuren mantentze-lanak egitera pasatu gara bi urtean. Beraz,

merkatu garrantzitsua da guretzako.

Non egiten duzue lan handien?

Oraindik Gasteizen ditugu bezero gehien, baina, egungo dinamikarekin jarraituz gero, Gipuzkoa izango da urtebetean bezero gehien izatera pasako den lurraldea, inolako zalantzarik gabe.

Zeintzuk dira eskaintzen dituzuen zerbitzuak?

Guk, batez ere, igogailuen mantentze-lanak egiten ditugu. Beharrezkoak diren prozedura guztiak egiten ditugu: kableak koipeztatu eta pieza guztiak egoera onean daudela ziurtatu, besteak beste. Azkenean, funtzionamendu egokirako dena ondo dagoela ziurtatzea da guk egiten duguna, gero arazorik egon ez dadin.



Hemen Igogailuetako bulegoa.

Azken blokearen salmenta **Uribarrin**, bista paregabearekin!



UTE URIBARRI AUZOA ARRASATE
sukia GEDI

- Orientazio paregabea.
- Kokapen pribilegiatua.
- Kalitatezko etxebizitzak.
- 2 logelako etxebizitza 195.000 €-tik aurrera.
- 3 logelako etxebizitza 240.000 €-tik aurrera.

Tel.: 650 51 98 95 - www.sukia.com

Bisita ezazu gure etxebizitza pilotua!



Carrascalen asko erabiltzen dituzte tiraderak.



Tiraderen beste adibide bat.



Moda tendentziekin bat datorren Servimasaren sukaldea.



Servimasan, altzariak zabaltzeko

Bezeroa zelakoa, sukaldea halakoa

Sukaldeak norberaren beharren eta gustuen arabera egokitzeko aukera ematen dute

Bezeroen erosotasuna, beharrak, nahiak, gustuak eta, jakina, merkatuak eta modak ekartzen dituzten azkeneko tendentziak kontuan hartuta egiten dute lan sukalde hornitzaile eta fabrikatzaileek euren katalogoak osatu eta erosleei eskaintzak egiteko orduan.

HONDAKIN BILKETA

Adibide moduan, altzariak fabrikatzen eta banatzen 30 urteko esperientzia duen Bergarako Servimasa enpresa erabat eguneratuta dator sukaldeetarako eskaintzarekin. Puri-purian dauden hondakin bilketa sistema berriak aintzat hartu, eta "hondakin bilketa sistema berezitua" txertatu dute euren sukaldeetan.

Horrez gainera, motorrekin dabilzan ate eta tiraderak gehitu dituzte eskaintzan. "Tiraderak itxi eta zabaltu egin daitezke motorrak erabilita, eta goiko altzariak zabaltzeko sistema automatikoak eskaintzen ditugu, botoi bat sakatuta ateak zabaltzeko aukera ematen dutenak, jarlekura igota ibili behar barik". Koloreei dagokienez, berriz, moda

tendentziak kontuan hartu, eta kolore "zuri eta mateak" oinarri dituzten sukaldeak saltzen dituzte, batez ere. Bestelakoan artean, nabarmendu dute, baita ere, "obra egin barik, lurra aldatzeko aukera" eskaintzen dutela, "laminatu baten bitartez. Oso-oso emaitza ona ematen du, besteak beste, hezetasunaren kontra babestuta dagoelako. Eta gainera, 25 urte-

ko bermea ematen diogu lur horri". Gustuei dagokienez, berriz, ateak serigrafiatu egin daitezke Servimasan, "argazki ezberdinak erabilita... norberaren gustuen arabera".

Bukatzeko, oraingo garai gogorren jakitun, Servimasa bezeroei aukera ematen die muntaketari dagokion eskulana aurretiko, bezeroek eurek eginda muntatze lanak.

IKER SUKALDEAK

Bestalde, "eskaintza aberatsa" dutela nabarmendu dute Arrasaten, Oñatin eta Urretxun diharduen Iker Sukaldeak enpresatik. "Merkatuko marka esanguratsuenekin" egiten dute lan, eta, gainera "ahalik eta eperik motzenez erantzuten" diote bezeroak aukeratu-tako eskaintza horri. "Gure helburua bezeroaren beharrei erantzutea da. Horretarako, pro-

GELMAko etxebizitzak

ARRASATE

%100eko finantzaketa

INFORMA ZAITEZ

Merkatuko baldintza ONENAK

BEZa zure kontu / finantziarioaren gestioa gure kontu

www.inmobibai.com

BIBAI INMOBILIARIA
"12 URTEKO ESPERIENTZIA"

Tel 943 25 38 21 E-mail info@inmobibai.com
Deba Kalea 3 - 20500 Arrasate (Gipuzkoa)

5 ETXEBIZITZA salneurri berezitan

- 1. solairua. 3 logela
• 83,82 m² erabilgarri + 30,57 m² terrazak
• Sukaldea eta horma-armairuak
200.000 € + BEZa
- 1. solairua. 2 logela
• 64,92 m² erabilgarri + 24,34 m² terrazak
• Sukaldea, horma-armairuak eta argiztapena jarrita
• Etxe osoa jantzita
173.000 € + BEZa
- 5. solairua. 3 logela
• 83,82 m² erabilgarri + 10,23 m² terrazak
• Sukaldea eta horma-armairuak
223.000 € + BEZa
- 5. solairua. 2 logela
• 64,92 m² erabilgarri + 3,88 m² terrazak
• Sukaldea eta horma-armairuak
180.500 € + BEZa
- 1. solairua. Logela bat
• 41,55 m² erabilgarri
135.000 € + BEZa



sistema automatikoak.



Sukalde eskaintza aberatsa eta orotarikoa dute Iker Sukaldeetan.



Produktuaren akaberari garrantzi handia ematen diote Iker Sukaldekoek.

duktuen katalogo zabala daukagu, diseinu eta modelo berritzaileekin, eta bezeroari sukalde pertsonalizatu eta eskusiboa egiteko aukera ematen diogu". Osterantzean, Iker Sukaldeetan garrantzi handia ematen diote produktuaren akaberari, berdina da bezeroak aukeratutako sukaldearen prezioa garestia edo merkea izan. "Sukaldearen muntaia ez bada ondo egiten, emaitza txarra da. Beraz, berdina da erosi gura den sukalde garestia edo merkea izan, guk berme eta kalitate erabatekoa dituen muntaia egiten dugu, eta, gainera, prezioan ezertxo ere gehitu barik", adierazi dute.

Eta Iker Sukaldeetan duten beste ezaugarrietako bat da tratu pertsonala eskaintzen diotela bezeroari: "Bezeroak zer gura duen esplikatzeko du, eta egiten duguna da profesional modura guk dakiguna haren eskaerari

gehitu, eta, biak bateratu ostean, proiektua landu".

CARRASCAL AROZTEGIA

Carrascal aroztegiaren ezaugarri nagusia, berriz, da fabrikatzaileak direla: "Neurrira egiten ditugu armairuak prezio onean, gainkostu barik, eta bezeroak duen lekua guztiz aprobetxatuz". Eta fabrikatzaile izanda, bezeroari urte askotarako sukalde eskaini gura diote euren lanaren bitartez: "Kalitatearen aldeko apustua egin dugu, bai materialetan baita burdinerian ere: tiraderak, bisagrak... sukalde urte askotarako inbertsioa da, eta asko erabiltzen da; horregatik, kalitateko burdineriak eta materialak oso inportanteak dira".

Eskaintzari dagokionez, azpimarratu dute "hainbat hornitzaileekin" lan egiten dutela, "bezeroendako eskaintzan gama abe-

Bainuetan, hanka bakoak nagusi

Sukaldeetan nagusi den zuri kolorea ere "errege" da bainuetan; hala ere, Carrascal Aroztegitik nabarmendu dute "beste kolore batzuk" ere jartzen dituztela, bezeroek hala eskatuta. Joera berrienei dagokionez, berriz, kontatu dute hanka bako armairuak erabiltzeko tendentzia indartu eta "armairuak tiradera izatera pasa" direla; bestela esanda, "ateak barik, kanpora tira daitezkeen tiraderadun armairuak dira gaur egun nagusi".



Hanka bakoak, bainuetan.

ratsa izateko". Koloretan sartuta, berriz, zuria saltzen dute gehien, eta Gola hatz-heldulekua duten altzariak dituzten sukaldeak. Nabarmendu gura izan dute, bestalde, Carrascal aroztegiaren "asko zaintzen" dutela "diseinua eta baita erosotasuna ere; adibidez, sukaldea (indukzioa eta bitrozeramika) eta arraska bezero bakoitzaren altuera erosoaren arabera jartzen ditugu". Eta beste ezaugarri bat da gremioekin ere lan egiten dutela: "Batzuetan, gremioak bezeroek aukeratzen dituzte, baina, beste batzuetan, nahigo dute guk jartzea. Bada, bi aukerak eskaintzen dizkiegu".

Edozelan ere, laburbilduz, Carrascal aroztegiaren eskaintzaren deskribapen nagusi modura, hauxe diote: "Merkatuko preziorik onenez gainera, aholkularitza eskaintzen dugu, eta tratu pertsonalizatua.

- ➔ Obra berria
- ➔ Zaharberritzeak
- ➔ Erreformak
- ➔ Igogailuen proiektuak
- ➔ Eraikinen Ikuskapen Teknikoa
- ➔ Eraikinen Energia Ziurtagiria
- ➔ Txosten teknikoak
- ➔ Legeztatzeak
- ➔ Hirigintza



ZIURTAGIRI ENERGETIKOA
(Etxea alokatu edo saltzeko beharrezkoa)

EIT-ITE
(Eraikinen Ikuskapen Teknikoa)

Aholkularitza eta laguntza tramitazioan: aukera teknikoen azterketa, proiektua, lizentzia, dirulaguntzak, obrarako aurrekontuen analisisa, obra zuzendaritza...

Eska ezazu aurrekontua konpromisorik gabe.

Informa zaitetz urte bukaera arte ditugun eskaintza bereziet!



BIARK STUDIO arkitektoak



Telebistako altzariak baxu ipintzen dira.

Lerro zuzeneko altzariak nagusi egongeletan

Berotasun sentsazioa transmititzen dituzten koloreak nagusi dira eta geroz eta erdiko mahai gutxiago ipintzen dira

Modak joan eta etorri egiten dira, baina, egongelen kasuan, azken urteetako joerak mantendu egin direla igarri dute Bergarako Ugarte aroztegiak. Esaterako, bezero gazteek -eta geroz eta nagusi gehiago- batez ere lerro zuzeneko altzariak eskatzen dituztela diote: "Eta gainera, telebistako altzaria sofaren altuerara egotea gura izaten dute".

Koloreei dagokienez, oster, orain arte "klarion zuri edo nuklearra" gailentzen baldin bazen armairuetan-eta, "orain

berotasun handiagoa transmititzen dituztenak" eskatzen dituztela diote Ugartekoek.

Egongela janzerakoan, sofen eta besaulkien koloreek egiten dute kontrastea gelarekin: "Grisak eta marroiak dira gehien saltzen direnak". Eta, batez ere, lasaitasun eta erosotasunerako sofak ipintzen dira egungo etxeetan: "Giltzurrunerako eta bururako babesak dituztenak".

ERDIKO MAHAIRIK EZ

"Aldatu den beste gauza bat azken joeren artean ia ez ditugula erdiko mahaiak ipintzen. Jendeak nahiago izaten du gela alfombra batekin jantzi".



Egongela askotan ez dira erdiko mahaiak ipintzen.

Eroso egoteko logelaren xarma

Estilo modernoko gelak dira gaur egun etxea dekoratzerakoan gehien eskatzen direnak, kolore argiko altzariekin osatuta

Erosotasuna. Horixe da batez ere logela bat diseinatzerakoan bezeroek gehien baloratzen dutena. "Eta gainera, guztia gordeta egotea ere gura izaten dute", diote Ugarte aroztegitik.

GAZTE GELAK NAGUSI

Azkenaldian, batez ere, gazte-logelak saltzen dituzte Bergarako denda. "Ume batentzako izan arren, epe luzerako gelak gura izaten dituzte bezeroek; nolabait, urte asko erabili ahal izango direnak". Eta esate baterako, dendara joaten diren askok ohe bilakatzen diren sehaskak eskatzen dituztela gaineratu dute, "umek adinean aurrera egin ahala beharretara egokitzeko".

Gehienetan, kolore argiak nagusitzen dira gazteen gela horietan, "krema koloreak beste kolore batekin nahastuta, esate baterako".

Eta dena gordeta egoteko tendentziari jarraituta, oso apal gutxi ipintzen dituzte gaur egun. "Jendeak nahiago izaten du horma margotu edo koadro bat zintzilikatu, esaterako".

GELA MODERNOAK

Bestalde, helduen logelei dagokienez, kolore zuri eta neutroak nagusitzen dira, batez ere. "Baina oraindik ere haritzaren eta gaztainondoaren jarraitzaile asko daude". Kolore sorta zabala daukate horiek ere eskura, Ugarte aroztegiak diotenez: "Ezti eta gereziondo koloreko altzariak izan daitezke, edo naturalak...".

Gau-mahaiei dagokienez, oro har baxuak izaten dira bezeroen gustukoak, "baina duela urte batzuk baino garaiagoak". Sinfonierak ipintzeko joera ere bada goela gaineratu dute: "Altuagoak edo baxuagoak izango dira, armairuaren arabera".



Ohe bilakatzen diren sehaskak asko saltzen dira gaur egun.



Gela modernoan aldeko hautua egiten da, batez ere.

Espazioa aprobetxatzeko armairuak

Logela ahalik eta gehien aprobetxatu guran, askok hautatzen dute armairua neurria egitea. Arrasateko Carrascal aroztegiak ondo dakite hori: "Gau-mahaiek edo sinfonierrek traba egin dezaketela eta, armairuak ate gidaridunekin eskatzen dituzte askok". Gaur egungo armairu gehienak zuriak egiten dituzte, "aluminiozko listoiak ateari forma emanaz, esaterako". Eta armairuaren atean ispilua ere maiz ipintzen dutela gaineratu dute.

Barrualdeari dagokienez, makina bat aukera dute bezeroek eskura: "Gelan sinfoniera badago, ez dugu tiraderarik ipintzen; oinetakoak uzteko tokia egiten dugu eta arropak eskegitzeko barrak lehen baino baxuago ipintzen dira, erosotasunagatik".

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK


AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak





Arrieta, Beasainen egindako pegatina erakusketa batean. | ANE ARRIETA/GOIERRIKO HITZA

Juanjo Arrieta | Pegatina bildumagilea

"Erakusketaren gaia da emakumea arlo guztietan: politikan, sexologian..."

- ▶ Hogei urte daramatza pegatinak biltzen
- ▶ 250-300 pegatinako erakusketa jarriko du

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira, erakusketa berezia antolatu du Gaztetxeak datorren asterako: Joanjo Arrieta bildumagile segurarrak emakumeen borrokaren inguruan dituen pegatinak jarriko dituzte ikusgai asteleheneetik domekara, 17:00etan. Ikusteaz gain, mota horretako pegatinak dituztenei gaztetxera eramateko dei egin diete, Arrietak bere bilduma handitu eta historia gal ez dadin.

Emakumeen borrokaren inguruko erakusketa izango da, ezta?

Erakusketaren gaia da emakumea arlo guztietan: errepresioan, sexologian, politikan... Bere askatasunari buruzko pegatinak ere egongo dira, baita umorezko hainbat ere.

Aurretik Iruñean egon zen erakusketa berdina eta ikaraga-

rri gustatu zitzaion. Batzuetan kosta egiten da ulertzea gauza batzuk nola gusta daitezkeen baina hala da.

Noizko pegatinak dira?

Ezin dut horrela esan, baina duela hogeit urtetik honakoak izango dira, orain dela astebete artekoak. Ateratzen joan direnak eta lortu ahal izan ditudanak.

Bildumazaleok sare batean ibiltzen gara, inguruko bildumazaleekin harremanetan: arabarrek, nafarrek... Eta trukeak egiten ditugu, horrela heltzen zaizkigu pegatinak. Originalak gorde egiten dira eta bikoiztuta-

"Duela hogeit urtetik honako pegatinak dira, orain dela astebete artekoak"

koekin egiten ditugu bildumak; hori izaten da erakusketetan jartzen dena.

Antzuolako erakusketako pegatinak zer dira Euskal Herrikoak, ala kanpokoak ere badaude?

Bakoitzak nahi duen moduan egin dezake bilduma, horretan ez dago araudirik: batzuek emakumeen ingurukoak bakarrik egingo dituzte, beste batzuek borrokarik gogorrenak, besteek euren eremuko pegatinak... Antzuolako erakusketa baliteke kanpoko pegatinak ere egotea: Asturiasekoak, Andaluziakoak edo Kataluniakoak, adibidez.

Zenbat pegatinak osatuko dute erakusketa?

Ez dakit zehatz, baina 250 eta 300 pegatina artean izango dira.

Tamaina eta formatu ezberdineta-koak, ezta?

Bai, batzuk orri osokoak, besteak orri erdikoak, txiki-txikiak... Eta denak plastifikatuta daude.

Bilduma handitzen jarraitzeko, gogoz jasoko zenituzke herritarren pegatinak ere.

Bai, eramango balituzte esker onez jasoko nituzke. Bildumagileak harrapatuta bezala gaude, festarik festa moduan joaten gara pegatina bila; denak bildu eta bata besteari non ibili garen kontatzen aritzen gara.

Nondik datorkizu zaletasun hau?

Oso zaharra da. Nik ez nuen bildumagile izateko asmorik, lagun batek deitu zidan esanez egiten zituela. Hasieran ez zeudela burutik ondo uste nuen baina azkenean nik ere horretan amaitu nuen. Hasten bazara eta ez bazaizu gustatzen utzi eta kito, baina gustatzen bazaizu, jarraitu eta, azkenean, sarea egiten duzu.

Gainera, bildumagileok topaketak egiten dituzue, ezta?

Bai, urtean behin biltzen gara eta hil honen 23an izango da hurrengo topaketa, Laudion. Egundako elkarretaratzea izaten da, nork bere pegatinak eramaten ditu elkartrukatzeko. Gainera, elkar ezagutzen dugu. Dagoeneko 12-13 urte daramatzagu batzen eta urtero probintzia baten egiten dugu. Aurtun Gasteizen tokatzen zen, eta, azkenean ere, Laudion izango da.

"Bildumazaleok topaketak egiten ditugu, pegatinak elkartrukatzeko"

Eguren goizetan eskainiko dute lanerako orientazio zerbitzua

I.E. | ANTZUOLA

Debagoieneko Mankomunitateak lanerako orientazio zerbitzua ematen du bailara osoan, eta, aurrerantzean, egun goizetan 09:30etik 13:00etara eskainiko du Antzuolan. Zerbitzuaz baliatu ahal izateko ezinbestekoa da aurretik txanda eskatzea, eta, horretarako, udaletxera deitu behar da; hau da, 943 76 62 46 telefono zenbakira.

Bi zerbitzu

Mankomunitateak bi eskaintza mota egiten ditu: batetik, lan

bilaketarako orientazioa; eta bestetik, enplegu zentroan jasotzen den eguneratutako lan informazioa ematea.

Lehenengoari dagokionez, enplegu baliabideen berri, lanerako helburuak definitzeko laguntza, lana bilatzeko tresnen trebakuntza, lan elkarriketen prestakuntza, aholkularitza eta Interneteko baliabideen ezagutza emango dituzte.

Bestalde, lan eskaintzen, formakuntza saioen, lan dealdi publikoen eta praktika eta beken berri eskainiko dute.

Landatxope elkarteak bazkide berrien kanpaina martxan du

I.E. | ANTZUOLA

Pentsioen gainbehera aintzat hartuta, Landatxope erretiratuen elkarteak bazkide berriak egiteko kanpaina jarri du martxan. Egundako 310 bazkide ditu elkarteak, eta, jende gehiagorekin, administrazioei presio handiagoa egin ahal izango dietela uste dute Landatxope elkarteak ordezkariak. Oraingoz, ez diote datarik jarri kanpainari eta bazkide egiteko nahikoa da zuzendaritza-batzordeko edonori jakinaraztea.

Gaztaina-erreak bihar

Bihar emango dio hasiera erretiratuen elkarteak azaroko programari. Datorren astean herri mailan egingo denari aurre hartu, eta gaztaina-erre eguna egingo dute bihar, 19:00etan, Torresoroan.

Karta txapelketa ere egingo dute hilabete honetan, eta, gainera, aldarrikapenerako tartea hartuko dute, azaroaren 28an manifestazioa egingo dute eta Herriko Plazan, *Gure pentsioak ez ukitu* lelopean.

Alokairu sozialeko Bizigune programako etxebizitza errentan

I.E. | ANTZUOLA

Eusko Jaurlaritzak hutsik dauden etxebizitzak merkatu-ratu eta merkatu librean etxebizitza bat eskuratzeko behar besteko dirurik ez duten pertsonen esku jartzeko martxan jarritako programa da Bizigune. Egundako, asmo horretarako etxebizitza bat dago herrian eta oraingoz ez dago errentan hartzeko eskaririk.

Baldintzak

Alokairu sozialeko etxebizitza hori eskuratzeko hainbat

betebehar daude: etxeren baten jabe ez izatea azken bi urteetan eta epe berean babes-tutako etxebizitzaren esleipendun ez izatea. Urtebetez egon behar da erroldatuta EAEn eta urteko diru-sarrerek 3.000 eta 21.100 euro artekoak izan behar dute.

Suradesak kudeatzen du Bizigune plangintza Debagoieneko eta informazioa lortzeko harekin jarri behar da harremanetan. Astelehenean 10:30etik 11:30era Antzuolako udaletxera ere jo daiteke.

Eguenera arte egongo dira salgai Libre Eguneko bazkariko txartelak

Azaroaren 23ko Libre Egunean egingo dituzten ekintzen artean, bertso bazkaria antolatu dute. Inaki Gurrutxaga eta Jokin Uranga bertsolariak ariko dira kantuan eta txartelak dagoeneko salgai daude. Langabe eta ikasleek 10 eurotan eros ditzakete eta langileek, berriz, 15 eurotan. Gaztetxean egongo dira salgai txartelak azaroaren 21a arte.

Gaur amaituko da autodefentsa feminista tailerreko izen-ematea

Datorren zapatuan eskainiko dute autodefentsa feminista tailerra Gaztetxean eta bertan parte hartu ahal izateko izen-ematea gaur amaituko da. Indarkeriarekiko iritziak eta bizipenak konpartituko dituzte tailerrean eta parte nahi dutenek udaletxeko idazkari-tzan edo Gizarte Zerbitzuetan eman behar dute izena.

Harrera beroa izan du Gazte Txokoak lehenengo asteburuan

Ikasturteko lehen asteburuan gaztetxo ugari batu ziren Gazte Txokoan, 30en bat zapatuan eta domekan. Merienda egin zuten zapatuan ikasturteari hasiera emateko eta mahaitenisean eta futboleko ibili ziren. Asteburu honetan ere zabalik egongo da, bihar 17:00etatik 21:00eta eta domekan 17:00etatik 20:00etara.

Helduen eta familien saioak gaur eta bihar Laskurain zentroan

Nork bere burua ezagutzeko azaroko helduendako babes saioa egingo dute gaur arratsaldean Laskurain Psikomotritzitate Zentroan. Bihar, aldiz, familiei zuzendutako saioa eskainiko dute 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Bestetan moduan, Concha Dobon terapeutak eskainiko du biharko tailerra.

OHARRAK

PILOTA PARTIDUA

Bigarren urteko alebinetako Olalde 1-Murumendi 2 partidua jokatu da gaur, 19:30ean, Udal Pilotalekuan.

GAZTETXEAK BATZARRA

Gazteek beste batzar bat egingo dute gaur, 18:00etan.

TXISTULARI KALEJIRA

Domekan 10:00etan hasiko da txistularien kalejira.

'Euskaraz bizi nahi dut' materiala eskatzeko aukera

J.B. | ARAMAIO

Txirritola euskara elkarteak Euskararen Nazioarteko Egunari begira lanean ari da: "Egunerokoa euskaraz bizitzeko hautua eta ahalegina egiten dugun herritarrek gako gara. Jokabide aktiboak behar ditugu gure euskaraz bizitzeko nahi hori gauza dadin".

Abenduaren 3an *Euskaraz bizi nahi dut* ikurra etxeetako balkoi eta leihoetan jartzeko, Txirritolak ikur hori eskuratzeko aukera erraztu gura die aramaioarrei. Gaur eta hilaren 21ean materiala probatu eta eskaera egiteko aukera eskainiko dute. Gaur Sastiñan (19:00-20:30) egongo dira eta hilaren 21ean, berriz, udaletxean (13:00-14:30) eta kultur etxean (17:30-19:00). Kamisetak -hamar eurotan- probatzeko aukera egongo da eta horrez gain, pinak -euro baten- eta banderatoak -hiru eurotan- ere salduko dituzte.

'Sex o no sex' obraren aurre-estrenaldia etxi kultur etxean (19:00)

Itur-Zuri emakume elkarteak antolatuta, *Sex o no sex* obraren aurre-estrenaldia egingo du Oihulari Klown taldeko Virginia Imazek domekan, kultur etxean (19:00). Imaz ezaguna da Itur-Zuriko kideendako; barrea terapia moduan lantzeko saioak egin izan dituzte harekin, adibidez. Hori da obra Aramaiora ekartzearen arrazoi nagusia.

Zahartzarora berba hilaren 19an kultur etxean, 18:00etan

Alaiak elkarteak antolatuta, Fernando Gomez sendagileak hitzaldia egingo du azaroaren 19an, kultur etxean (18:00). Zahartzaroko arazoaren gainean egingo du berba, arteriei protagonismo berezia emanda. Galderak egiteko tartea egongo da. Gainera, hitzaldira bertaratzen diren artean operari bat zozketatuko dute antolatzaileek.

Punturik lortu gabe jarraitzen du areto futbolako taldeak

Bi maila gorago hasi du denboraldia Aramaio taldeak eta ez dago zalantzarik aldea igartzen dela. Lehen hiru partiduak nabarmen galdu dituzte aramaioarrek. Azken aurrekoak dira (0 puntu) Iparra taberna zigortu egin dutelako (-3). New Beer House taldearen aurka jokatu dute bihar, Aldabeko kantuan, 16:45ean.

Kontzertua, kalejira eta jatekoa herriko zaindariaren omenez

San Martin Eguna dela-eta hainbat ekintza antolatu dira azken egunotan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

San Martin izan zen astelehenean, aramaioarren zaindariaren eguna. Aurten ere, urteroko ohiturari eutsiz, hainbat ekintza antolatu dituzte egun berezi horren bueltan. Ekintza horien artean nabarmentzekoa da herriko trikiti taldeak gaurko antolatu duen egitaraua. Gaur, nobedade moduan, emanaldi berezia eskainiko dute Bergarako trikitixa taldekoekin batera, kultur etxean (18:30).

Aramaioko trikitixa taldeko arduradun Yolanda Sillerok azaldu digunez, egun berezia izango da gaurkoa: "Aurten Bergarakoekin batera joko dugu. Gure emanaldian, trikitixa eskolako trikiti eta pandero ikasleez gain, gitarra doinuak eta abeslariak izango ditugu". Lehen aldia denez, ikusteko dago nola irtengo den



Trikitixa eskolakoak kalejiran, izako ospakizunean. | JOKIN BEREZIARTUA

kontzertua: "Bergarako irakasleak, Aritz Alustizak, proposatu zuten kontzertua. Orain arte Arrasate Musikalekoak etortzen ziren baina aurten ezberdina izango da.

Ea nola irteten den", adierazi digu Sillerok. Sarrera bi euro ordaindu beharko da eta herriko tabernetan zein kultur etxean bertan erosi ahalko dira, ema-

naldia hasi aurretik. Hiru ordu laurden inguru iraungo du kontzertuak eta ondoren bi taldeak batera jaitsiko dira Bizente Goikoetxea plazara, kalejiran.

Jatekoa, edatekoa eta zozketa

Plazara heltzeaz bat pintxo-potea egingo dute. Aurreko urte batzuetan buzkantzak saldu izan dituzte baina aurten txistorrak izango dira protagonista: "Buzkantzek lan gehiago suposatzen dute eta nahiko larri ibiltzen garenez, aurten txistorra pintxoak jarriko ditugu". Ardoa eta txistorra pintxoak, euro baten truke. Horrez gain, urteroko zozketa ere egingo dute; txartel bakoitza euro baten truke erosi ahalko da eta 20:30ean egingo dute zozketa. Hiru txartel sarituko dituzte: lehenarendako aste bukaera bateko egonaldia nekazal turismo baten, bigarrenarendako urdaiazpiko bat, eta hirugarrenarendako, azkenik, gazta bat. Jasotako diru guztia trikitixa eskolarendako izango da. Sillerok dioenez, "gure proiektuarendako". Egun 26 haur eta gazte daude taldean -16 trikitilari eta 10 pandero-jole-, eta helduen talde bat ere badago.

"Oso giro polita" Txirripartxis lehiaketan

San Martin Egunaren harira antolatutako ekintzen barruan, domekan Txirripartxis lehiaketa antolatu zuen Txirritolak; "oso giro polita" izan zela esan digute. Hiru adin tarte bereiztu zituzten: 6 eta 8 urte artekoak, 9 eta 14 urte artekoak eta 15 urtetik gorakoak. Lehen taldekoek partxisean jokatu beharrean antzara jokoan aritu ziren; espainolez errotutako esaldiak euskarara itzuli zituzten; antzara bat eta antzar bi berriz ere niri eta zubitik zubira zu zaude oraindik begira, adibidez. Zortzi umek hartu zuten parte eta Beñat Goikoetxea izan zen irabazlea. Partxisean jolastu zuten 9 eta 14 urte arteko taldean, 26 ume aritu ziren eta Aitor Ugarte izan zen irabazlea. Azkenik, parte hartu zuten 12 helduen artean Maite Arana izan zen onena. Saridunek euskarazko materialarekin trukatzeko txartelak jaso zituzten.



Gaztetxoek antzara jokoan aritu ziren, euskaraz. | TXIRRITOLA ELKARTEA

Irakurketa kluba osatu guran, haur eta gurasoek batera irakur dezaten

J.B. | ARAMAIO

Bularretik Mintzora kanpainaren barruan irakurketa klubak osatu guran dabiltza Aramaion ere. Bularretik Mintzora kanpaina sistematizatu bat izateko bokazioz jaio zen 2007ko abenduan. Haurren guraso eta hezitzaileei zuzenduta dago eta helburu nagusia da

0-6 adin tarteko haurrengan irakurketa ohiturak sustatzea gurasoekin eta haien hezitzaileekin, euren ingurune naturalean. Hau da, antolatzaileen asmoa da haurrek eta gurasoek denbora tarte bat hartzea liburuekin gozatzeko. Saio horietan gurasoek eta haurrek ekintza batzuk burutzen

dituzte, hala nola, irakurketa ozenak, liburuen aurkezpenak, irakurritako liburuen gaineko gomendioak eta beste hainbat ekintza, liburuekin gozatzeko eta idatzizko literaturaren curriculum bat pixkanaka osatzen joateko.

Hiru saio herriko liburutegian

Hainbat helburu zehatz dituzte: irakurketa sustatzea, kalitatezko euskal bibliografia ezagutzea, guraso eta haurren arteko irakurketa giroa sortzea, gurasoak

ozenki irakurtzen trebatzea eta haurrek giro lasai baten goza dezaten lortzea, besteak beste.

Ekimena hilaren 18an helduko da Aramaiora. 3 eta 6 urte arteko haurrendako eta horien gurasoendako antolatu dituzte, eta liburutegian elkartuko dira. Beste bi saio ere egingo dituzte, abenduaren 16an eta urtarrilaren 20an. Izena eman gura duenak liburutegira jo beharko du eta bertan bete beharko du izen-emate fitxa.

Pozalaguas haitzuloetara bisita, ederto

Alaiak elkarteok Karrantza inguruko (Bizkaia) Pozalaguas haitzuloetara egindako bisitaren berri eman digute. Urriaren 18an joan ziren, eta, eguraldia lagun, egun ederra igaro zuten. Artxandan bazkaldu eta Bilbon bi orduko paseoa egin zuten.



ALAIK ERRETIRATU ELKARTEA

ELGETA

Drogen gaineko bi saio ireki gaztelekuan

L.Z. | ELGETA

Bideberri mankomunitateak antolatuta, droga-menpekotasuna landuko dute Elgetako gaztelekuan 10-15 urte bitarteko gazteekin. Prebentzioa da helburua, eta Kalekka elkarteko bi lagunek bi saio egingo dituzte herrian. Azaroaren 23an, zapatua, 10 eta 12 urte bitarteko gazteekin egingo dute tailerra. Azaroaren 30ean, berriz, 13-15 urte bitarteko gazteekin. Saioak doan dira, 17:30ean hasiko dira eta bi ordu eta erdiko iraupena izango dute. Hainbat joko eta dinamikaren bidez gazteek gaiaren inguruan dituzten zalantzak eta kezak argitzen saiatuko direla esan dute Kalekkatik.

Hitzaldia eta Los Vibradores, Erasoka eta Lokaltones taldeen kontzertua gaur gaztetxean

Mugimendua izango da gaur arratsaldean Elgetako gaztetxean. 18:00etan elikadura beganoari buruzko hitzaldia egingo du Jose Antonio Vitoria beganoak. Afalostean, berriz, emanaldia egingo dute Los Vibradores, Erasoka eta Lokaltones taldeek. Kontzertua 22:00etarako iragarri dute gaztetxetik. Sarreraren prezioa bost euro da.

Anthony Blake mentalista ezagunak 'Más allá de la imaginación' ikuskizuna egingo du bihar eta etzi

Elgetan emango du aste bukaera Anthony Blake mago ospetsuak. Ondo ezagutzen du Elgeta, ia urtero etortzen baita. Honako honetan, formatu txikiko ikuskizun batekin dator: *Más allá de la imaginación*. Zapatuan 22:30ean egingo du emanaldia eta domekan, 19:00etan. Sarrerak salgai daude 16 eurotan —bazkideendako 12 euro— antzokian eta espaloia.com webgunean.

X. PILOTA TXAPELKETA

Sei norgehiagoka aste bukaeran

Lau terdiko pilota txapelketako beste sei norgehiagoka jokatu dira gaur, barikua, Udal Pilotalekuan.

GAUR, BARIKUA, 19:00ETAN

Iban Retolatz-Diego Cantabrana / Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal
Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Iker Irazabal-Igor Irazabal
Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe / Eneko Ormaetxea-Mikel Ormaetxea
Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta
Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta
Iñaki Olaortua-Oskar Saratsua / Mikel Beretxinaga-Ibon Untzetabarrenetxea

OHARRAK

GAZTAINA JANA

Herri Eskolako umeak gaur, barikua, egingo dute gaitaina -erre jana. Guraso elkartearen eskutik, 15:00etan elkartuko dira frontoi zaharrean gaitaina erreteko jateko.

AUTODEFENTSA TAILERRA

20 lagunetik gora daude hila-ren 23an 09:00etatik 13:30era egitekoa den emakumeendako autodefentsa tailerrerako izena emanda. Aurrerantzeko interesatuak ordezkoen zerrendan sartuko dira.

LOGO LEHIAKETA

Gogoratu behar da hilaren 30era arte aurkez daitezkeela lanak Udal Liburutegiak deitutako logo lehiaketara. Argibide gehiagorako, jo liburutegira bertara edo *Elgetako liburutegia* blogera.

Herritarrek aukeratu behar dute orain lehiaketako pintxo onena

Domeka eguerdia girotzeko 30 bat kideko txistulari taldea espero da herrian

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Pintxo-domeka izango da honakoa ere Elgetan, eta pintxo eskaintza berezia egingo dute herriko bost tabernatan. Oraingoan, ordea, herritarrek izango dira protagonista, eta epaile lanak egiteko eskatu diete.

Epaimehai ofizialak —Iñaki Gorostitza, Asier Morales eta Mikel Irazabal— aurreko domekan hartu zuen erabakia: pintxo onena Maialde landetxeko Jesus Mari Kalboetxeagak egindako bakailao hostopila foie kremarekin izan zen. Egunean bertan jaso zuten lehiaketako txapela Maialde landetxean, hirugarrena jarraian.

Domeka honetan, tabernekek —Haizea, Bolatokia, Maialde, Iñaki eta Espaloia— lehiaketara aurkeztutako pintxo bana eskainiko dute euro batean; bakoitzak lehiaketara aurkeztutako onena. Eta bezeroek botoa emateko aukera izango dute. Herritarren saria dago orain jokoan, eta ikusi egin beharko da, iaz gertatu moduan, epaimehai ofizialaren erabakia bat datorren bezeroenarekin. "Maila handiko pintxoak aurkeztu dituzte taberna guztiek. Domeka honetan, azaroak 17, eta hurrengoan, azaroak 24, herritarrek aukera izango dute euren pintxo gustukoena aukeratzeko. Horre-



Maialdeko Jesus Mari Kalboetxeagak txapela jaso zuen unea. | L.Z.

tarako boto paperak eta botoak jasotzeko ontziak izango dituzte taberna guztietan. Parte hartzen dutenen artean bi lagunendako bazkaria edo afaria zozketatuko

da", esan dute antolatzaileek. "Tabernarien ekimenez, pintxoak dituzten osagaiak asmatzen dituzten artean bi ardo botila zozketatuko dira".

Mugarik gabeko txuntxuneroak kalean

Musika Mugarik Gabeko Txuntxuneroak izeneko taldeak ipiniko du domekan. Hango eta hemengo txistulariek osatzen dute taldea, eta festa non, han egiten dute hitzordua. Elgetan 30 bat txistulari elkartzea da aurreikuspena. Patxi Basaurik adierazi duenez, Tuteratik, Iruñatik, Tafallatik, Agoitzetik, Beratik, Urretxutik, Oñatitik, Pasai Donibanetik, Elorriotik eta Sestaotik etorriko dira. Esna deia egingo dute 11:00etan eta kalejirak, eguerditik aurrera.

NIRE USTEZ

MIREN ARGIZEGIAGA



Ez ditzagun galtzen utzi

Badira hamabi urte Elgetara etorri ginela. Ez genuen inor ezagutzen, ume txiki bat eskutik helduta eta beste bat bidean. Azaroa zen, euritsua eta hotza. Arratsaldeak udaletxeko arkupeetan pasatzen genituen, han egin geni-

tuen lehenengo lagunak; amak, amamak, zaintzaileak eta aitaren bat. Egunak luzeak egiten zitzaizkigun enteratu ginen arte Julianean giltza bat hartu eta kultura etxeko gela bat erabiltzeko aukera zegoela, gurasoen ardurapean.

Gela hutsik zegoen eta guk eramaten genituen jostailuak, baina hotzetik babestuta. Beste ume batzuk, "handiak", liburutegira joaten ziren, liburu bat "irakurri" eta gero, margotzeko aukera zuten.

Ordutik hona gauzak asko aldatu dira. Handik urte batzuetara gurasoen behar bati eran-

tzunez gela hartan lehen ludoteka zabaldu zen, eta nahiz eta momentu batean gehiegi ez erabili, familia batzuek izena eman genuen aurrera atera ahal izateko. Bazirudien ez zuela indarrik hartuko, baina gerora frogatu da haren beharra. Duela bost urte, ludoteka berria egin zen, eta gaur egun astegunetako ludotekaz aparte —zaintza zerbitzua ere bertan ematen da—, aste bukaeretan gaztelekua dago, Elgetako negu hotzetan umei eta gurasoei oso ondo datorkiena.

Eskerrik asko zerbitzu horiek martxan jartzen lagundu dutenei, eta ez ditzagun galtzen utzi.

LEINTZ GATZAGA

Lortu dute taldea sortzea autodefentsa ikastarorako

Gaztetxoak, helduak zein erretiratuak animatu dira autodefentsa ikastaroan parte hartzera

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Hamahiru emakume taldea lortu dute bihar, zapatua, egingo duten autodefentsa feminista ikastarorako. Taldea bera sortuko zela zalantzan egotetik hamahi-

ru laguneko taldea sortzera pasatzea esanguratsua izateaz gainera, are esanguratsua da kopuru hori Leintz Gatzaga moduko herri txiki batendako. Eta kopurua bera esanguratsua

izateaz gainera, esanguratsua da taldea osatzen duten emakumeak adin askotarikoak direla, "gaztetxoak, heldutxoak eta baita erretiratuak ere", jakinarazi du Aina Gabilondok, Bideberri mankomunitateko gizarte langileak eta ikastaroaren antolatzaileak.

Erasoei aurre egiteko

09:30etik 13:30era egingo dute ikastaroa, kultura etxean. "Eguraldi txarra dago iragarrita, baina berogailua ipiniko dugu eta gogo-gogo jarriko dugu guztia

ikastaroa egiteko", dio Gabilondo gizarte langileak.

Emagin izeneko elkarteak dinamizatuko du biharko ikastaroa, honako helburu hauekin: "Eraso motak identifikatzea, autodefentsaz aritzea eta erasoei aurre egiteko estrategiak lantzea, indarkeriaren inguruko bizipenak partekatzea, elkar entzutea eta beldurren eta emozioen gainean hitz egitea". Bada, hori guztiori Emagin elkarteko Alaitz Mañes autodefentsa hezitzaileak biderratu du.

Andoingo elkarte

Emagin elkartearen ikerketa eta dokumentazio zentroa da. Andoainen sortu zuten, 2003an. "Emagin egitasmoaren bidez, emakumeoi historian zehar ukatu zaigun lekua berreskuratu nahi dugu. Historian emakumeok egindako ekarpen feminista jaso, emakumeak orainaren protagonista bilakatu eta, azken finean, gure etorkizuneko aldaketarako eragileak izatea"; horrelaxe deskribatzen dute elkarte feministaren norabidea.

FUTBOLA

Derbia jokatuko dute Aretxabaleta eta Antzuola futbol taldeek Ibarra

Goranzko joera dute bi taldeek; hamarna puntu dituzte

IMANOL BELOKI / X.U. | ARRASATE

Aste bukaera honetan derbia jokatuko dute Aretxabaletako eta Antzuolako futbol taldeek. Hala, kategoriako erreferenteetako bat eta iritsi berria izango dira aurrez aurre; etxean jokatuko dute aretxabaletarrek, eta antzuolarrek lehenengoz jokatuko dute Ibarra futbol zelaietan.

Domekan izango da partidua, eta, eguraldi iragarpena ikusita, zelai bizkorra azkarren moldatzen denak asko izango du irabazita. Aurreko jardunaldian bi taldeek eraman zuten garaipena poltsikora: Antzuolak errepaso ederra eman zion Real Unioni (5-1), eta Aretxabaletak, kanpoan, 1-2 irabazi zion Getariari. Bi taldeak puntu berberekin daude eta partidu gogorra izango da, inor ez dagoelako ezer oparitzeko.

Bidea zuzentzen, Aretxabaleta

Albistegiren mutilek erabat oker hasi zuten denboraldia, azken postuan egon baitira duela gutxira arte. Mailaz igotzeko moduko taldea daukate, baina orain arte ez da islatu ez jokoan, ezta sailkapenean ere. Azken bi partiduak irabazi ondoren suspertu egin dira eta goranzko bideari ekin diote. Bide onetik doaz, baina joera positibo hori ez eteteko Antzuolaren aurkako partiduan garaipena lortu beharko dute.

Antzuolakoak, berriz, aurreko jardunaldian sekulako gol zaparrada sartuta konfiantza handiarekin joango dira garaipena eskuratzera. Ez dute esku

hutsik etxera bueltatu nahi, nahiz eta badakiten Ibarra plaza zaila dela.

Ballarako beste taldeak

Bergarak puntu bat atera zuen etxean aurreko jardunaldian Hernaniren aurka. 2-2 amaitu zuten partidua, bi taldeak maila bertsuan ibili ostean. Aste bukera honetan, aldiz, Hondarribiaren aurka jokatuko dute kanpoan.

Aloñak, ostera, ezohiko gol kopurua jaso zuen joan den astean Tolosan (4-2), eta hori zuzendu nahiko dute hirugarren dagoen Anaitasuna gogorraren kontra, Azkoagainen.

Amaitzeko, erregional preferentean, seigarren dagoen Mondrak liga ondoen hasi duen taldeetako bat izango du aurrean, Azpeitiko Ikasberriren zelaietan jokatu du-eta.



UDako jokariak burumakur gol bat jaso ondoren. | JOSETXO ARANTZABAL

ALBERTO ALBISTEGI | UDA-KO ENTRENATZAILEA

"Azken postuetatik irten behar dugu"

Alberto Albistegi eibartarra Aretxabaletako futbol taldeko ohorezko mailako entrenatzailea da.

Zer espero duzu domekan jokatu duzuen partidurako?

Azkenaldian ari garen moduan jokatzeko espero dut. Jarrera eta norabide beretik jarraitu behar dugu. Denboraldi hasiera txarra izan dugu, baina azken partiduetan suspertu egin gara. Berdinke bat eta bi garaipen lortuta gatoz eta puntuak lortu behar ditugu. Agian, ez dugu irabaziko, ez dago jakiterik, baina etxean jokatu berdinketa bat gutxienez lortu beharra daukagu.

Zaila izango al da derbia?

Bai, ez da erraza izango. Baina ez



GOIENA

dago faborito garbik. Eurek euren futbol zelaietan hobeto jokatzen dute, Ibarra baino futbol zelai txikiagoa da Estalakoa, baina gurean ere ondo jokatu dute. Horrelako partiduetan ez du garrantzirik sail-

kapenak. Nahiz eta mailaz igo berria den taldea den, jokari batzuk ezagutzen ditut eta maila oso onekoak dira.

Zein da hemendik aurrerako helburua?

Azken postuetatik irtetea dugu helburua. Hau da orain daukagun urgutzia. Larri ibili gara orain arte sailkapeneko azken postuetan, baina konfiantza hartu dugu eta hori eutsiz irabazten jarraitu behar dugu. Etxean jokatu ezin gara esku hutsik, puntu barik gelditu.

IÑAKI AGIRRE | ANTZUOLAKO KAPITAINA

"Gure maila erakustea da asmoa"

Antzuolako taldeak lehenengoz jokatu du kategoria honetan Ibarra, eta kapitainak dio taldeak duen onena ematen badu, Aretxabaletari kosta egingo zaiola Antzuola mendean hartzea.

Ze asmorekin joango zarete Ibarra?

Kategoria txikiagoetan bai, jokatuko dugu Ibarra, eta berehala ikusten da asko estutzen duen futbol zelaia dela. Horrenbestez, lehenengo taldeaz gehiago igarriko dugu hori. Baina ez goaz puntu batekin konformatzera, partidua irabazteko asmoz goaz.

Ez da liga hasi aurretik aurrakusten genuen Aretxabaleta, baina...

Bai, sailkapenak erakusten du uste



GOIENA

baino askoz okerrago hasi dutela liga, baina badirudi erreazionatzen dabilzala, azken bi partiduetan aldeko emaitzak lortu dituzte, eta moraliki on egingo zien horrek. Aretxabaleta kontrario gogorra

izango da.

Zuek, berriz, joan den asteko maila ona erakusten baduzue...

Hori da asmoa, joan den asteko partidua errepikatzea. Real Unionen kontrako partiduan dena sartu genuen barrura, orain arteko partiduetan kale egin ditugun guztiak, baina egia esan, oraingo asterako golen bat gorde izan bagenu, hobeto [Barre]. Ea joan den asteko boladari eusten diogun, atzean oparirik egin gabe.

ESKUBALOIA

Ford Mugarrik liderraren kontra jokatu du Ipuruan

Lehen postua eskuratzeko gogor borrokatuko dira arrasatearrak Somos Eibar taldearen aurka

I.B. | ARRASATE

Gogor hasi dute Ford Mugarriko denboraldia Pablo Gartzia-aren gidaritzapean. Lehen nazional mailara igo dira aurreko arrasatearrak eta neurria ematen dabilzta kategoria berrian. Oraindik partidu asko gelditzen dira, baina orain arte zenbaki bikainak lortu dituzte: sei garaipen, porrot bat eta berdinketa bat.

Bigarren postuan daude arrasatearrak, eta, aurreko astean Zaragozako Stadium Casablanca

taldeari 29-31 irabazita, lehen postutik puntu batera daude Arrasatekoak. Domekan 12:00etan jokatu dute partidua Somos Eibar liderraren aurka eta ikus-teko moduko lehia izango da. Talde armagina lehen postuan egon arren, aurreko jardunaldian galdu egin zuen Alcorta Forging Group taldearen kontra, 27-25.

Hori ikusita, Ford Mugarriko taldekideak motibatuago irtengo dira kantxara. Pablo Gartzia Ford Mugarriko entre-



Ford Mugarriko Kepa Gruzeta Zaragozaren aurkako partiduan. | GOIENA

natzaileak hauxe esan du: "Oso talde ona daukate eta oso zaila egingo zaigu irabaztea, baina irabaztera goaz. Elgoibarren galdu egin zuten eibartarrek, baina derbia izan zen, ez zen

partidu arrunta izan. Publikoak presio handia egiten du bertan, eta, jakin dudanez, epailearen erabakiak ez ziren guztiz zuzenak izan. Gure partidua, berriz, oso ezberdina izango da". Hala, Elgoi-

barren kontrako porrota ez da erreferentzia.

Gartzia-aren helburua ahalik eta ondoen jokatzea da, eta, posible izanez gero, irabaztea: "Eibarkoek jokari bikainak dituzte, eta helburu ezberdinak ditugun bi talde gara, oso zaila izango da, beraz, irabaztea". Hurrengo erronka 16 puntu lortzea da eta denboraldiko helburua, berriz, maila mantentzea".

Kantxaren gainekoak

Udan egindako obren ostean, Iturripeko kiroldegiko kantxa oraindik ez dago ehuneko ehunean. Nahiz eta bertan jokatu, soluzio bideak aurkitu beharko dituzte etorkizunari begira. Hasiera baten Iturripen jarraituko dutela dio Ford Mugarriko entrenatzaileak, baina ez daudela batere gustura.



Maialen Axpe, Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena. | JONATHAN PEREZ

ATLETISMOA

Gipuzkoako atletismo galan protagonista

XABIER URZELAI | ARRASATE

Debagoieneko atletak izan dira, aurrenekoak, Gipuzkoako atletismo galan protagonista. *Show* ezohiko batekin hasi zuten ekitaldian, gure ibarreko asko omendu zituzten, baita dagoeneko gure artean ez daudenak ere; esaterako, Fernando Aguilar.

Ondo afaldu ostean etorri zen sari banaketa. Hala, beterrano moduan egindako ibilbide ikusgarria aitortu zioten Mari Sol Ramos oñatiarrari.

Ezkurak jasotzen

Horrekin batera, argazkian dituzten hiru atletek ere jaso zituz-

ten sariak: alde batetik, Istar Dapenak Gipuzkoa eta Euskadi mailako errekorra ondu duelako jaso zuen ezkur preziatua, pertikarekin 4,52 metroko marka ezarri du-eta gazte mailan.

Malen Ruiz de Azuak, berriz, Espainiako Txapelketa birritan irabazteagatik eta junior eta gazte mailetan errekorra ontzeagatik ere jaso zuen aipamen berezia.

Sorpresa handiena jaso zuena, baina, Arrasateko Maialen Axpe izan zen, gaueko sari potoloetako bat eraman zuen-eta etxera: 2013-ko emakumezko atleta onenaren saria jaso zuen Bedoñakoak.

TENISA

Aitor Magallanesek irabazi du Oñatiko Tenis Txapelketa

X.U. | ARRASATE

Oraingo aste bukaeran jokatutako behar zituzten San Migel-letako Tenis Txapelketako partidua erabakigarriak, baina finalistetako batek, Roberto Irizarrek, min hartu du, eta, horrenbestez, automatikoki Aitor Magallanesek irabazi du bakarkako txapelketa. Adi, baina, Magallanes binakako txapelketako finalean ere badelako; hortaz, *dobletea* egin dezake txapelketan.

Finala jokatuko ez badute ere, hirugarren eta laugarren postuen arteko lehia jokoan egongo da, eta baita binakako finala ere.

Domeka goizean

Binakako finala 09:00etan hasiko dute, eta Aitor Magallanesek eta Eneko Fernandezek osatutako bikoteak Jose Etxabe eta Julen Etxabe izango ditu aurrean.

Eta partidua horren ondoren jokatuko dute hirugarren eta laugarren postua erabakitzekeo partidua, 10:30ean. Hain zuzen ere, lehia horretan Eneko Fernandezek eta Eneko Ugaldek neurtuko dituzte indarrak. Bada, partiduko Zubikoako kantxan jokatuko dituzte.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EUSKAL LIGA, EMAKUME.

Mondra-Abanto
Domeka. 12:00. Mojategi.

EUSKAL LIGA, GAZTEAK

Zaramaga-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Gasteiz.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaleta-Antzuola
Domeka. 16:30. Ibarra.

Aloña Mendi-Anaitasuna
Domeka. 16:30. Azkoain.

Hondarribia-Bergara
Domeka. 11:30. Ondartza.

ERREG. PREFERENTEA
Ikasberri-Mondra
Domeka. 16:30. Garmendipe.

LEHEN ERREGIONALA
Bergara-Soraluze
Zapatua. 16:00. Ipintza.

Armagiñak-Aretxabale. UDA
Zapatua. 17:30. Unbe.

OHOREZKO GAZTEAK

Mondra-Tolosa
Zapatua. 16:00. Mojategi.

Beasain-Aloña Mendi
Zapatua. 18:30. Igartza.

Zumaiako-Bergara
Zapatua. 12:00. Aita Mari.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatzak atsedena du.

BIGARREN MAILA
Oiarzun-Aretxabaleta
Egubakoitza. 19:15. Elorsoro.

SASKIBALOA

LEHEN NAZIONAL MAILA
Fundacion 5+11-MU
Zapatuan. 19:00. Gasteiz.

GIP. BIGARREN SEN.

Aut. Alustiza-Soraluce BKE
Zapatua. 18:00. Orio.

Viento Sur-MU A
Domeka. 12:15. Elgoibar.

Aloña Mendi-North Coast
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Bilintx
Egubakoitza. 20:15. Manuel.

ESKUBALOA

NAZIONAL MAILA
Eibar Eskub.-Ford Mugarri
Domeka. 12:00. Ipurua.

EMAK. EUSKADIKO TX.
Ereintza-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Errenteria.

GIZO. EUSKADIKO TXAP.
Soraluce BKE-EI Pilar
Zapatua. 18:00. Bergara.



GOIENA

SORALUCE BKE-K AGORROSINEN Bergarako taldeak inoizko denboraldi hasiera onena egin du ligan, bigarren daude-eta zazpi partidua jokatu ostean; zapatuan El Pilar izango dute kontrario.

hemen bada giro!

Gurea

TABERNA

Lotoak eta
kinielak



Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



ARETXABALETAKO TABERNA ETA JATETXEEN GIDA

IOSU

taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



ORLY TABERNA




Giro berria dastatu,
eta Orly aukeratu!

Herriko plaza 3 • ARETXABALETA

IZARTU

kafetegia



Iralabari plaza
ARETXABALETA



Gin-tonica
hartzeagatik,
Samsung Galaxy
S3 Mini baten
zozketan parte
hartuko duzu.

GIN-TONICA DASTATZEKO UNEA
IZARTU KAFETEGIA



Goiena Klubeko azaroko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



32 hazbeteko telebista

32 hazbeteko OKI Telebista

Parte hartzeko sariaren izena:
Telebista



Otarrak DEBAGOIENENKO BASERRI SAREAr esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar.

Parte hartzeko sariaren izena:
Baserrisarea



ARRIKRUTZ
oñatiko obak

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko,
6 sarrera zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikruz



Otarrak

HARREMAN DENDAr esker bidezko
merkataritzako produktuez osaturiko
2 otar zozketatuko ditugu.

Parte hartzeko sariaren izena:
Harreman



argia

Jokoa

Badakit 2 joko

Parte hartzeko sariaren izena:
Badakit

PARTE HARTZEKO:

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

SMS: KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

WhatsApp: KLUBA [SARIAREN IZENA] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KULTURA



lako Oñatiko film laburren rallyan, Foruen plazan talde bat grabatzen. | JOSETXO ARANTZABAL



2011. urteko *Ti Tau* rallyaren une bat. | EINGEINKE

Debagoiena, euskarazko film laburren rallyen plato

Oñatin eta Eskoriatzan laugarrenez egingo dituzte euskarazko rallyak

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Zinegileek eta ikus-entzunezkoen sortzaileek aukera bikoitza dute egunotan Debagoiengan: plato erraldoi bilakatuko dituzte Oñati eta Eskoriatza, film laburren rallyak aitzakia hartuta.

Bihar, zapatua, Oñatiko Laburmetrai Rallyaren laugarren edizioa egingo dute eta azaroaren 30erako *Ti-Tau* rallya prestatu du, laugarrenez, Eskoriatzako Eingeinke taldeak. Izena emateko aukera dago bietan.

Luxuzko epaimahaia Oñatin

Euskaltzaleen Topagunearen *Kameratoia* rallyan parte hartuta, ideia herrira ekartzea erabaki zuten herriko hainbat zinezalek, garai hartan ibarrean zegoen hutsunea betetzeko asmoz. Asmatu egin zuten, antza, dagoeneko herriko hamasei taldek emana zuten-eta eguaztenerako izena. "Zapatuan, goizeko zortzietan ere eman ahal izango da izena, baina horiek ikusleen saritik kanpo geratuko dira. Gehienez, hoge-

talde izango dira", argitu du Aitor Perosterenak, Oñatiko rallyko antolatzaile taldekoak.

Parte-hartzaileak 08:00etan elkartuko dira eta 19:30erako amaitu beharko dituzte lanak; *lunch*-a egongo da parte hartzaileendako gero. Grabaziorako zein post-produkzioarako beharrezko materiala talde bakoitzak eraman beharko du eta gaztelekua izan-

go dute ediziorako lantoki. Santa Ana aretoan proiektatuko dituzte lan guztiak, 21:30ean". Lanek minutu bat eta hiru arteko iraupena izan beharko dute, eta euskaraz egin beharko dituzte edo euskarazko azpitituluekin, bestela. Bihar zehaztuko diegu aurtengo gaia zein den eta zein objektuk agertu behar duen, eta baita Oñatiko hamar lekuren

zerrenda ere; horietako bik agertu beharko dute film laburrean. Argibide guztiak orrallya.wix.com/orrallya atarian daude", zehaztu du Perosterenak.

Lau sari banatuko dituzte; horietako bat ikusleek erabakiko dute. Gainontzeko hirurak herriko hainbat zinezalek eta Ramon Agirre, Iñake Irastortza eta Iban Garate aktore ezagunek osatuko duten epaimahaiaren esku izango dira. Sari banaketa 23:00etan izango da.

'Ti-Tau', azaroaren 30ean

Hiru dira Eskoriatzako Eingeinke gazte taldeak azaroaren 30ean egingo duen *Ti-tau* rallyaren helburuak: gazteen sormena lantzea, hainbat herritako gazteek elkar ezagutzeko eta euskarazko lanak egitea; www.eingeinke.org atarian

daude lehiaketaren oinarriak eta bertan eman daiteke izena.

Oñatikoaren egitura oso antzerakoa du Eskoriatzakoak, nahiz eta umorea duen generotzat: "09:30ean Ibarraundi museoa elkartuko gara, han gaia eta erabili beharreko objektua zein den zehaztuko diegu, eta baita agertu beharreko txokoen zerrenda ere. Antolakuntzak argindarra eta ediziorako mahaia jarriko dituen arren, talde bakoitzak eraman beharko du beharrezko materiala. 19:00etarako entregatu beharko dituzte, luze jota, lau minutuko filmak USB batean. Parte-hartzaileendako *lunch*-a izango dugu gero, eta 21:30ean lanak erakutsi ostean, 300 euroko sari bakarra banatuko dugu", azaldu du Mirian Isasmendik, Eingeinkeko kideak.

'Kameratoia' abenduaren 6etik 8ra

Azken zortzi urteetan moduan, Euskaltzaleen Topaguneak *Kameratoia* Euskal Herriko ikus-entzunezkoen rallya antolatu du, gazte euskaldunen sormena bultzatu eta ekoizpen artistikoa gizarteratzeko helburuarekin. Oraingo edizioan, Durangoko Azokako *Irudienea gunea* izango dute agertoki nagusi. Lehiakideek 48 ordu izango dituzte hiru eta zortzi minutu bitarteko film laburra egiteko. www.kameratoia.com atarian eman daiteke izena; azaroaren 22a da azkeneko eguna.

Lehen edizioiko formatura itzuli da aurten lehiaketa: abenduaren 6an, parte hartzaileek aurkeztu beharreko lanaren gaia eta islatu beharko dituzten irudien zerrenda jasoko dute eta 48 ordura entregatu beharko dituzte filmak. Aurrekoetan moduan, hiru sari emango dituzte: 1.200, 900 eta 600 eurokoak, hain zuzen.



2010ean Ermuan egin zuten *Kameratoia*-ren une bat. | EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2013
azaroak 19

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON
Emplegu eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariak konfiantza, harbitasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.





Amaia Antzokian izango da bihar Eñaut Elorrieta. | SERRANO PRODUCCIONES

Eñaut Elorrieta | Musikaria

"Areto handia besteko batua da antzokia"

'Deserriko kantak' diskoa aurkeztuko du Elorrietak Amaia antzokian bihar, 20:00etan

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Eñaut Elorrietak, *Deserriko kantak* diskoa aurkeztuko du, hirugarrenez Debagoienean; bihar, zapatua, Arrasaten.

Zer moduz? Bezperatako lanak zelakoak dituzu?

Bezpera beti da onena gauza guztietan, datorrenaren ilusioaren adierazle-edo, Rafa Ruedak badu horren gaineko kantu bat eta arrazoi osoa du.

Maiatzean kaleratutako diskoarekin Debagoienean aurrez izandakoa zara. Zer moduz?

Atxorrotzekoaz oroitzen oso gozoa dut, sekulako eguna egin zuen, Land Roberrean igo ginen... abentura. Gitarrarekin bakarrik, mendian, jendearen tratua... Ez dut samur ahaztuko. Bergaran ere oso gustura egon baginen ere, frontoia ez da kontzertuetarako lekurik onena, soinuari dagokionez.

Marras ditzagun biharkoaren nondik norako nagusiak.

Haritz Harreguy soinu teknikaria eta Jabí Ulla argietakoaz

gainera, taularen gainean laukotea izango gara: Txus Aranburu teklatueta eta pianoetan; Ruben Caballero gitarra elektrikoan, akustikoan eta mandolinan; Igor Teletxea perkusioetan eta baterian; eta ni neu. Ardatza diskoa den arren, badira aurrez konposatutako kantu ezagunak ere; berri bat ere estreinatuko dugu.

Ken 7ren azkena egunotan kaleratu duzue, Euskal Herriko Orkestra Sinfonikoarekin. Zelan?

Pozik; uste baino lan handiagoa izan da, baina jende askoren eskuzabaltasunari eta lanari esker aurrera ateratu da.

Zerbait gaineratzen duzue?

Fagorreko kontuarekin, azken egunetan oso presente dudan jende horri guziorri besarkada bat eta animo pila bat.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Durangoko Azokaren 48. aldia izen eta guneen kokalekuen berrikuntzekin dator

Abenduaren 5etik 8ra bitarteko azoka Durango osora hedatu gura izan dute

A. A. / I. G. | ARRASATE
Abenduaren 5etik 8ra bitartean bilakatuko dute aurten ere Durango euskal kulturaren topaleku nagusi. Hainbat dira 48. edizioak dakartzan berrikuntzak; horien artean, azokaren izenaren aldaketa; orain arte Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka izan da izen ofiziala eta aurrerantzean Durangoko Azoka izango da.

Azoka, herrian hedatuta

Gerediaga elkarteak kudeatzen duen kulturaren plaza Durango osora hedatu gura izan du aurten, herriko hainbat espaziotan kultura eskaintza osatzeko helburuarekin. Eskaintza oparoarekin eta elkarlanarekin azoka bera indartu eta aberastu egingo dela uste dute antolatzaileek.

Guztira, zortzi gunek osatuko dute aurtengoa, eta horien kokalekua adierazten duen *Azoka*



Azoka hiria Azokako guneen mapa aukeztu zuten atzo. | IRATI GOITIA

hiria, hain zuzen guneen mapa, aurkeztu zuten atzo, eguna. Landakotik San Agustin Kultur Gune-raino zabalduko da, Zugaza zinema aretotik pasatuta. *Ahotsenea* eta *Irudienea* guneak tokiz aldatuko dituzte: *Ahotsenea* lehengo trenbide ondora pasatuko da eta

Landakotik Zugaza zinema aretora, berriz, *Irudienea*.

Goienan zuzenean

Aurten ere Azoka Telebista izango da: Landakoko pantaila erraldoian eta Goiena telebistan ere zuzenean ikusiko dena.

Bergaran egingo du Bagarak aurten, hirugarren Tobera

Abenduaren erdian jarriko dituzte salgai, Bergarako frontoian izango den Toberaren sarrerak

A. A. | BERGARA

Bagarak bultzatutako Tobera, antzerki satirikoaren hirugarrena egingo dute Bergarako frontoian, abenduaren 28an.

Iraitz Agirre, Bagarako kidearen esanetan, debagoieneko herri handien trilogia itxiko du aurtengoak; izan ere, Arrasate eta Oñati epaitu ostean, aurtengoan, Bergara izango da epaituko dutena. Aurrekoetan moduan, ibarreko gainontzeko herriak akusaziozko parte izango diren arren,

aurtengoan, Bergarako auzotarrak izango dira akusazioaren protagonista nagusiak.

Hiru aste doaz entsegatzen

Hamabi lagun artean osatu dute Tobera berriaren gidoia. Lan-taldetan banatu eta atal bakoitzeko landu du bakoitzak, hori guztia taularatuko dute gero, aniztasun handiko hogeitabost lagun inguruko aktore eta aktoreresa taldeak. "Denetik dago gidoian, badaude Bergarako auzo-

tarrek erdiguneko leporetzen dizkien akusazioak, (auzoak albo batera utzi dituztela esanaz besteak beste); urtero moduan akusazio historikoak ere izango dira eta beste hainbat ere bai. Laburbilduz esan genezake, akusazioak, azalkeiagatik doala hau da, janzkerak, itxurak, emangurak eta horrelako topikoak ekarriko ditugu, besteak beste. Gidoiaren ardatzetako bat da hori baina beste hainbat ere baditu" diote Bagaratik.

Orain hiru aste hasi ziren entseatzeko eta astean birritan elkartzeko dira. Mikel Irizar izango da aurten ere epaile eta ikusiko ditugu aurrekoetan parte hartu zuten beste hainbat ere. "Aurpegi berriak ere asko dira, eskarmentudunak batzuk, baina gehienak, hasi-berriak dira".



PARTE HARTZEKO:
goienakluba.com
943 25 05 05



Banatu ditugu sariak. Zorionak, guztioi!

Orain, badatoz azarokoak. Zorte on!

Martxan da Bergarako amodiozko gutunen lehia

I.E. | BERGARA

Sarri barruan gordeta geratzen diren sentimenduak azalertzeko beste aukera bat eskainiko du Bergarako Jardun elkarteak amodiozko gutunen 22. edizioan.

Parte hartu nahi dutenak oraindik garaiz dabilta orri zuriaren gainean islatu nahi dutenaz hausnartzeko, 2014ko urtarrilaren 7a arte egongo baita zabalik lehiaketa.

1999. urtea baino lehenago jaiotakoek har dezakete parte, eta lanek jatorrizkoak eta euskarazkoak izan behar dute. Idatziek bi orriko luzera izango dute gehienez eta gutun forman aurkeztu behar dira, eskuz nahiz ordenagailuz idatzita. Jardunen egoitzan utzi edo amodiozkogutunak@gmail.com helbide elektronikora bidal daitezke.

Nobel-truk ekimena, Jokin Zaitegi beka salbatzeko

Kutxa Fundazioak diru laguntza kendu dio AEDren itzulpen-egitasmoari

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

AED elkarteak urteetan zehar antolatu duen Jokin Zaitegi beka ez du Kutxa Fundazioaren Gizarte-ekintzarekin diru laguntzarik izan aurtengo edizioan. "Iaz abendu partean jakin genuen Kutxaren babesik ez genuela izango. Deialdia eginga zegoela kontuan hartuta sariketarekin aurrera jarraitu genuen", azaldu du Maitte Agirre AEDko dinamizatzaileak. Bestelako finantzazio bide batzuen bila ibili dira azken hilabeteetan eta herritarren laguntza eskatzen duen Nobel-truk ekimena jarri berri dute martxan.

Debagoieneko nahiz Euskal Herriko biztanleei bekaren egungo egoera finantzarioaren aldeko ekarpena egiteko gonbita egiten diete ekimenaren bitartez: "50



Azken urteetan Jokin Zaitegi bekaekin kaleratutako liburuak. | ZVDM.

euroko ekarpena egingo luke laguntzaile bihurtu nahi duen pertsonak eta diru hori guk 2012an deitutako sariketan falta den finantzaziorako erabiliko genuke".

Ekarpenak egiteko bi kontu korrante jarri ditu AEDk bere webgunean. Abenduaren 20a arte jasoko dituzte ekarpenak eta egitasmoarekin bat egiten duten

herritarrek bekaekin argitaratutako azken lana jasoko dute: Maialen Marinek eta Aiora Jakak itzulitako Mo Yan idazlearen *Hori umorea, maisu!*

Hain zuzen ere, gaur aurkeztuko dute iazko bekaren bitartez itzulitako liburua Donostiako Elkar liburu-dendan.

Beka kolokan

Kutxa Fundazioak bere gain hartzen zuenez Jokin Zaitegi beka, kolokan dago itzulpengintza bekaren etorkizuna. "Azarorako normalean deituta egoten da sariketa eta urrian jakin genuen 2013ko Literaturako Nobel sariduna nor den- Alice Munro-, baina guk oraindik ez dugu deialdia egin", azaldu du Agirrek.

Nobel-truk ekimenak izaten duen harrerak zeresana izan dezake hurrengo deialdian: "Emaitza kontuan hartuta, urtarrila partean hartuko litzateke erabakia, hau da, Jokin Zaitegi beka deialdia egingo den edo ez. Egitea erabakiz gero, 27. edizioa izango litzateke".

Liburuaren arabera aldatu egiten da beka, baina azken urteetan 3.000 eta 6.000 euro arteko beka eman izan da.

Ilusio mental berriak dakartza Anthony Blakek, zaharrak guztiz ahaztu gabe

Bihar 22:30ean gozatu ahal izango da haren trukuez eta domekan, aldiz, 19:00etan hasita

I.E. | ELGETA

Anthony Blake mentalistak atsegin du Elgeta, eta Elgetak gogoko du hura. Horren erakusle da bihar eta etzi Espaloia kafe antzokian eskainiko dituen saioetarako sarreraren salmenta. Asteazken zehar pixkanaka joan da areagotzen jendearen interesa, eta, asteburua hurbildu den heinean, sarrera asko saldu dituzte.

Oraindik erosteko aukerarik izan ez dutenak lasai egon daitezke, bihar eta etzi ere eskuragarri izango dira-eta saioen aurretik. 12 eurotan eros ditzakete Espaloiko bazkideek eta 16 eurotan gainerako ikusleek.

Ikuskizun berria

Ikuskizun berria dakar Anthony Blake magoak Elgetara: *Más allá*

de la imaginación. Azken bi lanetan ez bezala, formatu txikiko ikuskizuna prestatu du oraingoan adimenaren magoak. Beraz, ohikoa duen giro ilun eta xumearekin, ilusio mental berriekin gozaraziko die ikusleei. Blaken lana aspalditik ezagutzen dutenek 25 urtetik gorako ibilbidean bere ikur izan diren trukuak ere ikusi ahal izango dituzte.

Dena bere esku gera ez dadin, magia beste modu batean bizitzeko aukera emango die Blakek Espaloira bertaraten diren ikusleei, agertokira igo nahi dutenkin trukuak egingo baititu mentalistak.

Ikuskizunaz gozatu nahi dutenek bi aukera dituzte asteburu honetan: bihar 22:30ean hasita lehenengoa eta domekan 19:00etan bigarrena.

Empordako Ganbara orkestra Musikegunen bigarren asteburuan

I.E. | OÑATI

Joan den astean eman zioten hasiera Musikegunak programari eta etzi izango du jarraipena Empordako Ganbara orkestraren kontzertuarekin. Emanaldia 19:30ean hasiko da, Santa Ana antzokian.

Goi mailako musika eskaintzarekin batera, ikus-entzuleei irribarre bat ateratzeko asmoz datoz kataluniarrak Oñatira. Horregatik, umorez betetako argumentua prestatu dute: musikariak zuzendari lanetan ariko den Carles Collen aurka asalatuko dira eta ondoren hark mendeku hartuko du eta ikus-

leentzat dibertigarri suertatuko diren egoerak sortuko dira.

Hain zuzen ere, Mozarten, Straussen, Brahmsen, Piovani- ren, Andersonen, Chaplinen, Lekuonaren eta Vivaldiren piezak interpretatuko dituzte.

35. aldía

Ekimen beterrano hori, aurreko edizioak bezala, musika klasi- koa bultzatu eta ezagutarazteko ezinbesteko hitzordu bilakatu da. Santa Ana hartuko duen emanaldi klasiko horretaz gozatzeko ez da aitzakia handirik behar, musikaz gozatzeko gogoz gotea nahikoa da.



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Aitor Izagirre

Goienako presidentea

Zuen ekarpena, denok irabazteko

“Ez dira betiko garai onenak”, zioen abestiak. Eta bat egiten du esaldiak egungo egoerarekin. Denoi eragiten digu krisiak. Goienari ere bai. Azkeneko urteotan geroago eta zailago da publizitatea kontratatzea. Erakunde publikoek ere baliabide gutxiago dituzte dirulaguntzetarako. Sarrerak urritu zaizkigu. Eta, horrenbestez, egoera berrira egokitu behar izan dugu. Neurriak hartu ditugu. Baina ahalegindu gara kalitateari eusten, kaltea txikitzen. Hartzaileok igar ez dezazuen.

Hedabide asko ikusi ditugu desagertzen eta gertukoenak ere ez daude egoera onenean. Hori da errealitatea. Baina gogorrari gogor egin behar zaio. Eta denok batera bultza eginez gero, errazago gaindituko ditugu zailtasunak. Horregatik jotzen dugu zuregana, laguntza eske: Goienak behar zaitu!

**Ekarpen txiki bati
esker, abantaila asko
izango dituzu**

Aurki dira 25 urte *Arrasate Press* sortu zela. Herri hedabide eredugarri haren helburuei eusten die Goienak: euskara plazaratzea; normalizatzea.

Eta zuen konpromisoa derrigorrezkoa zaigu helburuei eutsi eta aurrera egiteko. Ekarpen txiki bati esker, abantaila asko izango dituzu eta denok irabaziko dugu: euskarak, zuk zeuk eta Goienak.

GOIENAK BEHAR ZAITU!

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO TELEFONOA: 943 25 05 05

goienakluba[“]
Euskara irabazle, denok irabazle!

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Etxebizitza berria salgai Txarapea ibilbidean. 94 metro koadrokoa. Hiru logela, bi komun, sukaldia eta egongela. Guztiz jantzita. 260 metro koadroko terrazarekin. Bi garaje, marradunak, eta bi trasteleku. 270.000 euro. Deitu 661 57 81 71 telefonora.

Duplexa salgai Oñatin. 88 metro koadroko duplexa salgai Atzekokalean. Sukaldia, egongela, bi komun, estudioa, bi logela eta gela txiki bat dauka. Igoailudun eraikuntza berriko etxea. Deitu 625 70 54 44 edo 607 58 00 99 zenbakietara.

Oñati. Roke Azkunen 72 metroko etxebizitza salgai. Lau logela, sukaldia, egongela, bainugela. Dena kanpoaldera begira, balkoi batekin. Igoailua. Garajea aukeran. 656 00 84 92

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan. Logela bat edo biko. Gehienez 500 euro ordaintzeko. 632 93 38 29 edo 602 88 84 80

Baserría edo etxea lur-sailekin. Baserría edo etxea hartuko nuke errentan, lur-sailekin. Telefonoa: 652 76 33 46

Baserría. Baserría hartuko nuke errentan Bergara, Soraluze edo Eibar inguruan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 680 36 22 41

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Gutzienez bi logelakoa. Terraza badauka, hobeto. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 77 58 82

Bergara. Familia batek etxea behar du errentan. Deitu 650 62 12 94 edo 943 76 19 52 telefono zenbakietara.

Bergara. Hiru logelako etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 638 62 85 02

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Erdialdean logela ematen da errentan. Sarrailarekin. Telebista gelan bertan. Josean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 603 14 28 89

Arrasate. Erdigunean logela ematen da errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

Arraste. Gelmako etxeetan logela ematen da errentan, bere komunarekin. Sukaldia eta egongela elkarbanatzeko. Garaiea alokatzeko aukera ere dago. Pertsona edo bikote baten zabor aproposa. Abendutik aurrera. Interesatuok deitu telefono honetara: 622 00 13 19

Bergara. Logela ematen da errentan erdigunean. Komun pribatuarekin. Sukalde eta egongela, partekatuta. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 26 71 41

Bergara. Logela ematen da errentan. Pertsona batendako edo bikotearendako aproposa. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 09 46 26

Bergara. Pertsona bat behar da pisu bat osatzeko Bergara ingurunean. 95 metro koadro ditu: hiru logela, egongela handia, komun bat, despentsa eta balkoia. Oso zabal da. Leihok PVCzkoak dira, kalefakzioa, aparkaleku amankomuna eta nahi izanez gero landatzeko lursail bat. Animatu eta etorri ikustera! 693 72 74 52

Pixua osatzeko Arrasaten. Pertsona bat behar dugu pisu bat osatzeko Arrasaten. Lau logela eta bi komun ditu, eta oso argitsua da. 230 € hilabetean, gastuak barne. Animatu eta etorri ikustera! 608 57 97 70

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Matxiategi 30ean garajea salgai. 26 metro koadro ditu eta bi autorentzako lekua dago. Ibaiondo kalera irteera zuzena du. Ate motorizatu, argindarra eta ura. Aukera ona. Prezio onean. Interesatuok deitu telefono honetara: 650 60 26 55

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Garaje itxia, 18 metro koadrokoa, ematen da errentan Burdinatan. 943 76 06 60 edo 689 36 86 42

204. ERRENTAN HARTU

Aramaio. Aramaion, garaje itxia errentan hartuko nuke. 690 83 98 53

Arrasate. Garaje itxia hartuko nuke errentan. 672 31 42 97

3. LOKALAK

301. SALDU

OÑATI

Ile-apaindegia eskualdatzen da. Aukera ona. 618 44 51 59

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Emakume bat behar da autonomoa den pertsona nagusi batekin bizi izateko. 629 71 92 21

402. ESKAERAK

Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Haur Hezkuntzan graduatua den neska euskalduna gertu haurrak zaintzeko. Esperientzia handia. Interesatuok deitu telefono honetara: 634 11 31 09

Arrasate. 50 urteko emakume haurren zaintzan zein etxeko lanetan jarduteko prest eskaintzen da. Esperientzia handia. Interesatuok deitu. 617 67 97 84

Arrasate. 55 urteko emakume euskalduna, arrasatearra, umeak edo nagusiak zaintzeko gertu. 943 79 60 89

Arrasate. Emakume arduratsua gertu hurrengo lanak egiteko: umeak eta nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta ospitalean gaixok zaindu. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

Arrasate. Emakume euskalduna goizetan plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 699 54 17 27

Arrasate. Emakume nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile aritzeko gertu. 608 05 33 53

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK

301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA

401. Eskaintzak
402. Etsakerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA

601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
604. Konpondu
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK

801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805. Trukatu
806. Galduta
807. Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

Atariak garbitzeko. 45 urteko emakume bat prest dago atariak garbitu, umeak zaindu eta abar egiteko. 625 83 84 13

Bergara, Antzuola edo Zumarraga. Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Erreferentzia onak ditut. Orduka, egun osoz edo ospitalean lan egingo nuke. Berehala hasteko moduan. Interesatuok deitu honetara: 634 91 81 73

Bergara. 49 urteko emakume arduratsua lan bila dabil. Edozein lan mota egiteko gertu. 943 76 52 39

Bergara. Emakume arduratsua, euskalduna, umeak zaintzeko gertu. Puerikultura tituluduna. Arantxa. Interesatuok deitu honetara: 688 65 30 62

Bergara. Emakumea gertu nagusi eta umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko. 610 34 97 88

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko, orduka. Maite. 638 62 85 02

Bergara. Esperientziadun emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbitasun lanak egiteko, orduka. Maite. 650 17 74 87

Bergara. Garbiketan edo pertsona nagusien edo umeen zaintzan orduka lan egiteko emakume esperientziaduna prest. 650 62 12 94 edo 943 76 19 52

Bergara. 33 urteko mutila lanerako gertu. Erreferentzia onak ditut eta eskarmentua nagusiak zaintzen eta etxeko lanetan. Orduka, egun osoz, asteburuetan edota ospitalean lan egingo nuke. Berehala hasteko moduan. 685 42 72 80

Bergara. Edozein ordutegirekin garbiketa lanetarako edo pertsona helduak zaintzeko emakumea prest. 649 68 47 59

Bergara. Emakume bergararra, zazpi urteko esperientziaduna, emakumeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 626 86 35 92

Debagoiena. Emakume nagusiak zaintzeko gertu, etxean bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu telefono honetara: 632 84 02 30

Debagoiena. Emakumea gertu garbitasun lanetan, tabernan, sukaldian zein nagusiak zaintzen lan egiteko. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono honetara: 636 11 23 40

Debagoiena. Emakumea etxean bertan bizi izaten lan egiteko gertu. Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta abar. 602 53 37 07

Debagoiena. Emakumea prest edozein ordutegirekin garbiketa lanak egin edo umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 664 12 43 25

